



MUSIKAREKIKO JAKINTZA ETA ZALETASUNA ZABALTZEAGATIK AITORTZA

Arrasate Musikaleko hiru irakasle ohi omendu ditu Arrasate Blues jaialdiak; musika beltza nagusi Mondragoen, asteburu beroa alaitzeko / 40

Miren Gastañares,
Maria Pilar Etxebeste
eta Mertxe Madinabeitia, bart,
Arrasateko plazan, Arrasate Blues
jaialdiaren agertoki nagusian,
omenaldiaren aurretik.

XABIER URZELAI

+



Emakume zikloturistak erdigunean

Agurtzane Elkorori elkarriketa, UDAko presidenteari

SINADURAK

 IÑAKI ETXEBESTE / 6	 JONMIKEL INTSAUSTI / 35
 IBON ARRUPE / 11	 ANDER ETXEBERRIA / 48

**DESKONTU
BEREZIAK
VARILUX®
LENTEETAN**



Kontsultatu optikan konpainiaren zaugarniak

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

000
www.multiópticas.com

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

B.S.S. 91/70

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA
Azken urteetan gasolindegia ugari egin dira Debagoiengan. Gaur egun, hamabi daude: bost Arrasaten, hiru Bergaran eta bina Eskoriatzan eta Oñatin. Horiei, baina, beste hiru gehituko zaizkie: Bergarako Telleria kalean Cepsak zabalduko duena, Plenoil enpresak Bergarako Santalaitz kalean jarriko duena eta, bukatzeko, Arrasaten, Azeri kalearen eta Araba etorbidearen arteko bidegurutzean, Petroprix eraikitzen ari dena.

Azken biak, Plenoil eta Petroprix, *low cost* edo prezio apaleko gasolindegia dira, eta Cepsak Tellerian –Mostei lantokia zegoen lekuan– zabalduko duen gune handiari lotuta, erregai-depositua betetzeaz gain, beste hainbat zerbitzu ere eskainiko ditu; adibidez, atsedena hartu eta otorduak egiteko aukera.

Bi, eraikitze lanetan

Gasolindegia berriek ez dute irekiera datarik mahai gainean jarri; halere, Arrasaten eta Tellerian ari dira lanean.

Esan bezala, Arrasaten, Azeri kalearen eta Araba etorbidearen arteko bidegurutzean –Etnnic enpresaren ondoan– egiten ari da gasolindegia berria Petroprix Energia SL enpresa. Jaenen du egoitza nagusia, eta, prezio apaleko ohiko gasolindegien joerari jarraituz, norberak bete behar du bere ibilgailuaren depositua; hots, ez da bertan langilerik egongo.

Bergaran ere, Mostei lantokia zegoen gunean –egun, Asacoat enpresaren alboan– gasolindegia eta atsedenera jartzeko lanei ere ekin diete berri. Lurra eta harriak kendu eta eremua lau-tzen dihardute, makinekin.

Gehigarri gutxiagoko erregaia

Erregaia "prezio apalean" salduko dute Bergarako Plenoilek eta Arrasateko Petroprixek. Arrasateko San Andres auzoan dagoen Avia gasolindegiko Ana Bujanda langileak azaldu ditu prezio merkeko erregaiaren eta gainerako gasolindegietan saltzen denaren arteko aldeak: "Garrantzitsua da jakitea enpresa guztiek erregai bera erosten duten arren, ondoren egiten diren prozesuak direla prezioaren eragina dutenak".

Hain zuzen ere, erregaiari botatzen zaizkion gehigarriak bereizten dituzte gasolindegia arruntak eta prezio apalekoak.



Lurra lautzen ari dira Bergarako San Migel auzoan, Cepsak gasolindegia zabaltzeko. U.I.L.

Hiru gasolindegia gehiago bailaran

Erregaiaren prezioak egunetik egunera gora egiten duen arren, gasolindegia gehiago izango ditu Debagoienak. Momentuz, beste hiru eraikiko dituzte: bi Bergaran eta bestea Arrasaten. Horietako bi 'low cost' deitutakoak –prezio apalekoak– izango dira

"*Low cost* gasolindegiek gehigarri gutxiago botatzen dizkiote erregaiari", azaldu du Bujandak. "Gehigarri gehiago dituen erregaia hobea da: ibilgailuaren motorrari mesede egiten dio, iragazkiak garbitzen ditu, ibilgailuak hobeto aprobetxatzen du erregaia...", jarraitu du. Bestetik, erregaia merkeago eskuratzen bada, erabiltzaileak "beste gastu batzuk" izango dituela ohartarazi du: "Diru gehiago inbertitu behar du autoa konpontzeko edo iragazkiak garbitzeko".

Inoiz baino garestiago

Bi euroen gainetik daude bai gasolina eta bai diesela: atzo, hilak 14, Debagoieneko gasolindegietan, batez beste, 2,072 eurotan zegoen gasolina (SP95) eta 2,018 eurotan diesela (GA). Ana Bujandak azaldu du erregaiaren igoerak eragin duela herriarren

ohituretan: "Jendeak ez du depositua erabat betetzen; izan ere, egun, guztia betetzeko, 100 euro baino gehiago ordaindu behar izaten da. Bezeroek nahia- go izaten dute gutxiago botatzea eta maizago etortzea". Era berean, kontatu du herriarrek lehen baino gehiago begiratzen diotela diruari, eta, horrenbestez, balioa ematen dietela enpresek eskaintako deskontuei eta fidelizazio-txartelek ematen dituzten abantailiei.

Ibilgailuen joan-etorriari dagokienez, Bujandak igarri du beherakada: "Esango nuke %5 inguru gutxitu direla gure bezeroak; erregaiaren prezioari bidesariak eta zenbait herri- tako TAO sistema gehitu zaiz- kio, eta jendeak garraio publi- koaren aldeko hautua egin du (...) Oporrak datoz orain, eta espero dut jendeak autoen de- posituak betetzea".

Aurreko krisiei begira

2011ko krisiarekin alderatu du Bujandak momentuko egoera: "Prezioak asko igo ziren orduan ere, eta furgonetarekin ibiltzen ziren autonomoek –gure ohiko bezeroak– lana utzi behar izan zuten. Gertatzen ari dena ikusi- ta, susmo bera dut orain ere". Alderaketa egiteko, duela ha- maika urte, gasolinaren prezioa 1,370 euro zen; orain baino 1,7 euro merkeagoa. Ordura arte, erregaiaren gehieneko prezioak 2008ko uztaillean jo zuen goia: 1,329 euro balio zuen gasolina litroak. Egun, marka historikoa dezente altuagoa da: duela lau aste, 2,141 euroko prezioa izate- ra iritsi zen gasolina litroa.

"Jendeak pentsatzen du guk nahi dugulako igotzen dugula erregaiaren prezioa, eta niri min ematen dit horrek. Gauza jakina da bizimodua garestitu egin dela, oro har; gora egiten ari dira prezioak. Otsailarekin alderatuta, bikoitza ordaintzen dugu geuk ere erregaiaren tru- ke", adierazi du Bujandak.


Merkatua, banatuago

Beste hiru establezimenduen irekierari lotuta, merkaturako gehia- go banatuko dela esan du Bu- jandak: "Gogorra izango da, baina, tira, bakoitzak bere zer- bitzuak eskainiko ditu eta be- zeroek erabaki behar du zer egin". Orotara, hamalau izango dira Debagoiengan egongo diren gasolindegia.

Debagoieneko gasolindegia

Herria	Helbidea	Marka
ARRASATE	Musakola auzoa	Eroski
	Gipuzkoa etorbidea, 38	Petronor
	San Andres auzoa, 10	Galp
	San Andres auzoa, 7	Avia
	AP-1 errepidea	Repsol
BERGARA	Urteaga kalea, 28	Avia
	Leizeaga kalea, 7	Eroski
	Amillaga kalea, 17	Repsol
ESKORIATZA	Aingeru pasealekua	Petronor
	AP-1 errepidea	Repsol
OÑATI	Santxolopetegi auzoa, 25	Repsol
	GI-2630, 17.km	Petronor

Intzidentzia-tasaren eboluzioa



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko asteen	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	143	162	9.614	%43,97	1.403
Bergara	72	44	5.974	%40,96	783
Oñati	67	32	5.019	%43,92	870
Aretxabaleta	27	14	2.794	%39,31	576
Eskoriatza	19	8	1.662	%40,23	653
Antzuola	9	3	916	%44,02	559
Aramaio	7	1	598	%41,07	535
Gatzaga	3	3	88	%41,71	2.654
Elgeta	1	1	347	%30,41	178
DEBAGOIENA	348	268	27.012	%42,20	962

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK ITURRIA: OSASUN SAILA

Ospitaleratzeen eta positiboen malda, geroz eta zorrotzagoa

Uztailako bigarren astean, 348 kasu berri zenbatu ditu Osakidetzak bailaran; aurrekoan baino 80 gehiago

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA
Ia 1.000 puntura iritsi da Deba-
goieneko intzidentzia-tasa; izan
ere, positiboek gora egiten ja-
rraitu dute. Herriak aztertuta,
Elgetan eta Gatzagan mantendu
egin dira balioak eta Arrasaten

behera egin dute zenbatutako
kasuek, baina, gainerako herri
guztietan, gora egin dute datuek.

Begiradak, ospitaleetara
Otsail hasieraz geroztik gaindi-
tu gabeko mugetara iritsi da

Euskal Autonomia Erkidegoko
erietxeen okupazioa: 707 lagun
daude ospitaleratu. Era berean,
ZIUetako ospitaleratzeek ere
gora egin dute, eta, azken da-
tuaren arabera, 32 dira zaintza
berezia behar dutenak.



SANPEDROKO BIDEA
TURISMO ETXEA
Sakanako hariztien
bihotzean gaude!



San Pedroko bidea 25, 31800 - Altsasu
sanpedrokobidea@gmail.com
+34 650 02 36 98

Elorregi "modu egokian" kudeatzea eskatu dute

200 autobus eta ehunka herritar igarotzen dira egunero Arrasate, Oñati eta Bergara batzen diuen Elorregiko geralekutik. Erabiltzaileak eta auzotarrak, baina, kexu dira; azaldu dutenez, ez dago "oinarrizko baliabiderik" eta "zikin" dago eremua

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Autobus batetik jaitsi eta hurrengo hartzeko edo bidegorrian ibilaldia egiteko, herritar mordoa igarotzen da egunero Elorregitik. Joan-etorri handia duen auzoa izanda ere, bertan ez dago zaborra botatzeko edukiontzirik ezta komunik ere. Egoera horren aurrean, bidaiariak eta auzotarrak "baliabideak" eta "kudeaketa egokia" eskatzen ari dira aspalditik.

Azken asteetan, inguruan dagoen zaborrak herritarren haserrea areagotu egin duela sumatu du Sanprubus-eko arduradun Jon Mujikak: "Duela bi hilabeteko zaborra ere bertan dago oraindik; ez du inork jasotzen eta ez dago edukiontzirik. Sanprubusa zabaltzen dugunean, guri ekartzen digute zaborra". Horri lotuta, Mujikak azaldu du ez dela "kontu berria", eta edukiontziak jartzeko eskaerak eginda daudela: "Debagoieneko Mankomunitateari edukiontzi handiak jartzeko eskaera egin

genion, zaborra bota eta birziklatu ahal izateko, baina ezer ez".

Elorregiren berezitasuna da hiru herriren artean dagoen auzoa dela: Bergara, Oñati eta Arrasate. Izaera berezi horrek erakundeekin harremanetan jartzea "oztopatzen" duela dio Mujikak: "Ardurak hartzerako orduan ez dago argi nori dago-kion Elorregi kudeatzea; inork ez du bere gain hartzen". Legearen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurapean dago geltokiaren bueltako gunea.

Komuna eta ura ere faltan

2017an eskaera egin zen Oñati, Bergara eta Arrasateko udaletan Elorregin komuna jartzeko. Oñati

tiko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari bideratu zion gaia, baina auzotarrek ez zuten erantzunik jaso. Bi urte geroago, 2019an, sinadura bilketa egin zuten: 1.600 sinadura jaso zituzten bi astean, eta Oñatiko eta Arrasateko udaletara bidali zituzten. Mujikak azaldu du ordutik ez dutela "erantzun formalik" jaso. "Egoera onartezina da, beste edozein lekutan oinarritzkoak diren gauzak eskatzen ditugu. Onartezina da adineko jendea negarrez ikustea txiza gainean egin duelako. Ongizatearen alde lanean ari direla diote erakunde guztiek; bada, topatu dezatela benetako ongizatea", salatu du Mujikak.

Konponbide bateratu bila

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Debagoieneko Mankomunitateak eta hiru udalek bilera bat egitea; hori da, Mujikaren ustez, konponbidea bilatzeko lehenengo urratsa. "Premia biziko kontua da", gehitu du.

LEGEAREN ARABERA, ALDUNDIARIAREN ARDURAPEAN DAGO GELTOKI INGURUAREN KUDEAKETA EGITEA



Murgialdaiko mahastiak, aste honetan. GOIENA

Debagoieneko txakolina izango da zapatuko azokako izarra

Hirugarren zapatuko azokak Debagoieneko Txakolin Eguna hartuko du hilabete honetan Seber Altube plazan

U. I. L. ARRASATE

Hilero bezala, hirugarren zapatuan bertako produktuen azoka egingo dute ekoizleek eta base-rritarrek Arrasateko Seber Altube plazan. Oraingoan, baina, protagonista berezia izango du merkatuak: txakolina. Oñatiko Belaskua eta Murgialdai eta Arrasateko Kataide txakolindegietako ardoak izango dira.

Nerea Lazpiur Arrasateko Udaleko Toki Garapeneko teknikariak azaldu duenez, uztaila "hilabete aproposa" da txakolina dastatzeko, eta baita Debagoieneko ekoizpena plazara eramateko ere: "Ekoizleak ezagutu eta haien lana dastatzeko aukera izango dugu".

Horrez gain, bost txakolin-sorta zozketatuko dituzte azokan erosten duten herritarren artean, eta erosketa-txartel bakoitzarekin pintxoak banatuko dituzte. "Bertako ekoizle baten gildak eta gazta-pintxoak banatuko ditugu, doan, 11:00 aldera", jakinarazi du teknikariak. Bestetik, Biteriko aparkalekuan bi orduz doan aparkatzeko aukera emango die Udalak azokara doazenei, erosketa-txartela erakutsita.

"Oreka handiko" txakolina

Murgialdai txakolindegiko Aritz Galdosek adierazi du "txakolin txukunak" egiten direla Debagoienean, eta txakolingintza ez dela "gauza berria". Aurten azokara eramango duten ardoaren gainean esan du "oreka eta gorputz handikoa" dela: "2021eko

uztako txakolina da, urtarril eta otsailean botilaratutakoa. Ziklo luzeko uzta izan zen iazkoa, eguzki gutxi egin zuelako. Nolanahi ere, txakolin gorpuzduna da, eta oreka handia du garraztasunari, alkohol mailari eta eta maila karbonikoari dagokienez".

Oñatin bertan ekoiztu duten lehenengo aldia izan da Murgialdaikoentzat; mahastiaz gain, bertan jarri dute upategia ere. 22.000 eta 24.000 botila artean atera dituzte iazko uztatik. Aurtengoari erreparatuta, oraindik zerbait esateko "goiz" dela azaldu du Galdosek: "Urte arraro samarra ari da izaten, bero-kolpe handiekin. Horrek uzta aurreratu du; ohi baino hiru aste aurretik hasi da mahatsa".

Ekoizle berriak azokan

Hirugarren zapatuetako azokan 15-18 ekoizle izaten dira Arrasaten, baina hilabete honetatik aurrera beste hiru ere egongo dira: hestebeteak egiten dituen Arabako Mendiolako ekoizle bat, teak eta infusioak ekarriko dituen Zeanuriko ekoizle bat eta ezti Ekolabelduna izango duen ekoizle oñatiar bat.

Gainerako postuak ezagunak dira dagoeneko erosleen artean: ortuko produktuak, gozogintza, ogia, eztiak, okela ekologikoa, gluten gabeko gozoak, sukalderrako egurrezko tresnak... Venezuelako eta Marokoko janaria egiten duten ekoizleak ere batu dira oraintsu. "Gure produktua sustatzea da helburu nagusia", azaldu du Lazpiurrek.



Protesta egiteko jarri zen komuna, zaborrez beteta. GOIENA



Urbian barrena mendizaleak. OIHANA ELORZA

Aurten San Inazio jaiak ospatuko dira Urbian

2018az geroztik ez da izan Urbian ohiko San Inazio festarik. Aurten, pandemiak arnasa eman ez ezik, Urbiara igotzeko bidea ere konponduta dago eta ibilgailuek bertara igotzeko aukera izango dute. Partzuergoa, gainera, egitaraua antolatzen dabil

Maidar Arregi OÑATI

Gipuzkoako eta Arabako partzuergoak GOIENARI jakinarazi dio aurten saninazioak ospatuko dituztela Urbiako zelaian. Izan ere, San Inazio festa antolatzearen ardura partzuergoarena izan da beti. Horretaz gain, fonda lehenbailehen zabaltzeko interesa ere badutela gaineratu dute. "Lanean dihardugu, ahalik eta azkarren Urbiako fonda berriro zabaltzea nahi dugulako. Gainera, aurten, San Inazio egunerako egitaraua prestatzen ere badihardugu, eta hilaren 21ean egingo dugu bilera, zer egin eta nola erabakitzeke", azaldu du Gipuzkoako eta Arabako partzuergoko teknikari Maria Eugenia Amenabarrek.

50 interesatu fonda kudeatzeko

Partzuergoak adierazi duenaren arabera, 50 lagunek erakutsi dute, hasiera batean, fonda kudeatzeko interesa. Dena den, errealitatea oso bestelakoa izan dela dio orain artean fonda ku-

deatu duen Aritz Altubek: "50 horietatik hamar batek soilik erakutsi dute benetako interesa. Gehienak Urbiara ere ez dira etorri eta telefono bidezko hartu-eman izan da. Batzuei bi gauza azaldu orduko, ikusi dute ez dela benetan uste zutena; eta egia da ez gaituztela mareatu eta ezezkoa garbi zutenek berehala esan digutela. Beste batzuk, hamar bat, etorri egin dira, benetan zer den bertatik bertara ikusteko".

Era berean, Altubek aitortu du orain dela sasoirik onena fondari jarraipena emateko eta berriro zabaltzeko. "Zerbitzua martxan jartzeko lehen interesatuak erabiltzaileak, partzuergoa eta gu gara. Urbiara etor-

tzeko inoizko biderik onena dago, gainera. 24 urtean ez dugu bidea horrela ezagutu, pentsa! Intere- sa dutenei esaten diegu orain dela momentua. Uztailean saninazioak, esaterako, aprobetxatzea komeni da fonda bizirik dagoela ikustarazteko. Esperantza badugu, egia esan".

Meza domekero

Uztaileko eta abuztuko domeketan Urbiako baselizan meza esango du Ramon Azkue kapilauak, 11:30ean hasita. Hainbat herritarrek eta Urbiako artzainek eskatuta erabaki dutela meza esatea azaldu du Joxe Mari Arregi frantziskotarrak: "San Inazio domekan da aurten, eta izango da meza; ez, aldiz, Santiago egunean, uztailek 25, astelehena, eta Andra Mari egunean, abuztuak 15, astelehena". Hala, Ramon Azkuek esango du meza. Azkuek 2015ean hartu zion Joseba Etxeberriari erreleboa. Etxeberria orain gutxi zendu da, 90 urterekin.

UZTAILEKO ETA ABUZTUKO DOMEKETAN MEZA ESANGO DU ROMAN AZKUE KAPILAUAK

EKINTZAIETZA GARAIA

Bailarako inbertitzaile-sarea eta ekintzaietza proiektuak, abian

PTGaraian Investors ekimenaren baitan, bailarako ekintzaileek proiektuak aurkeztuko dituzte hilaren 20an

Maidar Arregi ARRASATE

PTGaraian Investors ekimenaren baitan, Debagoieneko ekintzaileek proiektuak aurkeztuko dituzte uztailearen 20an, eguaztena, 10:00etatik eta 11:30era bitartean. Ikus-entzule gisa izango dituzte hainbat enpresa, inbertitzaile, ekintzaile eta herritar.

Helburuak

Investors ekimenaren helburuak asko dira; hala nola, inbertitzaileek eta ekintzaileek inbertsio-erronda nola egiten den ikastea; intereseakoak diren proiektuei zein ekintzaileei hasieratik jarraipena egin ahal izateko bailaran dauden ekintzaietza proiektuak zeintzuk diren ezagutaraztea; inbertsioa behar dutenek inguruan dauden enpresa edo pertsona pribatuengana heltzeko erakusle- hioa sortzea; ekintzaietza gain, inbertsio kultura, zero kilometrokoa, bultzatzea; eta ekintzaileek lehen urratsetan behar duten inbertsio bultzada lortzeko tresna sortzen joatea, alegia.

"Betidanik esan dugu ekintzaietza Debagoieneko ezaugarrietako bat dela eta aspaldi darabagu sustatzen eta bultzatzen, etorkizunera begira beharrezkoa izango denaren sinesmenez". Baina ekintzaietza aurrera eramateko dagoen oztupoetako bat inbertsio beharra dela aitortu dute. "Inbertsioa ekintzaileentzat gizakiarendako arnasa hartzearen parekoa litzateke. Oxigeno-

rik gabe ez dago bizitzarik eta inbertsiorik gabe ez da ekintzaietzarik garatzen".

Urtarrilean, D-EKIN izenpean, bailarako zortzi eragile elkartu ziren –PTGaraia, MGep, MU Enpresagintza, Mondragon Centro de Promocion, Isea, Saiolan, Galbaian eta Gaztenpresa–, ekintzaietza beharrei erantzun berriak emateko. Era berean, zehaztu dute, D-EKIN Estatuko Parke Teknologikoei eta ENISA (Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa) eragileak babestutako programaren baitan hasitako ekimena dela. "Programaren barruan lau proiektu inkubatu dira, eta beste lau *start-up-ek* urte bukaera arte azelerazio prozesu bat jarraituko dute. "Bitartean, zazpi pertsonari Business Angel formakuntza eman diegu, pixkanaka tokiko inbertitzaile-sare bat osatzen joateko". Orain, inbertitzaile-sarea eta Garaia Investors ekimena sendotzen joatea dute xede interesa dutenak batuz eta saretuz, kultura hazten laguntzeko. "Debagoienean lortutako etekinen zati bat bertan jaiotzen diren ekimen berrietan inbertitzea, eta, horrela, jasotako uztaren zati bat jatorrira bueltatzea eta gizarteak berreskuratzea nahi dugu. Hala, inbertitzeko, ezagutzeko zein ikaste-ko irrika dutenei gonbidapena egiten diegu PTGaraiarekin harremanetan jar daitezen".

Ekiola aurkeztuko zaie Leintz Bailarako komertzio txikiei

Maiatzean herritarrei aurkeztu zitzaizen Ekiola proiektua, eta orain, Leintz bailarako komertzio txikiei bideratutako hitzaldia egingo da Arrasaten, hilaren 20an, 13:30ean, Kulturategi areto nagusian –hitzaldia ele bitan egingo da–. Bertan, kooperatibaren xehetasun guztiak azalduko dituzte eta komertzio txikietako jabeek izan

ditzaketen zalantzak argitzeko aukera egongo da.

Energia berriagarria, iraunkorra eta bertan sortutakoa eskainiko du Leintz Bailarako Ekiola Kooperatibak. Aurkezpenean parte hartuko dute Arrasateko alkate Maria Ubarretxe-nak, Ekiolako zuzendari tekniko Hodei Arzakek eta Fagor Taldeko Iraunkortasun ardura-dun Aritz Otxandianok.

Horren harira, dagoeneko 400 familiak eman dute proiektuan parte hartzeko izena.



ZABALIK

IÑAKI ETXEBESTE

Zer behar da?

Zer behar da? izenburua du etxeko txikien ipuinetan kuttunetariko batek. Bertan ageri diren collage zoragarriei begira lokartzen gara maiz, edo, bestela, ederki kateatuta dauzkan esaldiekin jolasean gaudela. Zer behar da *mahai* bat egiteko? Hori da erantzun beharreko galdera.

Gianni Rodarik zuraz eraikitako beste edozein altzari hautatu zezakeen, baina ez, *mahaia* hautatu zuen. Maite ditugunekin otordu goxoak egiteko *mahaia*, edo, beharbada, maite ez ditugunekin elkarrizketarako *mahaia*. Tailerreko *mahaia* edo zure bulegoko *mahaia*, sormena edo beharra gauzatzeko erabiltzen duzun ohol zati hori. Zenbat kontu mahai baten bueltan!

Gertuko ospakizunek eta berriro elkartzeak sortzen duten poza tragedia eta estutasun ekonomikoen apokalipsi aldarriarekin nahasten ari zaizkigu azken hilabeteetan. Pentsatzen jarri, eta hauetako asko ere *mahai* baten bueltan erabakitzen edo garatzen direla konturatuko zara.

ZAHARTU AHALA GALTZEN DUGUN ETXEKO TXIKIEN LOGIKA SINPLEAK TXUNDITZEN NAU

askok *mahaia* dugu egunerokotasunean pertsona bezala garatzeko erabiltzen dugun jokaleku edo habitata. Pentsa esna gaudela zenbat denbora gauden mahai bueltan.

Baina Rodarik gogoeta hau guztiau gainditu, eta mahaia eraikitzeke zer behar dugun galdetzen digu, bai eta bikainki erantzun ere.

Mahai bat egiteko, nahikoa da lore bat.

Lore batean sortutako hazi batetik ernatuko baita ondoren mahaia eraikitzeke zura emango duen zuhaitza. Bestela esanda, ekintza edo gauza txiki eta xume eta eder batek gure egunerokotasunean hainbesteko garrantzia duen ingurunea sortzen du. Zahartu ahala galtzen dugun etxeko txikien logika sinple horrek txunditu egiten nau. Ez dakit egoera pre- edo post-apokaliptikoan gauden, baina sasoiari gaudela baliatuz, lore bila noa haurrekin, ea zer-nolako mahaiak sortzen dituzten!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Amatxu Atomikoa

ANDER IZAGIRRE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Gure kostaldeko ermita eta santutegi guztien artean, Lemoizko zentral nuklear fosilizatua da deigarriena. Tenplu atomiko honek ez dizkie fededunei ateak irekitzen, ez dago giltza emango digun inor herrian, baina mirarizko agerraldiak eskaintzen dizkigu oraindik. Mendebaldetik begiratzen badiogu, porlanezko bi kupula erraldoien artean San Juan Gaztelugatxekoa agertuko zaigu, X. eta XX. mendeko arkitektura erlijiosoak begirada batean, efektu liluragarri.

Gaztelugatxe apeta hutsez eraiki zutela dirudi: ermita dotorea irla malkar baten tontorrean, itsaslabarren ertzean, pelikulak filmatzeko eta turistek selfieak egiteko dekoratu hobeezinean. Xabier Armendariz itsasgizonak, aldiz, ermita honen premia gordina azaldu zidan. Kostako ermitak ia beti muino garaietan eraiki eta zuriz margotzen zituzten, erreferentzia izan zitezten. Ekaitzaren erdian, lanbroak itsututa eta olatuen mehatxupean, halako batean marinelek ermita ikusten zuten eta berehala zekiten gertueneko portua non zeukaten. [...]

Duela hogeitazortzi urte, artean GPSak zehaztasun eskasa zeukanean, Armendariz itsasoan barneratzen zen Lemoizko bi kupulak mendi baten puntarekin lerrokatuta ikusi arte: itsasoko puntu zehatz horretan hondoa oso sakona da, baina urpeko mendi bat omen dago, otarrainen oasia, urpekarien paradisua. Elkanok testamentuan urrezko hainbat dukat utzi zizkien kostaldeko elizei, santu eta ama birjinen babesa eskertzeko; gu askoz ere arrazionalagoak gara eta urtero 384.000 euro ematen ditugu Atomo Santuaren porlanezko tenplua mantendu eta otarrainak harrapatzeko bidea erakuts diezagun.

goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Bidaiatzeko modua aldatu egin da normaltasun berrian"

ESTHER GUILLAUMES HALCON BIDAIA-AGENTZIAKO LANGILEA

Uxue Igarza Loiola ARRASATE
Positiboak gora egiten hasi diren arren, oso bestelakoa da egoera iazko udarekin alderatuta. Bidaiariak oporrak hartzeko "gogotsu" daudela adierazi dute Arrasateko Halcon Bidaia agentziako langileek, eta, oraingoz, behintzat, ez daudela gaitzarengatik "kezkatura".
Nora doaz bidaiariak aurtentzen?
Guk hemen ikusi duguna da jende askok urruti samar joatea aukeratu duela; azken bi urteen ostean, bidaiak luzeen alde egin du jendeak: Egipto, Turkia, Ameriketako Estatu Batuak eta Madeira dira aurtengo opor-leku nagusiak. Iaz, berriz, jendeak gertu geratzeko erabaki zuen: penintsula barruko txokoak eta Kanariar uharteak izan ziren nagusi.
Igartzen duzue bidaiak hartzeko orduan Internet baliatzen dutela herritarrek?
Internetek beti irabazten digu distantzia laburretan. Halere,



Guillaumes, Arrasateko bulegoan. U.I.L.

oraindik jende mordoia etortzen da bidaiak agentzietara; konfiantza ematen diegula diote. Adibidez, kostaldera joateko, jendeak online egiten ditu erreserba guztiak, baina

Europara edo gainerako kontinenteetara bidaiatzeko, agentziak dituzte nahiago. Orain, gainera, hegazkinekin dauden arazoak direla-eta, jendeak nahiago du kudeaketa guk egiten badugu. Azken

finean, profesionalak gara eta baliabideak ditugu.
Zer gertatzen da hegaldiekin?
Mundu guztiak bidaiatu nahi duenez, hegaldi mordoia dago eta aireportuek ezin dituzte kudeatu. Ez dute tokirik horrenbeste hegazkin hartzeko. Horregatik ari dira esaten konpainiei hegaldiak bertan behera uzteko –nahiz eta hegazkinak beteta egon–. Askok dira azken orduan bertan behera geratzen ari diren hegaldiak; batez ere, Europako hiriburuetan, eskala egiteko erabiltzen diren aireportuetan.
Pandemia eragiten ari da aurtengo udan, nolabait?
Egoera ez da inondik inora ere iazkoa; sumatzen da normaltasunera ari gairela itzultzen. Jendea gogotsu dago oporretan joateko.
Kasuek, baina, gora egin dute azken asteetan... Bidaiaren bat bertan behera utzi da?
Momentuz, ez; ez digu inork deitu bidaiak ezeztatzen. Lasai ikusten ditugu bezeroak. Aseguruak ere baditugu...
Halere, ziurtagiriak eta bestelakoak behar dira oraindik zenbaitetan.
Bai, eta horren gainean galdetzen dute bezeroek. Jakin nahi dute ea atzerrian kutsatzen badira zer egin behar duten, edo zein agiri

behar dituzten bidaiatzeko. Halere, ez da oztopo.
Zein da egoera, oro har?
Herrialde bakoitzak bere arauak ditu. Egiptora joateko, adibidez, ez da ezer behar. Maltaan, ostera, txertatuta egon arren, nahitaez PCR negatibo bat behar da sartzeko. Eta, bitxikeria gisa, kruzeroetan ere, nahitaezkoa da 24 ordu aurretik egindako antigeno negatiboa aurkeztea bidaiatu ahal izateko.
Agian, prezioen gorakada da aurtengo kezka iturri nagusia?
Oso garesti dago dena. Batzuk harrituta geratzen dira prezioak ikusten dituztenean, baina berandu ibiltzeak hori dauka. Aurtentzen, bereziki, erreserba azken ordurako utzi duenak jai dauka. Jendea azaroan hasi zen mugitzen.
Zenbat gastatuko du jendeak, batez beste?
Zaila da esatea, baina 1.500 euro inguru pertsonako.
Nola dago zuen sektorea?
Pandemiak oso gogor kolpatu gintuen; gainera, itxialdian gaizki pasatu genuen: bidaiak ezeztatzen eta bezeroei dirua itzultzeko lanean jardun genuen; ez zen batere erraza izan. Egia da aurtengoa uda ona izaten ari dela, baina denbora luzea beharko dugu aurreko bi urteetan galdutakoa errekupeatzeko.

ITURRI ONETIK

Elkartasun biltegia Emausek hustuko du

Abuztuaren amaieran itxiko dute 20 urte baino gehiagotan zerbitzua eman duen Oñatiko Elkartasun Biltzea. Ez da inor agertu horren ardura hartzeko. Uztailaren hainbat kolektibori eskaintzen ari zaie aukera horko materiala euren jatorrizko lurraldeetara bidaltzeko, eta beharra dutenak ere ari dira negurako, adibidez, arropak hartzen. Abuztuaren larrialdi egoerak bakarrik hartuko dituzte. Irailean, Emaus elkartekoak etorriko dira geldituko dena eramateko, eta itxita geldituko da biltzea.

ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2007-07-14

XIX. mendeko euskal ezkontza Antzuolan

Antzuola jaietan murgilduta denez, 2007koetara atzera eginez, honako hau: antzinako –1882. urteko– euskal ezkontza bat irudikatu zuten, herritarrek ondo antolatu eta burututako antzezpenarekin. Herriko Etxean batu; udaleko notarioak ezkontza-agiria sinatu; biharamunek gorteatzea, elizkizuna, jan-edanak, dantzak... Orduko erara, eta orduko jantziekin. Anelkarrek antolatu zuen, eta dirua batu zuten Brasil, Senegal eta Kongorako.

HAU BE BADOGU!

San Fermin jaietako eraso sexistak hizpide

Iruñeko jai nagusietan izan diren eraso sexistak salatu dituzte sare sozialetan:
@fm983irratia: "Herritarrek bat egin dute uztailaren 9ko eraso sexista salatzen Iruñerriko mugimendu feministaren deialdiarekin".
@uvefe: "Ettxerako bidean ez dut ausarta izan nahi, aske baizik. Gora borroka feminista!! #Erasosexistarik ez #askida".
@zoillarra: "Plazak beteko ditugu berriz ere! #Erasosexistarik ez".
@laura_aznal: "Ez dugu gehiago onartuko! Sanferminetan eraso gehiagorik ez!"

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE

2030era begira Debagoienak dituen aukera energetikoen azterketa burutuko du Tecnaliak, Debagoiena 2030en Eraginez Piztu esku-hartze estrategiaren baitan.

Debagoienean etorkizunean izango den egoera energetikoaren prospektiba egitea da helburua.

Debagoieneko aukera energetikoak izena du D2030ek bultzatuta garatuko duzuen proiektuak. Zer da?

Garbi dago trantsizio energetikoaren beharra dugula. Eta ez bakarrik gaur egun energiaren prezioen gorakadagatik. Klima aldaketa jasaten ari gara eta neurriak hartu behar ditugu lehenbailehen. Garatuko den proiektu honen bitartez, neurri horiek hartzeko zein aukera dauden aztertuko dugu. Alegia, berriztagarrien ahalmena zein den eremu urbanoari dagokionez. Azterketa eskualde mailan eta herriz herri egingo da eta eskualdeko bederatzi herriek hartuko dute parte.

Zein puntutan dago Debagoiena energia berriztagarrien sorkuntzari lotuta?

Oraindik azterketa sakonagoa egin beharko dugu behar bezala erantzuteko. Ez da erraza behar den informazioa lortzea, eta denbora bat eramango digu guztia biltzeak. Hala ere, berriztagarrien inguruan alderdi ezberdinak bereizi beharko genituzke. Guk egin beharreko lanean, batez ere, eremu urbanoa aztertuko dugu eta honi lotuta erabili daitezkeen berriztagarriak. Kasu honetan garrantzi handia hartzen dute autokontsumoak eta beroarekin lotutako soluzioak. Arlo hauetan aukera handiak daudela iruditzen zait.

Azterketa egin aurretik, zer-nolako baliabideak dituela esango zenuke?

Eraginkortasunean eta kontsumo murrizketan beti dago lan egiteko modua. Murrizketan eta berriztagarrietan jarriko dugu begia eta bi arlo horietan eskualdeak bide polita izan dezakeela iruditzen zaigu.

"Eremu urbanoan energia berriztagarrien ahalmena zein den aztertuko dugu"

EDUARDO MIERA TECNALIAKO PROIEKTUEN KUDEATZAILEA

Tecnalia ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko zentroa da, erreferentziazkoa European eta Basque Research and Technology Alliance-ko kide



Eduardo Miera, Tecnaliako proiektuen kudeatzailea. E.M.

Zelan egingo da azterketa? Zer-nolako aukerak aztertuko dituzue?

Tecnaliak eskualdeko eraikinen modelo bat eratuko du, etxebizitzetan eta zerbitzuetan energia beharrak

etekin hoberena herri bakoitzean eta eskualde mailan. Azterketa horrekin, etxebizitzetan eta zerbitzuetan zer-nolako aukerak dauden proposatuko dugu.

Beste lurralde batzuetako adibideak hartuko dituzue eredu? Zeintzuk?

Horrelako lanak beste herri batzuetan ere egin ditugu. Baina interesgarria da aipatzea horrelako proiektuen testuinguruak Europa mailatik, Estatu mailatik, Eusko Jaurlaritzatik eta Foru Aldunditik datozen irizpideak, helburuak eta aukerak ipintzen dizkigutela. Proiektu hauek ez dira proiektu isolatuak, eta ereduak eduki arren, kasu bakoitzean bere errealitatera egokitu behar dute. Gipuzkoan egin izan ditugu proiektuak berriztagarrien ahalmena aztertzeko, eta ezagutza hori ondo etorriko zaigu. Antzeko proiektuak ere landu ditugu Irunen eta Durangon.

Zertan lagunduko du azterketa honek Debagoieneko trantsizio energetikora bidean?

Dagoeneko eskualdea gauza asko ari da egiten. Horretan, Debagoiena 2030aren rolak garrantzia handia du. Azken urteotan hausnarketa prozesu bat bultzatu da eta jada hainbat proiektu martxan ipini dituzte. Horietako bat da gurea. Berriztagarrien ahalmena lurreratzeko gai bagara, proposatutako aukera energetikoek martxan dauden

beste proiektuak lagunduko dituzte. Adibidez, komunitate energetiko berriak, autokontsumoa bultzatuz edo sare termikoak non landu daitezkeen proposatuz.

Zein garrantzi du lanketa publiko-pribatuak energiaren alorrean aurrerapausoak eman gura baditugu?

Ezinbestekoa. Herri mailako isurketak aztertzen baditugu, ehuneko oso portzentaje txikia da publikoa. Gehiena pribatua da, batez ere, mugikortasunarekin, etxebizitzekin, zerbitzuak eta industriarekin erlazionatutako jarduerekin. Beraz, arlo publikotik lagundu egin behar da, baina aldaketa handienak arlo pribatuan gertatu behar du.


Nola? Merkatuaren aldaketak bultzatuz eta behar diren baliabideak eskura ipiniz. Horretan, lanketa publiko-pribatuak zeresan handia du.

Zein ekarpen egin gura dio Tecnaliak trantsizioari?


2050ean klima-neutraltasuna lortzeak energia erabat karbonogabetzea beharko du, eta, beraz, berriztagarriek baliatzen duten sistema berria eratu beharko dugu. Erronka ez da makala eta Tecnaliak bide horretan lagungarri izan nahi du arlo ezberdinetan. Adibidez, energia berriztagarriak masiboki sartzen, eraikinen, hirien eta industriaren jasagarritasuna areagotzen, garraioaren elektrifikazioa edo energia-eroale berdeak bultzatuz, eta energiaren kudeaketa hobetzen.

"AZTERKETA ESKUALDE MAILAN EGINGO DA, HERRI GUZTIEK HARTUKO DUTE PARTE"

"ARLO PUBLIKOTIK LAGUNDU BEHAR DA, BAINA ALDAKETAK, BEREZIKI, PRIBATUAN GERTATU BEHAR DU"



18. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*



Sardinia | Argazkia: Aritz Murgia Mendizabal



Laredo | Argazkia: Susana Gartzia



Alaia, Abartzuzan freskatzen | Argazkia: Iñigo Zubia



Gastiain | Argazkia: Ibernalo Iparragirre Ortega



Argazki guztiak kanal berezi honetan: <https://labur.eus/udakoargazkiak-2022>

MARTXAN DA!

Goienaren Udako Argazkien
Lehiaketa abian da! Nondik nora
ibiliko zara aurten? Hurbil geldituko
zara ala urrutira joango zara?

Argazkiak posta elektronikoz
(argazkiak@goiena.eus) edo
Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07)
bidal ditzakezu; uztailaren 15etik irailaren
19ra arte –biak barne–.

Sariak

Zu ikusi nahi zaitugu; nondik nora ibili zara?

Bidali zure argazkiak Goienara eta sari hauetako bat
irabazteko aukera izango duzu:

- 1. saria:** Arrasateko eta Bergarako Halcon Bidaiei
esker, Kantabrian gau bat eta gosaria bi lagunendako.
- 2. saria:** Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker,
Samsung Galaxy A12, 32GB eskuko telefonoa.
- 3. saria:** Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarentzako
afaria edo bazkaria.

Gainera, **publikoaren saria** ere izango dugu,
Bergarako Ereindajan-en eskutik: bertako eta
kalitatezko produktuen saski ederra.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: -Egilearen izen-abizenak.
-Harremanetarako telefonoa. -Debagoieneko zein herritakoa den edo zeinetan
bizi den egilea -Argazkia non ateratakoa den.
- Argazkiak eta datu GUZTIAK posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo
Whatsapp/Telegram (688 69 00 07) bidez bidali daitezke.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 15etik irailaren 19ra arte (biak barne).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoienean jaio edo bizi den orok parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok (sare sozialak salbu).
- Argazkiak koloretan zein zuri-beltzean izan daitezke.
- Argazkiek originalak izan beharko dute.
- Uda argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea
edo beste uda batekoak.
- Hiru sari nagusiak Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatutako epaimahaiak
aukeratuko ditu. Argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.
- Irailaren 23tik 28ra Publikoaren Saria aukeratzeko epea zabalduko da. Lehiaketan parte
hartu duten argazki guztien artean aukeratu da Publikoaren Saria, bozketa bidez.
- Irabazleak nortzuk diren irailaren 30ean emango da aditzera, GOIENA aldizkarian eta
Goiena.eus-en.
- Saria jasotzeko, irabazleei eskatuko zaie lehiaketaren babesleekin argazki bat ateratzeko.
- Argazkiak Goienaren hainbat euskarritan argitara daitezke: Goiena.eus atarian,
GOIENA aldizkarian, Puntua aldizkarian, telebistan eta sare sozialetan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du,
egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienaren artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero,
egilearen izena adieraziko da.

Oinarriak eta lege oharra osorik: <https://labur.eus/oinarriak-2022>

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jatetxea

BERGARA
EREIN
DA
JAN

Halcon BIDAIAK
ARRASATE BERGARA



Musakolako hainbat bizilagun eta batzordeko kide, Osiñalde baserriko Marga Fernandez eta EH Bilduko ordezkariak. E.A.



Bizilagunetako bat, eskuarekin bidea estuegia dela adierazten. E.A.

"Estuegia eta arriskutsua" da

Salatu dutenez, egungo bidea "estuegia eta arriskutsua" da. "Bide publiko izaera berreskuratu behar du, ezin da utzi orain dagoen moduan. Gainera, zubiko espaloian 30 km/h seinalea oso baxu dago eta sute-aho gorriak oinezkoendako bidea oztopatzen du".

Bide seguru eta egokitua gura dute oinezkoentzat

Musakolako bizilagun talde batek, Osiña-Asuela bide publikoaren erabiltzaile batzuek eta Osiñalde baserrikoek Udalari eskatu diote Osiñako biribilgune ondoan "bide seguru eta egokitua" egiteko; EH Bilduk eta Podemos Arrasatek bat egin dute eskaerarekin

Eneko Azurmendi ARRASATE

Biribilgunea egiteko obrekin batera, Aldundiak bazterbidea oinezkoendako egokitu zuen zubi azpian. Edozelan ere, bizilagunek eta erabiltzaileek diote ez dela batere seguru. Gainera, nabarmendu dute zebra-biderik ez dagoela eta autoek dutela lehentasuna une oro. Hori dela eta, errepidetik bereizita joango

litzatekeen pasabide bat eskatzen dute, zubiaren ondoan 2,5x2,5 metroko tunel bat eginda. "Seguruagoa eta irisgarriagoa izango litzateke hala". Era berean, bi aldeetan zebra-bide eta semaforo bana jartzeak ere asko lagunduko lukeela uste dute.

Izan ere, bide publikoa dela azpimarratu du Luis Akixu auzotarrak, eta bide publiko bat

ezin dela egoera horietan egon: "Saihesbidea egin zutenean, bide publikoa zena guztiz baztertu zuten eta, orduz geroztik, abandonatuta dago".

Nabarmendu dutenez, Bakue-ara, Bedoñara, Krutzetxikira edota Musakolako balkoira doazen mendizale asko ibiltzen da hor eta, era berean, Osiñalde baserrira joateko dagoen bide

bakarra da. Marga Fernandez bizi da han, eta egunero oinez egiten ditu joan-etorriak. Dioenez, ez da gauza berria, azken urte luzeetan izaten ari diren arazo bat baizik: "Autoak ia ikusi ere ez ditut egiten gurutzatzen ari naizenean. Ez dago segurtasunik eta ezin naiz oso kargatuta joan, badaezpada, arriskutsu dagoelako. Kontu handiarekin ibili behar izaten dut eta, gainera, gidari batzuek bozina jotzen didate, haserre", adierazi du, eta zera gaineratu: "Udaletik erantzun digute hori Aldundiaren eskumena dela, baina Udaletik indar gehiago egin daitekeela uste dut, Aldundiari nolabaiteko presioa egin".

Auzotarren eskaerarekin bat

Arrasateko EH Bilduk, biribilgunearen obrak baliatuz, pasa-

bide segurua egiteko eskatu zion Aldundiari, eta orain, babestu egin du auzotarren eskaera, oinezkoen lehentasuna bermatzearen alde eginez. "Aukerarik egokiena zein den aztertzea derrigorrezkoa dela uste dugu, eta ostean, berau gauzatzea". Podemos Arrasatek ere eskaera logikoa dela uste du: "Bizilagunek oinez pasatzeko irtenbide bat behar dute".

Aldundia: "Ez dugu ezer jaso"

Udal Gobernuak dio Aldundiaren eskumena dela eta Aldundiko Mugikortasun Sailetik azaldu dute ez dutela eskaera horren berririk eta iristen zaie-nean aztertuko dutela. Hori bai, zubi azpian piboteak jarritz oinezkoen eta ibilgailuen arteko ibilbideak banatzea ezinezkotzat jo zuten, "espazio faltagatik".

Parke berriaren diseinua herritarrek aukeratuko dute

Zerrajera kalean, Juan Arzamendi Musika Etxearen alboan dagoen parkea berri-tingo du Udalak udazkenean, eta herritarrek aukeratuko dute diseinua. Asmoa da irail hasieran diseinuak aurkeztea eta hil horren amaieran irekitzea bozketarekin. Parkeak 505 metro karratu ditu eta hura berritzeko aurrekontua 60.000 euro da.



Berrituko duten parkea. E.A.

Udalak ia 3.500 euro bideratu ditu hainbat udalekutara aurtan

Irabazi asmorik gabeko tokiko elkarteek antolatutako udalekutan Arrasateko haurren parte-hartzea sustatzeko deialdian 26 eskaera jaso ditu Udalak, eta Dokek, Txatxilipurdik, Mondrak eta Mondratek antolatutakoek jasoko dute laguntza: 3.423,70 euro, guztira.

Kopuru hori dirulaguntza kuotaren %90 dela azaldu du Udak

Gobernuak, eta gehienez 200 euro eman dituela haur bakoitzeko. "Gainerako %10a familiak ordaintzen du. Udalak zuzenean ordaindu dizkie udalekuak antolatzen dituzten tokiko elkartei emandako dirulaguntzak".

Laguntza jasotzeko, familien urteko diru-sarreraren gordinetik ezin zituzten zenbateko hauek gaititu: bi pertsonako bizikidetza-unitateek, 20.000 euro; hiru pertsonakoek, 26.000 euro; eta lau pertsona edo gehiagokoek, 30.000 euro.

OHARRAK

Haurren danborrada

Arropak astelehenetik egubakoitzera bitartean entregatu beharko dira SUDCen bulegoan, Kulturolan, 17:00etatik 18:30era bitartean.

Txakolin Eguna bihar

Bertako produktuen azokarekin batera, Debagoieneko Txakolin Eguna egingo dute bihar Seber Altube plazan (Ikus 4. orria).



Zuztarrak Errotuz elkarteak hainbat ordezkari, atzean Alfonso VIII kalearen plaka dutela. MIREIA BIKUÑA

Kale-izendegitik kendu gura dute Alfonso VIII.a

Zuztarrak Errotuz elkarteak mozio bat aurkeztuko du uztailaren 19ko osoko bilkuran, udalbatzari eskatzeko, besteak beste, Alfontso VIII kalea Arrasateko kale-izendegitik kentzea; era berean, Portaloian plaka bat jartzeko eskaera ere egingo du elkarteak

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Aspalditik" lantzen ari diren eta "oroimen historikoarekin lotura duen" eskaera bat aurkezteko prentsa agerraldia egin du asteon Zuztarrak Errotuz elkarteak. Izan ere, Alfontso VIII kalearen izena Arrasateko kale-izendegitik kentzea gura dute, eta datorren martitzeneko osoko bilkuran mozio bat aurkeztuko dute horretarako.

Horrekin batera, udalbatzari eskatuko diote Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jar dadila, beirategi batean Alfontso VIII.aren loturik dauden egintza historikoak eta historia kronologiak aztertzeke. "Izan ere, 1200. urtean Gipuzkoako foruak ez zeuden, Gipuzkoa, berez, ez zen existitzen, eta ez dago egiaztatuta Alfontso VIII.a urte hartan Arrasaten izan zela foru horiek zin egiteko", azpimarratu dute.

Adierazi dutenez, herriko kultur eragile askori eman diete horren berri eta Udaleko kultu-

ra batzordeko partaideekin ere partekatu dute proposamena, haien taldean landutako idatziak helarazteaz gain.

Portaloian plaka bat

Mozioak jasotzen duen beste eskaeretako bat da Portaloiko horman plaka bat jartzea, "zeinek jasoko duen Arrasate konkistatua izan aurretik Nafarroako Arzorocia (Aitzorrotzia) tenentzia zegoela", azaldu dutenez. "Plakak, gainaldean, Nafarroako bandera edukiko du eta testua honako hau izango da: *Gaztelaren konkistaren aurretik, Arrasate, Arzorocia (Aitzorrotzia) izeneko tenentzia kokatua, egitura bateratu batean antolatuta zegoen: Nafarroako Erresuma*".

KALE-IZENDEGIA LANTZERA KOAN OROIMEN HISTORIKOA AINTZAT HARTU BEHAR DELA DIOTE

Nafarroako bandera udaletxean

Gogorarazi dute, halaber, 2022ko uztailaren 19an 500 urte beteko direla Gaztelako armadak Amaiur gaztelua konkistatu zuenetik, "non modu heroiko eta duinean, Nafarroako Erresumaren independentzia defendatzen, hainbat nafar izan ziren". Hala, horien omenez, martitzen Nafarroako bandera udaletxeko balkoian jartzea ere eskatuko du elkarteak.

Izen alternatiborik ez

Udal Gobernua kale-izendegia "berdintasun ikuspegitik" lantzekotan dabilela eta, ez dute proposatu kale horrentzako izen alternatiborik. "Hala ere, testuinguru honetan, adierazi gura dugu kale-izendegia berdintasun ikuspegitik aztertzeaz gain, oro har, oroimen historikoaren ikuspegitik ere aztertu beharko litzatekeela, eta gure proposamena urrats xume bat da lanketa horiek abian jartzeko", azpimarratu dute.

Musakolako erretiratuek San Isidron jarraituko dute

Udalak eta San Juan Bataiatzailea parrokiak akordioa lortu dute; 2031ra arte luzatuko da

E.A. ARRASATE

Arrasateko Udalak eta San Juan Bataiatzailea parrokiak akordioa lortu dute. Modu horretan, gutxienez 2031ra arte, Musakolako Erretiratuen Etxeak San Isidron jarraituko du. Erabileraren truke, Udalak errenta bat ordainduko dio parrokiari, hilean 1.081 eurokoa. Gainera, parrokiak konpondu egingo du San Isidro ermitaren teilatua.

Duela hamazazpi urte, 2005eko martxoaren 16an, Donostiako Apezpikuak eta Arrasateko Udalak hitzarmena sinatu zuten eta, ordutik, Musakolako Jubilatuen Etxeak San Isidro Ermitan izan du bere lekua. Orain, esan moduan, Udalak eta San Juan Bataiatzailea parrokiak beste akordio bat lortu dute.

Maria Ubarretxena alkateak eta Victoriano Etxabe parrokoak sinatu dute kontratua, eta lorturiko adostasuna "oso positibotzat" jo dute biek ala biek. "Herriar askok eta askok erabiltzen duten zerbitzuari jarraitzea bermatu diogu elizbarrutiarekin lortutako akordioaren bitartez. Hilabeteetako elkarlanak bere fruituak eman ditu herriarentzako hain onuragarria den zerbitzuari egonkortasuna emanaz", nabarmendu dute.



NIRE USTEZ

IBON ARRUPÉ


Gasolina bi eurotan...

Eta ez dirudi epe laburrera prezioa jaitsiko denik. Prezio horretan, autoa arrankatu orduko birritan pentsatu beharra dago prest gauden dirutza hori ordaintzeko edo mugitzea ahalbidetzen duen beste aukerarik badaukagun. Hala, arrasatearroi autoa gutxiago erabili behar izateko iraultzan bete-betean murgilduta harrapatu gaitu gasolinaren prezio igoera honek. Iraultza horren erakusgarri nabarmenenak dira Makatzenako bi igogailu publikoak, Erguineko laurak, eraikitzen dauden Santa Teresako hirurak, *Ekobulebar*-ak ekarri duen bidegorri sarearen zabalkundea eta berau amarauntzea lortuko duen San Andres auzoko atal berria, trafikoa murriztu duen TAOren ezartzea edota freskura bila inora joan beharra ekiditen duten ur-txorroten bi parkeak. Aldaketa horiek guztiek, iraultza guztiek bezala, tentsioak eta kontrako jarrera sutsuak eragin dituzte, autoen nagusitasuna alboratu delako, baina gaur egungo egoerak erakusten digu arrasatearrok bide zuzena hartu genuela eta, kementsu, bide beretik jarraitu beharra daukagula, guztion artean bizitzeko herri hobia eraikitzeko.





Txatxilipurdiren udaleku irekiak, Sebe Altube plazan, astelehenean. E.A.



Hainbat nerabe, musika jotzen, Ozetako udaleku itxietan. TXATXILIPURDI

Ozetan 45 bat nerabe elkartu dira

Udaleku itxietan, iaz, pandemiak baldintzatuta, formula aldatu zuten eta Ozeta herrian zentralizatu zituzten nerabe guztiak, han bertan taldeka banatuta, adinaren arabera. Uztailaren 2tik 9ra egon ziren han, 45 nerabe inguru, eta hainbat ekintza eta irteera egin zituzten.

300 haur inguru ari dira udaleku irekiez gozatzen

Ezbaian pasatako bi udaren ostean, pandemia aurreko kopuruetara iritsi da aurten Txatxilipurdiren udaleku irekietako parte-hartzea, eta hiru gunetan banatuta dihardute adin askotariko haurrek udalekuez gozatzen; uztailaren 22an bukatuko dituzte

Eneko Azurmendi ARRASATE

Uztailaren 4an hasi zituzten udalekuak, eta, hiru astekoak izanik, 22an bukatuko dituzte, gaur zortzi. Hiru gunetan banatuta dabilta adin askotariko haurrak: San Andresen, erdigunean eta Musakolan. Gune horiek ardatz hartuta, askotariko ekintzak egiten dituzte hamaika txokotan, eta irteerak ere egiten

dituzte, Landara eta Osintxura, gaua pasatzera.

Oinarritzko programazio bat antolatzen duten arren, Txatxilipurdiko kideek garrantzi handia ematen diote haurtzaroaren kulturari eta parte-hartzeari, Iñaki Telleria elkarteko kideak adierazi duenez. "Haurra subjektu aktibo bezala ulertzen dugu eta haren gaitasun eta ahalme-

netan sinisten dugu. Horrek dakarrena da hari hitza ematea eta haren nahi, gogo eta beharretatik antolatzea ekintzak". Bide horretan, haurrak ahal-dundu gura dituzte, eta haien beharretara egokitu. "Askotan, helduok hartzen ditugu erabakiak haurrengatik, haiei galdetu barik, eta hori apurto gura dugu", nabarmendu du Telleriak.

Udaleku itxiei dagokienez, formula erabat aldatu zuten iaz, pandemiaren eraginez. Izan ere, lehen, adin tarte bakoitzeko nerabeak hainbat lekutan egoten ziren eta nagusienekin udaleku ibiltaria ere egiten zuten. Orain, ordea, Arabako Ozeta herrira joaten dira guztiak. "Ondo" ari da funtzionatzen formula hori eta datorren urtean ere hala egiteko asmoa erakutsi dute. "Oso interesgarria da Ozetan bertan hiru taldeak mantentzea, herrixkatan banatuta, baina ibiltaria ez dugu egin aurten eta datorren urtera begira berreskuratu gura dugu hori ere".

Igerilekuan eta Monterronen

Freskura ekimenarekin ere ari dira uztailan, igerilekuan euskararen erabilera sustatuz. Mahai-jolasak edota irakurgaiak mailegatzeko dituzte eta edonork

parte hartu dezake: haurrek, nerabeek zein helduek. Horrez gain, Monterronen ere tailerrak egiten dituzte, martitzenetan, ekimena igerilekutik ateraz. Bi tailer geratzen dira: naturan jolasean eta zirku tailerra.

Askotariko balioak ardatz

Gozamena oinarri hartuta, balio batzuk transmititzen saiatzen da Txatxilipurdi: euskaltzaleasuna; berdintasuna eta feminismoa; parte-hartzea; heziketa berdea eta inklusioa, aniztasun sexuala, funtzionala edota kulturala aintzat hartuz.

Santa Marinako jaiak ospatuko dituzte gaurtik etzira arte

Subversion X-en kontzertua izango da plater nagusia; bestalde, Sambamañak bat egingo du Euskaraldiarekin

E.A. ARRASATE

Gaur, bihar eta etzi ospatuko dituzte Santa Marinako jaiak, eta zapatu gaueko musika jaialdia izango da plater nagusia, Iluminatizz eta Subversion X taldeen emanaldiarekin. 21:30ean

izango da hori, Makatzenako frontoian. Edozelan ere, musikaz gain, eskaintza zabala izango da eta Sambamañak eta Euskaraldiak bat egingo dute, lorpenen kalejira auzora eramanez. Batukadak girotuta egingo dute

hori, bihar, 13:00etatik 15:00etara, eta domekan ere emango diete aukera herritarrei haien bizipenak panelean jartzeko.

Nabarmenezko beste ekintzetako bat Egipte elkartean egingo duten ate irekien jardunaldia da, artisau garagardoaren eta pintxoaren dastatzearekin –zapatuan 10:00etatik 13:30era–. Halaber, bihar 11:00etatik aurrera puzgarriak egongo dira Santa Teresako patioan eta 18:00etan apar festaz gozatzeko aukera izango dute haurrek.

Adinekoentzako egitarauari dagokionez, bihar, barbakoa egingo dute Toki Argi erretiratuaren elkarteko terrazan, 14:00etan hasita, baita domeka arratsaldean ere, 19:30ean, eta domekan, 65 urtetik gorakoentzako bazkaria egingo dute Mesedetako Ikastetxean. Era berean, domekan, 13:15ean, hildako auzotar guztien omenezko meza egingo dute Mesedetako Ikastetxean. Ilun-keran, mariatxiak egongo dira.

Egitaraua osorik Goiena.eus webgunean dago.

Ignaziotarren lurraldean barrena, Vasco-Navarrotik

Bihar, zapatua, ibilbide historiko bat egingo dute bizikletaz, ignaziotarren garaian oinarritua, Vasco-Navarro trenaren ibilbidea erabiliz. 09:00etan abiatuko dira, tren geltoki zaharretik. Domekan, bestalde, Murugainera joango dira, dragoiaren bidetik. Izena emateko, turismo@arrasate.eus helbidera idatzi edo 695 75 34 30 zenbakira deitu.



**Ederretan
ederrena,
zuek
alboan
izatea.**

AMAGARA

Estetika Zentroa

Uztailaren 39an, Amagarak azken aldiz irekitxo dituzte ateak, 31 urtez lanean jardun ondoren, agur esatea tokatzen da, denbora igaro da eta jubilatzeko ordua iritsi.

Ute asko bakanrik lan egin ondoren, 1991ko urrian ilusioz beterik hasi nuen proiektu hau.

Denbora honetan, lagun izan dut lantalde bat, familia bihurtu dena, eta eskerri egin nahi diet beraien dedikazioa.

Denon izenean eskerri eman nahi dizkizuet gugau konfiantza eta maitasuna eskainiz proiektu hau aurrera ateratzea posible egin duzuen guztioi. Pozez eta nostalgiaz ere esaten dizkiet agur, gaur egun jada lagun zaituztedan guztioi.

Korapilo bat estarrion dugula, bakanrik gertatzen zaigu esatea:

**Bihotz-bihotzez
eskerrik asko!**

Zuha

Maité

Alvaro

"Mondraren inguruko guztia igarriko dut faltan"

JOKIN MUJIK ZALDIBARKO TXAPELKETAKO ANTOLAKETA TALDEKO KIDEA

Azken bederatzi urteak Mondrako elastikoa defendatzen ibili eta gero, Mondrako kapitain ohia Zaldibarko 24 orduko txapelketa antolatzeke laguntzen dabil

Xabier Urtelai ARRASATE

Jokin Mujikak (Arrasate, 1993) ez du Mondraren kapitaina dela adierazten duen besokoa gehiago jantziko. Maiatzaren 21ean jokatu zuen etxeko taldearekin azken partidua, eta taldekideek egindako agurrean majo hunkitu zen –baita delegatu izateari utzi dion Jesus Mari Iregi ere–. Arrasatekoa ez da, baina, gel-dirik egoten den horietakoa; asteburuan buru-belarri ibiliko da Zaldibarko 24 orduko txapelketa antolatzen laguntzen. Aitzakia ona, klub zuri-morean egindako ibilbideaz, agurraz eta oraingo asteburuan datorrenaz berba egiteko.

Ez nekien Mondran beharrean UDAN hasi zenuela futbol ibilbidea...

Bai, halaxe da. Gaztetan Almenen egin nituen ikasketak, eta horrek izango zuen eragina, edo han aurkitu nuela lekua lehenengo. Gero pasa nintzen Mondrara, talde nagusira salto egin nuenean, eta bederatzi urte egin ditut klub zuri-morean.

Klub zuri-morea kategoria galdu berrikan zegoen orduan.

UDA ohorezko erregionalean zegoen, eta Mondra erregional preferentera jaitsi berri. Arrasateko taldean aldaketak nahi zituzten, haize freskoa, eta jokalaririk gazteen aldeko apustua



Jokin Mujika, Zaldibarko 24 orduko txapelketako beste edizio baten. MARKEL BAZANBIDE

egin zuten. Hainbat lagun joan ginen UDAtik Mondrara: Andoni Uribealzo, Xabi Arrizabalaga, Igor Eskibel, Aitor Etxeberria... UDAN bigarren entrenatzaile zeuden Gotzon Urtelai eta Jon Iregi ere Mondrara etorri ziren gurekin batera. Ez naiz pauso hura eman izanaz inoiz damutu.

Zer aurkitu zenuen orduan Mondran? Niretako erreferente ziren jokalariekin egin nuen topo, eta gaur egun oraindik ere klubean daudenak: Iker Lopez, Ander Ruiz de Azua... Niretako sekulakoa

zen eurekin jokatzeari, eta gogoan daukat zelan hartu gintuzten, talde polita egin genuen. Gainera, azken urte honetan entrenatzaile izan ditut bi horiek, eta ederra izan da osteria ere futbolaren bueltan eurekin elkartzea.

Agur-partiduan hunkitu egin zinen...

"NEKATU AURRETIK ERABAKI DUT FUTBOLA UZTEA, BESTE LEHENTASUN BATZUK IZATEA"

Bai, asko. Halakoetan barruak mugitu egiten dira, horrenbeste ematen dizun zerbait alboratzen ari zarelako, eta oroitzapen asko etortzen dira. Pena ere sentitu nuen. Oraindik ez naiz kontzientea zer ekarriko duen futbola uzteak. Eta ez berdeguneke joakoatik bakarrik, baita beste gauza askorengatik ere. Hain zuzen, futbola utzi dutenekin berba egin dudanean garbi ikusi dut, futbolerako gosea edo har hori barruan geratzen da. Aurrerago konturatuko naiz horretaz.

Oraindik beste pare bat urtez jokatzeke moduan zaude, baina.

Bai, badakit, baina erabakiak hartu egin behar dira eta orain da momentua. Beste gauza batzuei eman nahi diet lehentasuna, fisikoki ez dut aparteko arazorik izan, ezta lesiorik ere, baina iazko denboralditik konturatuta nengoen buruan bueltak zebilen ideia zela futbola uztearena, nekatzen hasita nengoela-edo, eta momentua iritsi da. Hobe da orain uztea, eta ez beste denboraldi bat egiteko erabakia hartu eta komeni dena baino gehiago luzatzea.

Urte hauetan bizi izandakotik, zerekin geratzen zara?

Futbol zelaian denetariko momentuak izan ditugu, mailaz igotzea lortu genuen, denboraldi makalagoak ere egon izan dira... Baina Mondraren bueltan dabilen jendeaz geratzen naiz, familia horrekin. Eta baita askorendako Mondrak esan nahi duen horrekin ere.

Aurrerantzean, harmailetan zale bat gehiago, hortaz?

Ez izan zalantzarik. Ahal dugun guztietan joango gara Mojategira, taldekide izandakoak gertutik jarraitzera.

Zaldibarren hamasei talde izango dira

Zapato goizean hasiko dute Zaldibarko 24 orduko txapelketa, eta aurreko edizioan baino hiru talde gehiago izango dira aurtengo: "Anaiaren kuadrillakoe" errekupeatu zuten torneo hau duela urte batzuk, eta aurtengo edizioa antolatzen laguntzeko hainbat lagun animatu gara. Hala, kopuru oso polita da eta gustura geratu gara. Asmoa da zapatuan goizean hastera txapelketa, eta finalak goizaldeko hirurak aldera izango dira".

Beroari aurre egin behar

Asteburuan bero egingo du: "Baina okerragoa izango litzateke euria egitea, horrek ematen zigun beldurra. Egunean zehar indarrak neurtu egin beharko dira, baina iluntzetik aurrera freskotasun handiagoa egongo da".

Kontzertu eta guzti

Areto futbol txapelketa girotzeko kontzertuak ere egongo dira Zaldibarren. "Arrasate Blues ekimenaren baitan, Chris Bell eta Emilio Arsuaga izango dira Zaldibarren, eta, horrez gain, Arrasateko Tabu eta Etxepe taldeek ere emanaldia egingo dute".

Campusak, bide onetik

Uztailen neska-mutiko mordoak dabil kirol campusetan buru-belarri. Arrasateko taldeei dagokienez, Arrasate Eskubaloiko lagunek, Mondrakoek, Ointzekoek eta Mondratekoek egin dute campusak antolatzearen aldeko apustua, eta bi edota hiru txanda ere antolatu dituzte. Aukera ederra da gazteak kirol jarduera ezberdinetara erakartzen hasteko.



Mondra & Roll: magikoak bi gauak, eta segi aurrera

Nazioarteko punk-oi! eta punk-rock talde erreferenteak bertakoekin elkartu dituen Mondra & Roll jaialdia 2023ko uztailan itzuliko da; antolakuntzak ez du, oraingoz, talderik iragarri: "Eskerrik asko, sekulakoa izan da; datorren urtean ikusiko dugu elkar, kartel berriarekin"

Jokin Bereziartua ARRASATE

2023an ere egongo da Mondra & Roll, antolatzaileen arabera: "Eskerrik asko jaialdi hau sekulakoa izan dadin egin duzuen ahalegi-nagatik. Datorren urtean berri-ro ikusiko dugu elkar, kartel berri batekin". Hilaren 22ra arte berreskura daiteke eskumutu-rrekoaren dirua, honako lotura honetan: <https://cashless.idasfest.es/eventos/devolucion/1404>. Antolakuntzak, gaur-gaurkoz, ez du 2023rako talderik iragarri; Agur taldeak joko du, zapatuko make-ta lehiaketa irabazi zuen eta.

Zuzenekoan gainera zertzeladak

Kataluniako The Capaces-ek ireki zuen jaialdia. Espektatibak bete zituzten; Marta Martillo-k iratzarri zuen Monterron, hardore, punk eta rock-and-roll entsaladarekin. Gero, La Excavadora gogotsu igo zen; asko igarri zen Marky Ramonerekin biran dagoen Iñaki Urbiza *Pela* lide-rraren -Euskal Herriko *front-man* onenetako bat- hutsunea. Oi! doinuei bestelako bizitasun bat ematen dien La Inquisicion talde kataluniarrak ez zuen hutsik egin; giroa orduan hasi zen berotzen. Laugarren taldea Anticuerpos izan zen; soinuak ez zuten aldeko izan, baina aukeratutako abestiak eta kolaboratzaile zerranda dotoreak izan ziren. Egubakoitzeko emanaldi gorena, baina, The Baboon Show-rena izan zen. Ikusleak asebate eta harritu zituen Eskandinaviako laukoteak; batez ere, Cecilia *front-woman* elektrikoari esker. Energia, gertutasuna eta asko zaindutako ikuskizuna. The Cockney Rejects-ek itxi zuen lehen eguna; *Stinky* Turner abeslariak ez du Londresko auzo langileetako izaera galdu eta horren alde *boxeatzeko* prest dagoela berretsi zuen. Emanaldi osoan ez zen geratu ere egin; Baboon Show-k muga oso goian jarri arren, ikusleak bereganatu zituen.

Zapatuan, Zerok ireki zuen jaialdia; indartsu aritu ziren eta *Led Inferno*-k berretsi zuen *front-woman* handia dela. Crap igo zen gero, eta inoiz ezagutu duten plaza onena izanda eta, urduritasunak urduritasun, ez zuten kalerik egin. Perlatak kontzertu gogoangarria eman zuen, eskarmentu handia dutela erakutsita; agertoki handian ere, naturaltasun osoz jardun zuten. Des-kontrol izan zen hurrengoa; kontzertu bereziki zaindua eta indartsua eman zuten, kantuak oso ondo aukeratuta eta taldea oso ondo

koipeztatuta. Keinu ederra izan zuten ekainean hil zen Aido lagunarekin eta kolaborazio oso bereziak izan zituzten: bereziena Zakarrak-en *Salinbruky* izan zen, aspaldian agertoki gainera ikusi bako *Petete* eta Oskarrek. Cock Sparrer zen kartel-burua, eta igarri zen; 50 urte daramate jotzen, eta harrigarria da nola zahartu diren. Ereserki gehienak jo zituzten, ikuskizun paregabea. Peter And The Test Tube Babies izan zen azken taldea; Peter-ek ahotsa hondatuta zuen eta ez zen euren kontzertu onena izan.



The Baboon Show taldeko abeslari Cecilia Boström, publiko gainetik *hegan*. I. SORIANO



Zakarrak taldearen *Salinbruky*; Oskar eta *Petete* igo ziren Des-kontrolerik. I. SORIANO



Ugandako Sticks taldea, promoziorako argazki batean. MUNDUKIDE

Mozambikeren aldeko ikuskizun "berritzailea eta hunkigarria"

Mundukideren eta Harremanen eskutik, hilaren 20an izango da, Monterronen (19:30); sarrera hamar euro da

J.B. ARRASATE

Harreman eta Mundukide gobernu kanpoko erakundeek 20 urte baino gehiago daramatzate elkarlanean Mozambique iparraldeko korridoreko biztanleen bizitzak hobetzeko aukerak eskaintzen. "Lankidetzat programak hasi genituenean, herrialdea erabat suntsituta aurkitu genuen, eta, urteotan azpiegiturak, osasuna, hezkuntza eta jarduerak ekonomikoa nabarmen hobetu badira ere, gaur egungo egoera oso kaskarra da oraindik milaka eta milaka pertsonarentzat". Mozambikek laguntza behar du oraindik: "Oraindik asko dago egiteko eta horregatik gure helburua da gero eta familia gehiagori guk abiatutako proiektuetan parte hartzeko aukera ematea. Familia gehienek ez dute sarbiderik aukera berrietara; familia batzuk hilean 60 euro irabaztera iritsi ahal badira ere, gehienak ez dira 15 euro irabaztera iristen". Mozambikeri laguntzeko www.mundukide.org helbidean sartu besterik ez da egin behar.

Uganda eta Debagoiena

Oraingoan, baina, ezohiko emanaldi bat eskaintzeko batu dira Harreman eta Mundukide; ikuskizun "berritzaile eta hunkigarria" berriko protagonistak Ugandako Sticks talde afrikarra, Arrasateko Ttakun txalaparta taldea eta Aretxabaletako Jaiki izango dira. Ikuskizuna Monterron parkean izango da, uztailaren 20an, 19:30ean hasita. Ttakunen txalaparta hotsez gain, Jaiki perfo-

mance taldeak *Euskafrika* ikuskizuna eskainiko du. Sarrerak hamar eurotan daude salgai: www.mundukide.org.

Arrasatekoa, primizia

Ugandako Sticks talde afrikarraren emanaldiak dantza eta musika uztartuko ditu: "Lurra, ohiturak, fedea, alaitasuna, mina eta edertasuna deskribatuz egiten dute dantza, eta danbor eta erritmo alaiak lehertzen dira. Garaikidea, afrikarra, tribala, kamera geldoan edo erritmo zoroetan dantzatzeko dute. Afrikar kutsu garbia duen ikuskizuna da, eta arrakasta handia lortu du kontzertua eman duten aldiro", adierazi dute antolatzaileek. Hain zuzen ere, Ugandako hiriburu Kampalako umezurtegiaren hazitako zazpi gazteek ehunka emanaldi egingo dituzte Euskal Herrian eta Espainian uda honetan, eta Arrasatekoa primizia izango da.

Ibai-arteren zozketa

Ibai-arterek ere egin du bat ekimenarekin eta sarrerak zozketatuko ditu elkarteko dendetan erosketak egiten dituztenen artean. Sarrera bikoitzak lortzeko bi aukera daude: Arrasate txartelarekin ordaintzea edozein erosketa edo erosketa-txartel baten argazkia bidaltzea, Whatsappez, 688 73 41 49 telefono zenbakira. Irabazleek uztailaren 18an edo 19an Maala kalean dagoen Altuna lurrindegitik pasatu beharko dute, denda zabalik dagoen ordutegian.



Uribarri eta Gureia artean dagoen mendi pista, hondatuta. ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

Hasi dira pistetako kalteak konpontzen

Hilabeteetako lanaren ostean, abenduan izandako euriteen kalteak konpontzeko lanak adostu dituzte. Lehenetasunen arabera egingo dituzte mendi pistetako lanak, aurrekontuan diru partida bat gordeta; dagoeneko zati batzuk konpondu dituzte

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Azaroan eta abenduan izandako euriteek kalte handiak eragin zituzten Aramaio hainbat mendi pistatan. Bada, mendi pista horiek konpontzen hasi dira dagoeneko.

Udalak, momentuz, ez du lan horiek egiteko dirulaguntzarik jaso; baina 2022ko aurrekontuan diru partida bat gorde du lan horiek egiteko. Pistak konpontzeko lehenengo fase bat adostu dute, hilabeteetako lanaren ostean. Lehenengo fase horretan, jasotako kalte batzuk konpondu dituzte dagoeneko; Eguzkierripa eta Gantzaga arteko pista eta Marin inguruko kalteak, adibidez; beste batzuk, berriz, egiteko dituzte.

Ametzuko errepeidea

Kalte handiena jasan zuen errepeidea Ametzukoa izan zen; apiril hasieran konpondu eta zabaldu zuten errepeidea. 31.327 euroko aurrekontua izan zuten lan horiek egiteko.

Lehenengo fase honen ondoren bigarren fasea etorriko da. Udalak mendi pistetako kalteak lokalizatu, aztertu eta aurrekontua eskatzen hasi da. "Lan guztiak batera egitea ezinezkoa denez, lehenetasunak markatu ditugu", azaldu du Aramaio Udaleko Ingurumen zinegotzi Santi Balantategik. Izan ere, abendu hasierako euriteetan 35 bat in-

tzidentzia jaso zituzten. Lurra lehortu arte itxaroten egon dira lanak egiten hasteko. Neguan izandako kalteak neurritz gora-koak zirela azaldu zuten bere garaian bai udal arduradunek eta baita udal teknikariek ere.

Lanak bi enpresaren artean egiten dituztela azaldu du Balantategik: Julen Agirre eta Excavaciones Arrasate.

Lehenengo fasearen aurrekontua

Ibarra-Barajuen pista	726 €
Jarindogoitiko pista	1.887 €
Eguzkierripa, Maskaino-lpiztikoarriaga	554€
Zalgo, Gureia azken tramua	7.120 €
Arrupe-San Adrian	3.448 €
Eguzkierripa-Gantzaga pista	4.483 €
Eguzkierripa, Maskainoko txabolatik aurrera	2.129 €
Errotabarri ondoko erreka kontrako pista	5.699 €



A.E.G.

Zabaldu egin dute arrapala

Obra txiki bat egin dute Aramaio anbulatorioko sarreran. Arrapala eta eskailerak zabaldu egin dituzte, irisgarriago izateko eta esku-ohetarako aukera izateko, besteak beste. Izan ere, orain arte ez zegoen horretarako aukerarik. Balgorza SA enpresak egin ditu lanak, 9.791,31 euroko aurrekontuarekin.



Jon Ander Beitia, Chema Vilches eta Arantzazu Ruiz de Azua. JABIER GARAITONANDIA

Giro onean ospatu dute San Kristobal eguna Uribarrin

Uribarriko jaien ostean, Arexolako eta Arriolako Santa Marina jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara arte

A.E.G. ARAMAIO

Giro onean ospatu zuten San Kristobal eguna domekan Uribarrin. Jende asko batu zen ermitaren inguruan. Goizeko mezaren eta musikaren ostean, arratsalde partean bolo txapelketa jokatu zuten. Joan Ander Beitia, Chema Vilches eta Arantzazu Ruiz de Azua izan ziren irabazleak.

Santa Marina jaiak

Gaur hasi eta domekara bitartean, Santa Marina jaiak ospatuko dituzte Arexola eta Arriola auzoetan. 20:00etako etxafuegoen

ondoren, 21:00etan, bertso afaria izango dute Amets Arzallus eta Alaia Martin bertsolariekin. Bihar, zapatua, 12:00etan, meza izango dute, eta ondoren, bizikleta lasterketa. Ibarrik irten- go dira ziklistak eta Arexolarai- no igo beharko dute. 17:00etan, kanpai-jotze erakustaldia izango dute, eta 17:30ean, mus eta briska txapelketak. Ondoren, kaleji- ra egingo dute Arexolatik Arriola- ra. Gauean, dantzaldia izango dute Astiazaran II eta Andonegi trikitilariarekin, eta goizaldean, txokolatea bizkotxoarekin. Domekan, meza eta jolasak.

Kontzertuak eta gaueko zinema, sagardoa lagun

Iturrieta sagardotegiko lorategian 'Hamabostaldi kulturala' antolatu dute uztaileko azken bi asteburuetarako; Elh Malick bakarlariak irekiko du egitaraua datorren ostiralean, eta Asier Altunaren film laburrak proiektatuko dituzte zapatu gauean

Hasier Larrea ARAMAIO

"Bezeroei eskerrak emateko", horretxegatik antolatu dute Iturrieta sagardotegiko egitarau kulturala bertako kudeatzaileek. Juanjo Peziñasen esanetan, urtero saiatzen dira "jendeak gozatzeko moduko" ekintzak antolatzen, "noizbehinka" bada ere. Hala, lehen hitzordua datorren ostiralean, hilak 22, izango da, 19:00etan hasita, Elh Malick musikagile senegaldarraren eskutik. Gitarra akustikoarekin, wolof hizkuntzan egiten ditu reggae ukituko "bizitzari buruzko" abestiak, baina "pop amerikarra eta Mikel Laboaren bertsoek badute tokia" haren kantutegian. Gasteizen bizi da eta Donostia, Zaragoza, Bartzelona eta Madrilera joaten da sarri, taberna edo aretoren batean jotzeko deitzen diotenean.

Beste artista internazional bat, kasu honetan Aldo Mila portugaldarra, gonbidatu dute sagardotegira hilaren 29ko arratsaldea goxatzeko. Gustuko baitute kanpoko musikariak ekartzea. "Asteon Kubako Septeto Santiaguero taldekoek deitu ninduten, biran zihardutela Europan eta ea zer bait egin dezakegun; bi Grammy irabazitakoak dira, eta bai, hemen jo zuten behin", azaldu du Peziñasek.



Elh Malick senegaldarra, gitarra akustikoa jotzen. KULTURKLIK

BI BAKARLARIEN KANTUAK ETA HIRU ZINEMAGILEREN PIEZAK JARRAITU AHALKO DIRA

Filmak, pantaila handian

Aurten berrikuntzak eskaintzeaz ere arduratu dira, *Izarren azpiko euskal zinea* izenekoari tokia eginaz: "Garai bateko udako gauak berreskuratu nahi genituen, plazetan pantaila erraldoia

jarri eta norberak etxetik aulkia eramaten zueneko gauak, pelikulak ikusteko aitzakiarekin".

Hori hala, Aitor Alberdirekin Proiektors sormen taldeko kidearekin jarri ziren harremanetan. "Film zein proiektore analogikoak konpondu eta erabilera ematea da, besteak beste, egiten duguna", dio. Elkarlanean antolatu dute, beraz, hiru saio izango dituen zinema zikloa, eta bakoitzean Asier Altuna, Aitor Alberdi eta Juanma Cano zinemagile euskaldunen film laburrak jarriko dituzte.

Denboraldiko bigarren txapela Markel Arriolabengoarentzat

Arabako lau eta erdiko torneoko finala irabazi du gazte mailan, Ogeta frontoian Aitor Arauzori 22-15 irabazita

H.L. ARAMAIO

Joan den zapatu goizean jokatu zituzten Arabako lurraldeko lau eta erdiko finalak kadete, gazte, 22 urtez azpiko eta nagusien kategorietan. Iaz finalerdietara iritsita, aurten txapelketako hiru partidu jokatu ditu Markel Arriolabengoak, final laurdenetatik hasita. Haren hitzetan, finala "espero baino lasaiago" hasi zuen, eta, atzelaria izanik, "kolpeka" jazarri zuen Aitor Arauzo Amurrioko ezkertia. Horrek pilota kaiolako mugatik kanpo behin baino gehiagotan pasatzea eragin zion, baina, hala ere, kontrolpean izan zuen partidua une oro, "aurkaria atzean zegoenean dejadak egiteko" aprobetxatuta.

17 urte dituen arren, abenduan 22 urtez azpiko Arabako txapelketan aritu zen buruz buru, eta baita irabazi ere, zazpi tantoko



Txapela soinean. HERIBERTO ARRIOLABENGOA

aldeagatik, berriz ere. Udan badu beste lehiaketa bat begiz jota, Gasteizko jaietan, Foruen plazan jokatzeko den binakako Andra Mari Zuriaren torneo, hain zuzen. Legutioko frontoian egiten dituen entrenamenduek lagunduko diote hura prestatzen.

Uda beroan, ur jolasetan

Gustura dabilta umeak eta gaztetxoak udaleku irekietan. 2 eta 12 urte arteko 93 gaztetxo dabilta aurten, hamar begiralerekin. Asteazkenean, esaterako, ur parkean ibili ziren nagusitxoek, urarekin eta xaboiarekin jolasten. Gaztetxoek, berriz, Zikin Egunean hartu zuten parte, erreka garbitzen eta bertatik "gauza dezente" ateratzen.



ARANTZAZU EZKIBEL

Zinema zikloaren egitaraua

Asier Altuna bergararraren zazpi pieza laburrek irekiko dute *Izarren azpiko euskal zinea* ekimena, hilaren 23an, 22:00etan. Ordubetea, *Txotx*, *Topeka* eta *40 ezetz* lanak ikusi ahaliko dira, besteak beste.

Hurrengo saioak hilaren 28an eta 30ean egingo dituzte, Aitor Alberdiren eta Juanma Canoren launa ikus-entzunezko eskainita, hurrenez hurren.



40 ezetz film laburraren fotograma bat. YOUTUBE

Dorletako Ama lasterketa ziklista pasako da domekan

Eskualdean txirrindularitza ekitaldi ugari egingo dira asteburuan (Ikus 39. orria) eta Aramaio ere zeharkatuko dute lasterkariak. Kasu honetan, Leintz Gatzagan hasi eta bukatuko den Dorletako Ama sari nagusia igaroko da herritik etzi goizean, hilak 17. Amateur mailako ziklistek Lehendakari Txapelketako proba izango dute jokoan.

Tropela Gesalibartik sartuko da erdigunera, 10:49 aldera, lasterketako 28. kilometroan. Tarteko helmuga jarriko dute kalean; beraz, sailkapen nagusirako puntuak izango dituzte jokoan. Zuzen joko dute saihesbidera segidan, Azkoaga eta Zabola auzoetarako bidea hartu eta Untzillara iritsiko dira; gero, Suñatik eta Gesalibartik osterera ere Arrasatera bueltatuko dira. Ondorioz, errepide horiek zirkulaziorako moztuta egongo dira 10:45 ingurutik 11:15 ingurura.

Zabalik da amatasun kontsulta Senegalen

Yaakar elkarteko hainbat kide izan dira Mbam herrian han abiatutako proiektuaren nondik norakoak ezagutzen; emakumeen mediku beharrak artatuko dituzten eraikina bukatuta dago eta elkarlanean jarduteko gogoia agertu dute bi aldeek

Mirari Altube ARETXABALETA

Sei egun egin dituzte Senegalen sei aretxabaletarrek: Yaakar elkarteko presidente Amalia Ormaetxeak eta Lurdes Llodio kideak, haren senar Andoni Markuello; Karmele Uribarri alkateordeak eta haren seme Danel Sanz-Azkunagak; eta Myriam Beltran de Heredia Udal teknikariak. Mbam herrian abian duten proiektuaren nondik norakoak ezagutu dituzte han.

Eskolan beste bi gela

Mbam udalerrri gaztea da eta "behar asko" dituen; bereziki, azpiegituri dagokienez. Aretxabaletan bizi diren Aminata Sene eta Souleiman Sarr familiari esker abiarazi zuten elkarlana, eta orain, bisitan izan dira. "Harrera benetan beroa jaso genuen hasiera-hasieratik eta oso eskertuta agertu ziren", adierazi dute Ormaetxeak eta Uribarri.

Elkartearekin lankidetzan eraiki berri duten amatasun kontsulta erakutsi zieten. Bergarako, Eskoriatzako eta Aretxabaletak udalek emandako laguntzari esker egin dute, eta Debagoieneko Ospitaleak dohaintzan emandako materialarekin hornitzea da asmoa: "Dagoeneko hara bidean da material hori; hilabete bukaer



Aretxabaletarrek Mbamgo hainbat herrikiderekin, alkateordea horien artean. YAAKAR

rarako iritsiko delakoan gaude", adierazi du Uribarri, ospitaleko erizaina izanik bitartekari lanak egin dituenak, eta gaineratu: "Benetan pozik daude eta dantzen eta musika bidez adierazi ziguten hori. Jantziak oparitu zizkiguten, eta ni asko hunkitu nintzen".

Eraikina inauguratzeko aprobetxatu zuten bisita eta bertan elkartu ziren Uribarriekin batera osasun etxeko arduraduna, Mbamgo alkateordea eta Senegalgo Gobernuako ordezkari bat. "Esker mezuek jaso genituen eta

egun historikotzat jo zuten", azaldu du Ormaetxeak, eta gaineratu: "Guk ere eskerrak eman genizkien proiektuan parte hartzera gonbidatzeagatik, eta sortutako adiskidetasunari esker haien proiektuei eta beharrei erantzuten jarraitu gura dugula adierazi". Plaka bat jarri zuten bertan.

Era berean, erditze osteko gela bat eraikitzen hasteko lehen harria jarri zuten Mbamgo alkateordeak eta Aretxabaletak udal ordezkari Uribarri: "Emakumeen arretea indartu gura



Ormaetxea, Mbutung, Llodio eta Beltran de Heredia. YAAKAR ELKARTEA

Emakumeen elkarteko kideekin

Emakumeen elkarteko kideekin, Mbutung presidentea buru izanik, elkartu ziren eta jakinarazi zieten emakumeen egoitza bat behar dutela elkartzeko eta trebakuntza saioak jasotzeko, besteak beste. Horretarako dirua lortzen ahaleginduko da Yaakar.

dute, gabezia handiak dituelako. Eta eraikin hauek horretarako izango dira".

Emakumeen elkarteko kideekin ere izan ziren: "Berdintasuna lortzeko lanean ari dira. Eta horretarako pauso garrantzitsua izango litzateke lokal bat izatea: kulturari eusteko, ohiturak transmititzeko gazteei... Afrikaren garapenean emakumeen papera oso garrantzitsua da". Hala, Yaakarrek dirua lortzeko ahalegina egingo du emakumeendako egoitza eraikitzeko.

Lehen pausoak

Lehen Hezkuntzako umeen eskola ere bisitatu zuten, "Gasteizko ikastetxe batean lan egiten duen herrikide batek emandako materiala eraman genien", dio Ormaetxeak. Hezkuntzan "behar handiak" dituztela jakinik, ikastetxe horretan bertan beste bi

gela eraikitzeko dirulaguntza eskatu dio Yaakar elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiari. Era berean, Senegalgo hainbat txoko bisitatzeko aprobetxatu zuten bidaia; besteak beste, arrantzatik bizi diren herri txikiak ezagutzeko eta Fathala erreserban animaliak ikusteko.

Lehenengo pausoak izan direla emandakoak azaldu gura izan du Uribarri, eta hemendik aurrera beste asko etorriko direla iragarri: "Aretxabaletak eta Mbamek batera jardungo dute; proiektu asko ditugu lantzeko elkarlanean".

ERDITZE OSTEKO GELA BAT ERAIKITZEKO LEHEN HARRIA JARRI ZUTEN BI HERRIETAKO UDAL ORDEZKARIEK

Orain dela 50 urte lortutako garaipena oroitzeko eguna bihar

Afizionatu mailako Espainiako Txapelketa irabazi zuen 1972ko uztailaren 16an, Murtzian, UDAko taldeak

M.A. ARETXABALETA

Finaleko bigarren partidua jokatu eta Afizionatu Mailako Espainiako Txapelketa irabazi zuen egun berean, uztailaren 16an, elkartuko da 50 urte geroago UDAko taldea. Maiatzaren

23an, elkartearen 75. urteurrenaren baitan, omendutako jokalariek eta presidentea dira.

Basotxon egin dute hitzordua eta handik komentuko lorategia erakutsiko diete kanpotik datozenei. Udaletxera joko dute gero,

baita talde argazkia atera ere. Osoko bilkuren aretoan Aretxabaleta Abesbatzak hainbat kantu eskainiko dizkie, hil diren jokalariek, entrenatzaileak eta presidentearen emaztea gogoan. "Orain dela 50 urteko akta originalak eskuratu ditugu Federazioan, bi partidutakoak, Aretxabaletan eta Murtziako La Condominan jokaturakoak. Pergaminoetan kopia ditugu eta jokalariek bakoitzak bana jasoko du", adierazi du Joxe Migel Uribarren jokalaria ohiak. Gero,



Jokalariek, maiatzeko omenaldian. I.S.

Taberna Berrin bazkalduko dute. Bizirik dauden bi faltako dira –Camara eta Mayora–, baina gainerakoak elkartzeko dira, baita hildako hiru kideen senideak ere.

Urtero elkartzeko ohitura dute: "Gutxienez, azken 25 urteotan, esango nuke. Baina aurretik berezia da, kasualitate asko batu dira eta: partiduen eguna bera zapatua izatea, urteurren borbila betetzea, La Condominan zegoen beroa iragarritako egotea, udaletxera bisitan joatea..."

Irteera eta jolas mordoa udalekuak girotzeko

Beroa protagonista izan den astean ur-jolasak egin dituzte udaleku irekietako neska-mutikoek; UDAko campusekoek, oster, futbol jarduerak mendi irteerekin uztartu dituzte; eta Udaero egitasmoko nerabeek ur inguruetara egin dituzte txangoak

Mirari Altube ARETXABALETA

Aisialdi eskaintza zabala izan dute herriko umeek eta nerabeek: udaleku irekiak, Udaero egitasmoa eta UDAko futbol campusa. Eta guztiak daude abian uztailaren 4a ezker.

Udaleku irekiek batu dituzte neska-mutiko gehien: 320, hain zuzen ere. Eta "ederto" dihardutela adierazi du horien ardura duen Loratu ekimeneko Ainhoa Sanchez koordinatzaileak: "Astean ur-jolasak egin ditugu, batez ere, eta oso gustura dabilta. Gurasoek ere halaxe adierazi digute". Sanferminak ere ospatu zituzten joan den astean, eta datorrenean txangoak, olinpiadak eta jolasak izango dira protagonista; jaialdi batekin bukatuko dira, hilaren 22an.

'Gaztekonkis' nerabeek

Nerabeak, oster, Udaero egitasmoan murgildu dira. Eskoriatzako eta Aretxabaleako gaztelekuak bat egin dute eta irteerak izan dira protagonista bi asteotan; Mutrikun, Usakon eta Urdaibain izan dira. Antolatzaileak pozik agertu dira antolatutako ekitaldiek izandako erantzunarekin. Gaur, afari-merienda egingo dute gaztelekuan bertan, eta bukatzeko, *Gaztekonkis* lehiaketan jardungo dute martitzenetik eguenera bitartean.

Futbola eta mendizaletasuna

UDAk antolatutako futbol campusa ere aurrera doa. "Bigarren aste hau oso beroa izaten dabil, baina, atsedenaldiak eginda eta ondo hidratatzeko ardura hartuta, ekintza guztiak egiten dihardugu", adierazi du Iker Arriola-bengoa koordinatzaileak. Futbola bada ere ardatz, mendizaletasuna sustatzen ere dabil: "Kurtzetxikin, Murugainen eta Kurtzebarrin izan gara". Datorren astean, Zubietara joango dira, Realaren instalazioak ikustera, eta bukatzeko, Apotzagan egingo dute azken festa.



Zapi gorriak eskuetan dituztela, sanferminak ospatzen udaleku irekietan. LORATU



Nerabeak Murugainen, Udaero egitasmoaren barruan egindako irteeran. GAZTELEKUA



Futbol campusean diharduten neska-mutikoak Kurtzebarriko tontorrean. UDA

Askotariko ekitaldiak Portasolgo jaietan giroa freskatzeko

Piroteknia ikuskizuna izango da gaur, eta bihar, 100 bat auzotar elkartuko dira elkarrekin bazkaltzeko

M.A. ARETXABALETA

Atzo eman zieten hasiera jaiei, umeendako ur-jolasekin, baina gaur murgilduko dira bete-betean Portasol inguruan. "Gogotsu gaude. Izan ere, auzotar askoren lana dago atzean", adierazi dute auzoko batzordeko kideek. Musika presentzia handia izango du, bereziki, bertako taldeen eskutik –Jotabe, Akulu, DJ BRG eta Gorka eta Mikel Lopez–, eta nabarmendu dute gaur gauean (22:30) Lekittoko Deabruak taldeak eskainiko duen piroteknia ikuskizuna.

Aurreko urteetan arrakasta izan duten ekintzek ez dute hutsik egingo: patata-tortilla txapelketak gaur (17:00), 100 metroko lasterketak zapatuan (11:30) eta domekan azokak (10:30) eta paella txapelketak (14:00). Biharko auzo bazkarian, oster, 100 lagun elkartuko dira.



Piroteknia ikuskizuna. LEKITTOKO DEABRUAK

Ekitaldi kuttunen artean omenaldia dago; auzoko nagusia eta gazteena omenduko dituzte domekan (18:00): 97 urte dituen Dionisia Talego eta martxoan jaiotako Kinan Rothmbf. Eta jaiak bukatuko dituzte adinekoendako dantzaldiarekin.

Amak taldea dator domekan eta Kukai eguaztenean

Kultura kalera ateratzeko ekimenaren barruan, Amak taldearen trikiti doinuekin beteko dira Herriko Plaza inguruak domekan (19:30). Lau emakume –Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kris Solano– izango dira oholtza gainean trikitiak eta panderoak eskuetan hartuta eta ahots dotoreek lagun eginda. Eskarmentu handiko

musikariek –10. Euskal Herriko Musika Bulegoa saria jaso dute aurtentzen– *Amak* diskoko kantuak eskainiko dituzte.

Bestetik, entzute handiko Kukai dantza taldeak *Gelajauziak* lana ekarriko du, hilaren 20an, Herriko Plazara (19:30). Taldearen buru den Jon Maya Sein elkartu da Cesc Gelabert koreografoarekin eta dantza tradizioanletan ohikoak diren hainbat kontzeptu berraztertutako proiektu honetan, begirada pertsonal berri batetik.

Jou Díaz
Karakina
Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Alvaro Gimenez, Gorka Merino eta Mikel Gimenez pilotuak. AITOR MURUA

Hiru piloturen hurrengo 'oztopoa', Polonian

Aretxabaletako Oztopo trialsin taldeko Alvaro eta Mikel Gimenez anaiak eta Gorka Merino Polonian jokatu den Munduko Txapelketarako sailkatu dira. Abuztuaren 9tik 11ra bitartean jokatu da, eta esperientzia bizitzeko gogoz daude

Imanol Beloki ARETXABALETA

Munduko Txapelketarako sailkatzeko, Espainiako Txapelketako sailkapenean lehenengo bosten artean sailkatu behar izan dute Oztopo trialsin taldeko pilotuek. Ez da lan erraza izan, aurreko kategoriaz igo eta nagusiagoekin lehiatu behar izan baitute. Hala ere, Alvaro eta Mikel Gimenez anaiak eta Gorka Merinok lortu dute euren helburua, entrenamenduen konstantziak eta ilusioak bere fruitua eman du, eta, beraz, Trialsineko Munduko Gazteen Txapelketan arituko dira, abuztuaren 9tik 11ra bitartean.

Mikel benjaminen kategorian arituko da eta Gorka eta Alvaro, berriz, infantil mailan, lehenengo urtekoen sailean. Bidea ez dela erraza izan adierazi du Aitor Muriak, Oztopo trialsin taldeko entrenatzaileak: "Espainiako Kopan egindako bost lasterketarako lana eta Espainiako Txapelketan –egun bakarrean– egiten den lana hartzen da kon-

tuan Munduko Txapelketarako sailkatzeko. Gazteen sailean eta infantiletan zeuden parte-hartzaileak maila handikoak ziren, eta azkenengo lasterketan erabaki da sailkapena".

Aukera handiekin

Gorkaren eta Alvaroren lehenengo urtea da maila berri batean, nagusiagoekin aritu dira lehiatzen aurreko, eta, beraz, esperientzia hartzea eta Munduko Txapelketa bizitzera joango direla Poloniara azpimarratu du Muriak: "Egun ona badute, podiuma lortzeko aukera dute, nahiz eta irabaztea zaila izango duten. Nork daki...".

Poloniako txapelketa

9 eta 16 urte bitarteko gazteen-tzat prestatutako UCI Trialsin Munduko Gazteen Txapelketa nazioarteko proba bat da, eta bertan arituko dira Oztopo trialsin taldekoak. Wadowice hiri poloniarrean izango da txapelketa, abuztuaren 9tik 11ra bi-

tartean, eta parte-hartzaileek harriz, zuhaitz-enborrez, hormigoizko hodiz eta trenbideko lotailuz osatutako sekzioak izango dituzte erronka gisa.

Hamasei herrialdeko ordezkariak izango dira txapelketan; hain zuzen ere, 158 lehiakide. Horiek UCiren araudi berriaren arabera lehiatuko dira. Erregelamenduen arabera, helburua da gehieneko puntu kopurua jasotzea baimendutako denboran bost ataletan zehar. Kontzeptua sinplea da: gurutzatu ateak oinik edo bizikletaren zatiren bat jarri gabe, gurpilak izan ezik, lurrean 10 puntu bildu, eta gurutzatutako ate bakoitzean. 60 puntu dira puntuaziorik onena.

**OZTOPO TRIALSIN
TALDEKO HIRU PILOTU
MUNDUKO
TXAPELKETARAKO
SAILKATU DIRA**



UDAKo ordezkariak 2021-2022ko denboraldiko ohiko batzar orokorrean. UDA

Denboraldi berrian, bertakoen aldeko apustua egingo du UDAK

UDA kirol elkartearen batzar orokorrean, egindakoak aztertu dituzte eta erronka berriei begira jarri dira

I.B. ARETXABALETA

Uztailaren 8an Arkupen egindako batzar orokorrean, amaitu den denboraldiaren errepa-soa egiteaz batera denboraldi berrira begira jarri ziren UDAKo ordezkariak. Diru-kontuak ere izan zituzten hizpide, eta UDAKo bazkideek galderak eta ekarpenak egiteko tartea izan zuten. Bertan izan ziren Agurtzane Elkoro UDAKo presidentea, Nerea Olmedo eta Iñaki Ibarrondo UDAKo zuzendaritza batzordeko kideak eta Ainara Muga UDAKo komunikazio arduraduna.

Besteak beste, UDAK dituen taldeetan bertako jokalarien aldeko apustua izango dela erronka nagusia adierazi zuen Agurtzane Elkoro. "Beñat Etxabe aretxabaletarra itzuliko da UDAKo futboleko erregional prefere-nte mailako taldea entrenatza-tera. Horrekin batera, Odei


Castresana jokalaria ere etorri-ko da ohorezko erregional mailako taldea indartzera. Bertako jokalaria eta entrenatzaileak nahi ditugu, baina kanpotik ere ekarri beharko ditugu... Izan ere, urtea 655 kirolariarekin amaitu dugu, eta zaila da denak bertakoak izatea".

Lau helburu nagusi

Datorren denboraldira begira lau erronka edo helburu nagusi izango dituztela nabarmendu zuen Elkoro: "Realarekin batera aurreko hasi dugun balioen plan estrategikoa aurrera eramango dugu; bertako kirola eta bertakoena sustatuko dugu; EKKO proiektua, ikastetxeekin hasitakoa, Aretxabaletako Udalarekin eta San Juan de Dios ospitalearekin batera indartuko dugu, eta euskara proiektua ere sustatuko dugu. Hori gauzatze-ko, kalitatea oinarri izanda".

Erakusketa Basotxon

Pintura erakusketa jarri dute Aretxabaletako Basotxo Erretiratuen Elkartearen egoitzan. Hamar lagunek egindako lanak dira, eta, guztira, 25 pintura inguru dira bertan ikusgai daudenak. Hainbat pintura-koadro mota dira: era abstraktuan egindakoak, paisaiak, natura hilak... Idoia Elexpuru irakaslearekin azken urteetan egin dituzten lanak dira.



MIRARI ALTUBE



Andoni Bengoa eskoriatzarra gitarrarekin. ANDONI BENGOA



Patxi Rama gasteiztarra Jesus Perez eskoriatzarrarekin. J.PEREZ



Marisol Andrade ipuin kontalari eskoriatzarra. MARISOL ANDRADE

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Eskoriatzan sorkuntza bultzatzeko topaketa antolatu dute asteburu honetarako. ZeDemente izenpean, mota guztietako sortzaile eta artistentzat musika, antzerkia edo taularatu daitekeen beste edozein modalitate eskaintzeko hitzordua izango da, eta parte hartzen duten pertsonak edo taldeek gutxienez 45 minutuko saioa eskaini beharko dute zuzenean; hiru sortzaile izango dira asteburu honetan zuzeneko horiek eskaintzen.

Eskoriatzan jaiotako edo errolatutako pertsona guztiek har dezakete parte bertan, baina dagoeneko itxita dago izena emateko epea. Taldeen kasuan, taldea osatzen duten pertsonetako batek, gutxienez, Eskoriatzan jaiotakoa izan behar du, edo bertan errolatuta egon.

Musika eta ipuin kontaketa

ZeDemente topaketako lehenengo artista Marisol Andrade eskoriatzarra izango da. *Non zaz ama?* eta *Olatzen lagun-minak* helduentzako ipuin kontaketa eskainiko du. Lehenengo ipuina euskaraz izango da eta

Sorkuntza bultzatzeko topaketa, zuzenekoekin

ZeDemente topaketaren lehenengo edizioa ospatuko da asteburu honetan Eskoriatzan. Herriko interpreteen eta sortzaileen sustapena bultzatzeko helburuarekin, haien talentua demostratzeko aukera izango dute agertoki gainean

bigarrena, euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez. Zaldibar antzokian egingo du kontaketa, gaur, 19:00etan, eta sarrera doakoa izango da.

Bigarren artista, berriz, Andoni Bengoa eskoriatzarra izango da, Fernando Eskoriatza plazako agertokian gaur, egubakoitza, izango da zuzeneko eskaintzen. 2007ra arte Barua Bandarekin egindako ibilbidearen ostean, etenaldi luze honetan sortutako kanta berriak abestuko ditu jendaurrean. Barua Banda taldearen atzean Andoni Bengoa –abeslaria eta gitarra-jolea–, Iñaki Kortazar –bateria-jotzailea–, Gari Kortazar –saxo-jo-

tzailea– eta Andoni Zubiaga –baxu-jotzailea– izan ziren. Hain zuzen ere, SS-77, Lukas Prest, Honky Tonks eta Eskoriatzako Txistularien Bandan aritutakoak izan ziren taldea osatu zutenak. Oraingoan, baina, bakarlarri gisa arituko da Bengoa, eta pop-rock kutsuko euskarazko kantak eskainiko ditu, gitarra akustikoa-ren laguntzarekin.

Hirugarren sortzailea ere, eta azkena, musika talde bat izango da. Pajaro Azul da taldearen izena, eta partaideak Jesus Perez Suso eskoriatzarra eta Patxi Rama eta Iker Crespo gasteiztarrak dira. *El jardín de las canicas* proiektuaren berri emateko igo-

ko dira eszenatokira. Folk, pop eta rock estiloetako kantu akustikoak eskainiko dituzte.

Sortzaile bat gutxiago

Laugarren sortzaile bat ere parte hartzekoa zen, baina huts egingo du T-Treinta Y Cuatro heavy metal taldeak. *Reignición* diskoa argitaratuta, bihar, zapatua, ziren kontzertua eskaini-

tzekoak, Fernando Eskoriatza plazan. Luis Romero eta Ion Rail –gitarrikak–, Fulgen Zaca –baxu-jotzailea–, Jose Zorrostitiagi –bateria-jotzailea– eta Alberto Hernando *Perseveranth* –ahotsa– dira taldea osatzen dutenak; azkena, Hernando, eskoriatzarra. "Parte hartzeko asmoa genuen, baina, azkenean, taldekide batek ezin du, lanagatik... eta, beraz, pena handiz, ezingo gara egon", adierazi du Hernandok.

Sari banaketa domekan

ZeDemente lehenengo topaketaren sari banaketa domeka honetan 21:00etan izango da Zaldibar antzokian. Sari bakarria izango da: 400 eurokoa –emanaldiaren erdia baino gehiago euskaraz izanez gero, 100 euro gehiago jasoko ditu–. Gainontzeko parte hartzaileentzat ere izango dira sariak: banakakoak 100 euro, bikoteak 150 euro, taldeak 250 euro; kasu hauetan, emanaldiaren erdia baino gehiago euskaraz izanez gero, 50 euro gehiago. Epaimahaia Eskoriatzako Udaleko Kulturako eta Kiroletako Batzordeak izendatutako pertsonak osatuko dute.

Guadalajarara bidaiia, bertan behera; urrikoak, arrakasta

Urriari Andaluziara egingo duten bidaiaren berri eman, eta lehenengo egunean izen-ematea gainditu dute

I.B. ESKORIATZA

Olazar Erretiratuen Elkarteko kideek antolatutako lau eguneko oporraldia bertan behera geratu da. Guadalajarara joatekoak ziren astelehenean, eta hilaren 22an bueltatu behar

zuten, bertan txoko ugari bisi-tatu ostean. "Jendeak atzera egin du, eta, penaz bada ere, bertan behera uztea erabaki dugu. Hala ere, pandemia aurretik egin behar genuen beste bidaiia bat berrantolatu dugu,

eta izen-ematea ireki bezain pronto bete egin da. Asmoa da urriari Andaluziara joatea, hegazkinean, Pueblos Blancos delako ibilbidea egitera. Jendeak bidaiia hau egiteko gogo handia zuen, eta, pertsona kopuru muga gaindituta, 20 lagunetik gora itxarote-zerrendan daude. Egunotan batuko gara, zer egin daitekeen erabakitzeko. Hegazkina tarteko, ez dago gure esku, halere...", adierazi du Jasone Orbegozok, Olazar Erretiratuen Elkarteko kideak.



Astebeteren faltan, udalekuuekin gozatzan

Uztailaren 5ean hasi zituzten Eskoriatzako udaleku irekiak eta hilaren 22an amaituko dituzte. 150 haur ari dira parte hartzen aisialdi eskaintzan, eta orain arte egindakoen balorazio positiboa egiten dute Txirikilla Aisialdi Elkarteko koordinatzaileek

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Txirikilla Aisialdi Elkarteko koordinatutako udaleku irekiak uztailaren 5ean hasi zituzten Eskoriatzan, eta hilaren 22an amaituko dituzte, azken jaia-ekin. Koordinatzaile lanetan Ane Eraña eta Maialen Lete ari dira, hamazazpi begiraleren laguntzarekin, eta, guztira, 150 haur ari dira egunotan herriko aisialdi eskaintzaz disfrutatzen. Orain arte, herrian zehar ekintzak izan dituzte: sukaldaritza tailerra, irteera laburrak oinez zein bizikletan, Uraren Eguna...

Aurten, berrikuntzak

COVID-19aren garaitik hona zenbait aldaketa izan dituzte Eskoriatzako udaleku irekien programazioan. Batetik, galdaketa bat egin zuten udalekuen prestakuntza lanak hasi aurretik, eta, gurasoei hala adostuta, goizez bakarrik eskaintzen ari dira zerbitzua aurtengo edizioan. "Pandemian ezin izan genituen zenbait ekintza gauzatu: egun-pasak, mendira lo egitera joatea, egun osoko irteerak... Horiak berreskuratu ditugu, aurten. Gainera, berrikuntza gisa, Haur Hezkuntzako hirugarren mailako haurrei aukera ematen diegu 09:00etan hasteko udalekuak, eta Tortolis ludotekan egoten dira 10:00ak arte. Gero, taldea batu eta ekintzak hasten dira...", adierazi du Ane Erañak, Txirikilla Aisialdi Elkarteko koordinatzaileak.

Irteerak taldeetan banatuta

Udaleku irekien lehenengo astean eguraldi kaskarra izan zuten arren, astean eguzkia eta beroa izan dute bidelagun; beraz, batez ere, ur-jolasak egiteko aprobetxatu dute; hala ere, igerilekuetara ere joan dira, kaleko txoko ezberdinetan jolasak izan dituzte, eta irteeraren bat edo beste egiteko ere aprobe-



Udalekuetako haur taldea Gamarrako igerilekuetara egindako irteeran. ANE ERAÑA

txatu dute. "Landara, esaterako, urtero joaten gara, eta, oraindik joan ez garen arren, asmoa dugu joateko. Horrekin batera, urte askoan, Lehen Hezkuntzako haur guztiak Gamarrara joaten ziren, baina aurten aldatu egin dugu. Gopegira txikienak joan dira, Haur Hezkuntzakoak; LH-1 eta LH-2 mailetakoa, Araiako igerilekuetara; eta LHko hirugarren mailatik seigarren mailara bitartekoak Gamarrako igerilekuetara joan dira", adierazi du Erañak.

Aurrera begirakoak

Uztailaren 22ra arte, udaleku irekien azken egunera arte, ekintza mordoak dituzte aurretik prestatuta, baina azken jaiegutari begira ere badaude. Haurrek oso gustuko izaten duten eguna dela adierazi du Erañak, eta begiraleek ere disfrutatzen dutela dio: "Dantzaldia izango dugu

GAUR ZORTZI, UZTAILAK 22, AMAITUKO DITUZTE UDALEKUAK, AZKEN FESTAREKIN

Fernando Eskoriatza plazan, tonbola ederra ere antolatuko dugu, *begiraleari tiro* jokoa... Egun ederra izaten da eta udalekuak behar bezala amaitzeko hitzordua izaten da".

Aurten, berezitasun moduan, sanferminen bueltako entzierro-rik ez dutela egin ere gaineratu du Erañak. "Ohitura izan ohi da entzierroa antolatzea, eta erabaki genuen ez egitea. Hala ere, haurrek hala eskatuta, datorren urtean egitea aurreikus-ten dugu. Izan ere, udalekuetan egiten ditugun ekintza guztiak edo gehienak haurrekin batera adosten ditugu, eta, entzierroa egin ez dugunez, datorren urte- ra begira egiteko haur askoren eskaera jaso dugu. Beraz, gure artean hitz egin eta, seguruenik, datorren urtean sartuko dugu programazioan... Hala ere, oraindik geratzen zaizkigu egunak udalekuetan, ekintza ezberdin ugari ditugu, eta horietan ondo pasatuko dugu; gero, geroak. Hau da, egin ditugu ekintza guztiak aztertuko ditugu, udalekuen gaineko balorazioa egin, eta hobetu daitezkeenak jasoko ditugu, eskaintza hobetze alde- ra...", adierazi du Erañak.



Beroari aurre egiteko Santa Marinaran jarri duten sistema itzalita. I.BELOKI

Ur-lanbroa botatzen duen sistema, beroari aurre egiteko

Eguaztenean jarri zuten ureztatzeko sistema Santa Marinaran, eta gaur arte, behintzat, izango da martxan

I.B. ESKORIATZA

Bero sapa izan da aste honetan, eta asteburuaz gain, datorren asteko egunetarako ere hala iragarrita dago: temperatura altuak izatea eta ia 40 gradura iristea. Gainera, Euskal Meteorologia Agentziak bina abisu hori ezarri zituen eguazten eta eguenerako. Hori horrela, Santa Marina plazan ur-lanbroa botatzen duen sistema jarri zuten eguaztenen arratsaldean, eta, gaur arte, nahi izan duen orok freskatzeko eta jolasteko aukera izan du. Ur-lanbroa botatzen duen sistema hau ez da berria, kioskotik farol batera dago lotuta, eta, duela zenbait urte jarri zuten moduan, berreskuratzea erabaki du Eskoriatzako Udalak.

Agian, datorren astean

Eguaztenean zabaldu zuten ur-lanbroa botatzen duen sis-

tema, Santa Marina plazako kioskoan, eta sistema bera egunean ere izan zen martxan. Gaur, egubakoitza, ere jarriko dute, 17:30etik 19:30era bitartean, gainontzeko egunetan moduan.

Hori horrela, hiru egun haue- tan izaten duen harreraren eta esperientziaren arabera, ur-sis- tema erabiltzen jarraitzea ba- loratu egingo du Eskoriatzako Udalak, eta, egoki ikusten bada, datorren asterako funtziona- mendu-ordutegia ezarriko da.

Herritarrak animatu

Beroari aurre egin nahi dion edozeinek izango du freskatzera joateko aukera, eta, Eskoriatzako Udaletik adierazi dutenez, toallak eta aldatzeko arropa hartuta, Santa Marina plazara joatera animatzen ditu herri- rrak.

OHARRAK

Urrezko Axtrokien erakusketa

Uztailaren zehar, martitzenetan, 18:00etan euskaraz, eta 19:00etan, gazteleraz, eskainiko dituzte urrezko axtrokien erreplikak gaineko erakusketan, bisita gidatuak, Ibarraundin.

Eskoriatzako rallysprinta

Zapatuan egingo den auto lasterketarik, itxita egongo da errepidea zenbait tokitan. Batez ere, Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko auzo-bideetan.

Jaiak bukatuta, 'app'-a eguneratu behar da

ESKORIATZA app-an eguneraketa instalatu behar da, jaietako egitaraua ezabatu eta ohiko aplikazioko menua ikusteko.

Garcia eta Iregi, liderrak bikotekako crossfitean

Bikotekako crossfit txapelketan emaitza onak izaten ari dira Marta Garcia eta Elaitz Iregi eskoriatzarrak. Arrasaten egindako azken lehian, hirugarren postuan sailkatu ziren eta sailkapen orokorrean liderrak dira; hurrengo erronka Errioxan dute, urrian

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Marta Garciak bi urte daramatza crossfita praktikatzeko, eta, haren entrenamendua osatzeko ariketak indibidualki lantzen dituen arren, txapelketetan binaka eta taldeka ari da parte hartzen. Bikote gisa, harekin batera aritu da lehiatzen Elaitz Iregi eskoriatzarra, eta lau taldean egiten diren lehiaketetan, berriz, gimnasioko hainbat kirolariarekin hartu izan du parte.

Binakakoan liderrak

Banakako txapelketa iaz egin zuen lehenengo aldiz Garciak. Aurten, berriz, bikotekako saillean, Elaitz Iregiarekin aritu da, eta emaitza onak jaso dituzte. Arrasaten egindako azken lehiaketan, esaterako, hirugarren postua eskuratu zuen Iregiarekin batera, eta une honetan, urrian Errioxan izango duten txapelketa ari dira prestatzen. "Lehiaketak oso ondo daude, eta bikotekako kategorian sailkatu egin gara. Oraingoz, lehenengo postuan gaude... Hala ere, entrenamenduetan dago gakoa; eguenean eta domekatan izan ezik, egunero entrenatzen gara".

Askotariko txapelketak

Entrenamenduak gauzatzeko planifikazio pertsonalizatua

dute ezarrita crossfitean ari diren kirolari guztiek, eta hori jarraituz prestatzen dira. "Ariketak egiten ditugu, baina, batez ere, hiru mota nagusi ezberdindu daitezke. Batetik, ariketa kardiobaskularrak lantzen ditugu: korrika, bizikleta

DUELA BI URTE HASITA, EMAITZA ONAK LORTZEN ARI DIRA MARTA GARCIA ETA ELAITZ IREGI



Arrasaten bikoteka egindako txapelketan, hirugarren sariarekin. M.GARCIA

edo arrauna praktikatuta; bes-tetik, halterofilia ere ezinbestekoa da kirol honetan: pisuzko barra ezberdinekin orotariko ariketak egiten ditugu; eta, azkenik, arlo gimnastikoa ere lantzen dugu. Azken honetan, eskegita egin daitezkeen ariketak egiten ditugu, buruz behera mantentzea eta abar. Ariketa horiek egiteaz gainera, elikadura zaintzea ere ezinbestekoa da. Kasu honetan, oso zorrotzak dira zenbait lagun; gu, ordea, ez gara obsesionatzen...".

LEINTZ GATZAGA 23



Udalekuetan aritu diren haurrak udaletxe alboko askan sartuta. JONE AZKARGORTA

"Giro euskalduna" izan dutela azpimarratu dute begiraleek

Hilaren 4an hasita, programa betea jarraituz, gaur amaituko dituzte Leintz Gatzagako udalekuak

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Gaur, egubakoitza, amaituko dituzte Leintz Gatzagako udalekuak, eta begiraleek Gurel Guraso Elkartekoekin batera laster balorazioa egingo duten arren, egindakoekin pozik agertu dira Jone Azkargorta eta Garazi Barandiaran begiraleak. Azpimarratu dutenez, "talde bikaina" izan dute, eta orotariko ekintzeekin dibertitu diren arren, nekea ere nabari dutela diote.

Talde euskalduna

"Garaziren eta nire lehenengo urtea izan da begirale, eta esperientzia izugarria izan da. Zazpi neska-mutiko izan ditugu; gaztetxoak 4 urte ditu eta nagusiak, berriz, 9 urte. Oso talde ona izan dugula esan behar dugu, guztiak oso jatorrak, eta izan dugun giro euskalduna nabarmenduko nuke, egin ditugun ekintza ezberdinez


gainera", adierazi du Jone Azkargortak.

Orotariko ekintzak

Leintz Gatzagako Gurel Guraso Elkarteko kideek antolatzen dituzte herriko udalekuak, eta, haiek ezarritako ordutegiak eta irteera-egunak jarraituz, uztailaren 4tik 15era bitarteko plangintza bi begiraleek antolatu dute. "Irteerei dagokienez, Otxandioko Hontza Extrem abentura-parkera joan ginen, Landan ere izan gara, eta Hiruerreketan ere egin genuen ibilbide bat. Horrekin batera, sanferminetako entzierroa ere ospatu genuen, sukaldaritza tailerra izan dugu, eta aste honetan egin duen beroarekin ur-jolasak ere ez dira falta izan. Atzo, eguna, berriz, Dorleta Santutegira joan ginen gaua pasatzera eta gaur, berriz, udalekuei amaiera emango diegu".

Taldean indarrak probatzen

"Julen Zubizarretak, Asier Sanchezek, Oihana Rubiok eta laurok Torrelavegan hartu genuen parte taldekako crossfit txapelketan. Banaka eta binaka parte hartzea baino gehiago gustatu zitzaidan, baina zailagoa da, partaide guztiek batera joan behar dute eta. Ez ginen podiumera iritsi, baina lehenengo aldia izan zen, eta esperientzia izugarria".



Torrelavegako txapelketan lehiatzen. MARTA GARCIA

Gatz Museoko udako ordutegia gertu, gonbidapena eginez

Leintz Gatzagako Gatz Museoko ezarri du udako ordutegia, eta herritarrek animatu nahi dituzte oporraldian bertan duten altxorra ezagutzera. Batez ere, gatz egiteko prozesuaren eta produkzioaren gaineko azalpenak ematen dituzte bisita gidatuak, baina bestelako mendi martxaren bat edo bestelako eskaintza berri jakin nahi duen orok

Turismo Bulegoa ere bertan du galdetzeko.


Turismo Bulegoaren ordutegia eguenean eta egubakoitzetan 10:00etatik 14:00etara da eta eguaztenetan, zapatuetan, eta domeketan, berriz, 11:30etik 14:30era bitartekoa. Gatz Museoko bisita gidatuak, aldiz, eguaztenetik domekara bitartean egingo ditu Aitor Larrañagak, Gatz Museoko arduradunak. 12:00etan euskarazko bisitak izango dira eta 13:00etan gazte-lerakoak.



Jauregi barruan askotariko lanak ari dira egiten. BERGARAKO UDALA



Leiho batzuk apurtuta daude. B.U.



Jauregi barruko eskailerak. B.U.



Garbitu beharreko guneetako bat. B.U.



Martitzeneko bisitako herritarrek. B.U.

Udazkenerako egonkortu behar dute, etorkizunean kultura jauregia izateko

Jaurilaritzaren ondare izendapena duen Arrizuriaga jauregia egonkortzeko lanak urrian amaitzea aurreikusten dute; etorkizuneko erabilerari dagokionez, asteen egindako batzarraren ostean, Udal Gobernuak irailean egingo du hurrengo bilera irekia

Jokin Bereziartua BERGARA

Arrizuriaga jauregiaren etorkizuna zehazteko prozesuak urrats esanguratsua izan du asteen, martitzenean egin zen eta bilera irekia Arrizuriagan garatzen ari diren obren eta ekipamenduaren garapenerako prozesua azaltzeko. Udal Gobernuak *Bergara izan, bizi, ekin* planaren barruko egitasmo garrantzitsuen artean kokatzen du eta bi ardatz ditu esku artean: batetik, eraikina bera egonkortzea; eta, bestetik, jauregiari emango zaion erabilerari zehaztea. "Alegia, bertan garatuko diren jarduerak herritarrekin batera adostea".

EH Bilduk kultura arloko eraikina izatea nahi du: "Badaroga denbora tarte bat proiektuan eta egin beharreko prozesuan pentsatzen eta lanean. Arrizuriaga jauregiak kultura erabi-

lera izatea nahi dugu, zentzurik zabalenean. Herritarrek erabiliko duten gune bat izatea da helburua, herri mailan egon daitezkeen askotariko dinamiken gune izatea". Emakumeentzat espazio bat ere aurreikusi nahiko litzateke bertan: "Herriko emakumeekin eta emakume taldeekin batera adostuko dira gune horien helburuak, zereginak, dinamikak...".

Hurrengo bilera, irailean

Erabilera adostez gain, jauregiaren kudeaketa eredu ere aztertu nahi da herritarrekin

EGONKORTZE-LANAK URRI ERDIALDEAN AMAITUKO LIRATEKE; AURREKONTUA MILIOI ERDI PASATXOKOA DA

batera; eta horretarako, bilera gehiago egingo dituzte. Lehena irailean bigarren hamabostaldian egingo da, eta landuko diren gaiak espazioaren erabilera eta kudeaketa eredu izango dira. Martitzenean, prozesua hasi aurreko bilera bat egin zen kultura eragileekin. Bertan egindako ekarpenak eta zantzak jaso zituzten udal ordezkariak, eta iraileko bileran landuko dira. Jauregi bisita ere egin zuten bileran parte hartu zuten herritarretako batzuek.

Milioi erdi pasa egonkortzeko

Maiatz erdialdean hasi ziren eraikina egonkortzeko lanak, eta bost hilabetea amaitzea aurreikusten da. Eraikinak dituen ezaugarri bereziak direla-eta, Eusko Jaurilaritzaren ondare izendapena tartean, lanak baldintzatuta daude. Kanpoko

itxura, esaterako, ezingo da aldatu. Egonkortze lan hauen arduraduna Goitu Eraikuntzak SL enpresa da; obra 547.964 euroko aurrekontuarekin esleitu zen -BEZa barne-.

EAJren kezka

EAJk ere kultura arlorako *co-working* edo lankidetzarako gune izatea nahi du, eta, horretarako, lanketa abiatu zuen aurreko agintaldian: "Eraikinak hamai-ka erabilera izan ditzake, baina Arrizuriagak proiektu berritzaile baten kokaleku izan behar du, non herriko elkarteek kul-

tura, sormena eta berrikuntza landu ahal izango duten".

Hala ere, joan den asteen azaldu zuten jeltzaleek proiektuaren gainean duten kezka: "Lanketa bat egin behar dela adierazi dugu hainbat alditan, baina ez gaituzte kontuan hartzen. Hala ere, bilerak eta informazioa eskatzen jarraituko dugu, gure herriari zor diogulako eta lanean jarraitu nahi dugulako, baina EH Bilduren kudeaketa ereduak ez du batere errazten oposizioaren lan-jarduna; ez dute jarduna inposizioaz harago ulertzen. Udal Gobernuak ez du oposizioarekin lanketarik egin nahi, bilera bat adosteko edota adostutako egutegia aurrera eramateko zailtasunak dituzte. Argi dago, urduri daude, kudeatzeko izugarritzko zailtasunak dituzte, eta horrek oposizioarekin harreremana zailtzen du".



Arrizuriaga jauregia kanpotik, egonkortzeko lanak hasi eta gutxira. NEKANE MUÑOZ

HURRENGO BILERA IRAILEAN EGINGO DA HERRITARREKIN, ERAIKINA ZERTARAKO ERABILI ZEHAZTEKO

Amaiur: 500 urte geroago ere, asko dago argitzeke

Nabarraldeko gonbidatuta, Nafarroako Erresumaren inbasioaren gaineko hitzaldia egin zuen eguaztenean Iñaki Lopez de Luzuriagak; uztailaren 19an beteko dira 500 urte Gaztelak Nafarroaren azken gotorlekua izan zen Amaiurko gaztelua hartu zuela

Jokin Bereziartua BERGARA

Iñaki Lopez de Luzuriaga historia-idazlea Irizar jauregian izan zen eguazten arratsaldean, Nabarraldeko gonbidatuta. Orain gutxi kaleratu duen *Nafarroako Erresumaren inbasioa (1199-1200)* liburua oinarri hartuta, eguaztenean izan zen hitzaldia egiten: *Nafarroako konkistak. Euskaldunon zatiketa eta burujabetza-ren galera*. Liburuak "tonu entziklopedikoa" duela dio: "Ez da helburua istorio narratibo bat egitea. Lantzen dira garai hartako faktore geostrategikoak, Nafarroaren Erresuma barrukoak zein kanpokoak. Esaterako, gogoan izan behar da itsasotik aberastasun handia lortu zuela Nafarroak XII. mendean; pentsatu behar da Alexandrian-egungo Egipton- Nafarroako itsasontziak zeudela XII. mendean. Bada, Gaztelaren inbasioarekin itsasoaren zati garrantzitsu bat galdu zuen Nafarroak".

500 urte Amaiur erori zela

Lopez de Luzuriagak hizpide izan zuen garaia hiru mende lehenagokoa izanik ere, akabera eman zion Nafarroako estatu burujabeari Pirinioez hegoalde-dera. Uztailaren 19an beteko dira-eta 500 urte Amaiurko gaztelua erori zenetik, 1522ko uztailaren 19an: "Nafarroan Pirinioetatik hegoalde-dera gertatu zen azken bataila izan zen. Espainiar indarrek sei edo zazpi egunez izan zuen setiatuta gaztelua. Desoreka izugarria izan zen erasotzaileen eta erasotuen artean. Gaztelako Karlos I.a erregeak, enperadorea ere bazenak, 5.000tik gora soldadu bidali zituen, horixe zen orduko armada espainiarra. Egan beharra dago, baina, tartean nafarrak eta beste euskaldun batzuk ere izan zirela; hau da, ez da bakarrik gaztelarrak etorri zirela Amaiur erasotzera; izan ere, bertako jauntxo askok Karlos I.ari laguntzea erabaki zute-



Iñaki Lopez de Luzuriagaren hitzaldia, Irizarren, eguazten arratsaldean. NABARRALDE

HILAREN 18AN MOZIOA LANDUKO DA, AMAIUR ERORI ZELA 500 URTE BETEKO DIREN EGUNAREN BEZPERAN

la. Horrez gain, agintari okupatzaileek eta euren kolaboratzaileek herritarrek gerrara behartu zituzten *appellitum* delakoa-ri [abizen deiari] erantzunez". Gaztelarentzat borrokatu ziren 5.000 soldadu horiei aurre egiteko kalkulatu zen da Amaiurko gaztelua defendatzen 150 edo gehienez 200 soldadu aritu zirela. "Hala ere, indar okupatzaileen buruzagien artean kezka baze- goen, aurkariak nafarrak zire- lako eta euren lurra eta ideiak defendatzeko prest zeudelako azkenera arte. Baina arma alde- tik oso eskas zeuden hornituta..."

Kontakizunaren garrantzia

1199-1200. urteetako okupazioa historiaren zati "aski ezezaguna" izateaz gain, historialariak dio orain arteko kontakizunaren hazia XVI. mendeko Frantziaren eta Nafarroaren kontrako borro-

kek jarri zutela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren forutasun apartaren narrazio bat garatzeko: "Foruen arabera, Gaztelari leialak izan zirela esan izan da eta horrekin batera XII. mendean Gipuzkoak, Bizkaiak eta Arabak bere kabuz erabaki zutela Gaztelaren alde jartzea. Guk diogu hori ez zela horrela izan, okupazio bortitza izan zela. Horrek ez du esan nahi Gaztelak ez zuen izan aliaturik; jauntxoak, bereziki". Elizaren papera ere estrategikoa izan zela dio: "1212ko Navas de Tolosako bataila da horren adibide garbia. Erabat polarizatu ziren gerra-posizioak eta posizio politikoak, erlijioa dela eta. Dena bihurtu zen kristauen alde ala kristauen kontra. Elizak indar militar feudalena eta indartsuena babestu zuen".

Erdi Arotik bi posizio zeudela dio: "Herrien posizioa edo posizio militarista. Nafarroako Erresumak nafarrak zirenak defendatzen zituen, Ebro ibaiaren iturbururaino bizi zirenak. Euskaldunak". Kontakizunaren garrantzia azpimarratu du: "Historia ezkutatze-ko askotariko interesak izan dira, eta ez bakarrik kanpotik. Gauza asko daude argitzeke".



Aritzeta abesbatzako kideak, 2019ko jaietako kontzertuaren ostean. ARITZETA

Banda eta Aritzeta dira Santa Marina jaietako plater nagusiak

Gaur hasi eta hilaren 18ra arte beste hainbat ekintza, batez ere Matxiategi eta Etxalar tabernen bueltan

J.B. BERGARA

Santa Marinako jaietako kitaldi gehienak Etxalar eta Matxiategi tabernetako plazaratxoetan izango dira. Gaur pintxo potea egingo dute, eta ondoren Dominguez mariatxia eta DJ Tilla egongo dira. Zapatuan, egun osoko egitaraua: ezkonduen eta ezkongabeen arteko futbol partidua (10:00) eta ondoren luntxa; parrillada alaitua (13:00); mus txapelketa (16:00); umeendako jolasak eta animazioa (17:00); billar, toka, bolo eta igel txapelketa erretiratuen etxean (18:30); poker partidak Matxiategi tabernan (23:00); eta DJ Tilla (23:00).

Zapatua, musika protagonista

Domekan musika izango da protagonista: txistulari bandaren kalejira 11:00etan, eta 11:30ean musika banda irtengo da kalejiran; 12:30ean bandak kontzertu berezia emango du udal pi-

lotalekuan (ikus 28. orria). Ondoren, Diablues eta Band Bluezifer taldearean kontzertua (13:30); paella-jana Matxiategin eta parrillada Etxalarren (14:30); apar festa (18:00); amaitzeko, DJ Tilla egongo da domekan ere.

Aritzeta abesbatza ere bueltan

Astelehenean, Santa Marina Eguna, jaietako klasiko bat den Aritzeta abesbatzaren kontzertua izango da Santa Marina elizan (20:00), meza nagusiaren ostean (19:00). Imanol Urzelaik zuzendutako taldeak sei pieza joko ditu. Hasteko, hiru kanta elizkoi interpretatuko dituzte: Luigi Mofinoren *O Sacrum Convivium*, Ola Gjeiloren *Ubi Caritas* eta C.V. Stanforden *Beati Quorum Via*. Emanaldiaren bigarren zatian beste hiru pieza joko dituzte: Ben Bramen *Smile*, Xabier Sarasolaren *Zure Boza* eta Esteban Tozziren *Estamos*.

**JARDUN
EUSKARA
ELKARTEKO
BATZAR
OROKORRA**



**EGUNA: 2022KO UZTAILAK 21 (OSTEGUNA)
LEKUA: IRIZAR JAUREGIA
ORDUA: 18:30**

"Nahiko nuke dendak kutsu bera mantentzea"

MARIJE BAÑOS-ANTIGUA XAMARTIN ARROPA DENDAKO JABEA

Apirileko azken egunean itxi zituen ateak herriko kirol arropen denda nagusiak, 29 urtean zabalik egon ostean. Orain, erreleboa topatu guran dabil arropa saltzailea

Hasier Larrea BERGARA

Ofizioa Bolintxo arropa dendan ikasi zuen Marije Baños-Antiguak 10 urteko epean, eta, ondoren, familia-negozioa ireki zuten alboan, Ibargarai hiribideko 20. zenbakian. "Toki onean" dago denda, eta, alokatu nahi duenak Korosti higiezin agentzian galde dezake.

Xamartin izena, zer dela eta?

Nire senarraren familia Xamartin baserrikoa denez eta bertan bizi garenez, dendari ere izen hori jarri genion.

Jubilatzeko adina iritsi al zaizu?

Bai; lehenago ere erretiratu nintekeen, baina gustuko nuen nire lana. Ez zitzaizkigun-eta bergararrak bakarrik etortzen, baita Antzuola, Elgeta, Aretxabaleta eta Arrasatekoak ere, esaterako. Ezagun ugari ditugu eta gurera etortzea aukeratzeko zuten.

Gogoko izango zituzten dendako jantziak.

Arropagatik esaten zuten ona eta polita zela, marka eta kalitate onekoak: Trango, Astore, Ternua, Chiruca, Merrell... Jendea gustatzen zaizkion markak dira. Orokorrean, kirol guztietako jantziak saldu izan ditugu: mendirako eta paseatzeko zapa-tila eta botak, txamarrak...

Gehiago saltzen da gaur egun?



Marije Baños-Antigua, Xamartin denda kanpoan. H.L.

"BEZERO UGARI IZAN DITUGU BETI, ETA ESKER ONEKOAK, BAI HERRIKOAK ETA BAITA BAILARAKOAK ERE"

Esango nuke baietz. Pandemiak ere eragin du gorakada, ondo saldu baikeuen orduan. Asko paseoa egiteko jantzi bila etorri izan zaigu.

Sektorearen etorkizuna osasuntsu dago, beraz.

Kirol arropen lehen baino aukera zabalagoa dago orain, eta horrek mesede egiten dio saltzaileari. Gu prest gaude negozioan jarraitzeko interesa duten gazteei gomendioak emateko, baina beste eskaintza batzuek ere zabalik dituzte ateak.

Orain online eran saltzea al da erronka?

Bai; guk beti saldu izan dugu dendan soilik, baina argi dago hori dela joera. Horrez gain, fakturak *Ticketbai* sistemarekin egiten ikasi beharra dago. Horrek ere eragin du erreleboa eskatzea.



Berdegunea aldatzen hasi dira

Astebeteko atzerapenarekin bada ere —segurtasun txosten bat berandu heldu zen—, astean ekin diote Agorrosingo belar naturala artifizialarekin aldatzeko lanei. Exekuzio-epea hiru hilabetekoa izanda, zelai berria urri amaieran erabilgarri egotea aurreikusten du Bergarako Udalak, baina tartean abuztua dagoela kontuan hartuta, luzatu egin daiteke epemuga.

Euskara ikasteko irailleko eskoletan izena eman daiteke

Irailan ikastaro trinko laburrak eskainiko ditu Bergarako Udal Euskaltegiak. "Urriko azterketa-deialdia prestatzeko ikastaro motzak izango dira, batez ere, azterketako idazmena lantzerantz bideratuak, eta irailaren 7tik 30era egingo dira", adierazi dute Bergarako Udaletik.

Ikastaroetako matrikulazioa zabalik egongo da uztailearen

20ra arte, hau da, datorren asteazkenera arte, eta 2021/22 ikasturtean B1, B2, C1 eta C2 mailak ikasten aritu direnek eman ahaliko dute izena.

Eskolak arratsaldeetan izango dira; C2 titulua lortzeko ikasten dabiltzanek astean bi aldiz jasoko dituzte eskolak, B1, B2 eta C1 mailak ikasten dabiltzanek, berriz, hiru aldiz. Informazioa Udal Euskaltegian eska daiteke, euskaltegia@bergara.eus helbidera idatzita edo 943 76 44 53 telefonora deituta.

OHARRAK

San Martin jaiak antolatze biler

Irailaren erdialdean ospatzen diren festak antolatze bilerak irekia deitu du Bergarako Udalak uztailearen 26rako, martitzena, 19:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Ardo-dastatze ikastaroa

Datorren martitzenean, hilak 19, ardoa behar bezala dastatzeko gakoak emango ditu Mikel Garaizabalek San Lorentzon, 19:00etan hasita. Plaza mugatuak egongo dira eta doako izen-ematea bergara.eus webgunean egin beharko da.

Familien harrera-sarea sortzeko saioa

Ehundu elkartearen hezkuntzako atalak eta Ndank Ndank erakundeak deituta, bilkura egingo dute hilaren 19an, martitzena, 18:30ean, Errotalden; hots, liburutegiko parkean.

'Egubakoitzak berreskuratzen' kontzertua

Denboraldiko azken zuzenkorako metal estiloko bi talde gonbidatu dituzte gaurko, ostirala, *Egubakoitzak berreskuratzen* taldeko antolatzaileek. Izan ere, Oñatiko Broken Legacy eta Urretxuko Brumadensa taldeek joko dute kartzela zaharrean, 22:30ean hasita. Sarrera 5 euro da.

Lilura dermoestetika zentroa, ixtear

Aurten erretiroa hartuko duen hirugarren sektoreko beste langile bat izango da Guadalupe Garcia, Lilura dermoestetika zentroko arduraduna. Uztailearen 28an artatuko ditu azala edertzera doazen bezeroak azken aldiz, eta hurrengo egunean ospatuko du agur-egun berezia lankideekin batera. "Oso eskertuta" dago 42 urtean —Lilura 35— alboan izan dituen

denekin, "fideltasuna" erakutsi baitiote: "Depilazio laserra egiten lehen zentroetako izan zen Lilura, eta azken urteotan zerbitzu hori eman genien seme-alabak etorri izan zaizkigu tratamendu bera jasotzeko", adierazi du Garcia.

Bada lau hamarkadatan aldatu ez den zerbitzu, haren esanetan: "Sentsibilitatea ez dugu galdu, beti lehenetsi

baitugu bezeroaren erosotasuna".

Haren jabegokoa den pisua dermoestetika zentro bilakatu zuen, eta orain, etxebizitza bezala saltzeko asmoa dauka: "Penaz nago, baina pozik eta zoriontsu, urte ederrak izan direlako". Hori bai, mezu bat utzi du bizkor artatuak izan nahi dutenendako: "Kanpotik eder egoteko, barrutik egin behar da lanketa lehenengo; ez izan presarik horretarako".

Mikel Mujika, euskaldun azkarrena Gasteizen

Bergarakoa hamabigarrena izan zen domekan egin zuten Gasteizko Ironman proban —profesional ez direnen artean bigarren— eta nota onarekin gainditu zuen urrian egingo duen Hawaiiko Ironman probarako testa. 8 ordu eta 27 minutu

Xabier Urtzelai bergara

Badirudi baietz, Mikel Mujikak 2019tik daukan ametsa urrian gauzatu ahal izango duela. Izan ere, Bergarako triatleta duela hiru urte sailkatu zen, Frantzia egindako lasterketan, munduko ironman proba ezagunerako; alegia, Hawaiirako. Baina pandemia tarteko hainbatetan atzeratu dute proba, eta, dena ondo bidean, urriaren 8an irteera puntuan egongo da.

Hiru urte hauek ez ditu, baina, alferrik galdu. 2019koa baino askoz ere triatleta osoagoa da Mujika, eta domekan erakutsi zuen hori, Gasteizko Ironman proban: "Entrenatzailearekin denboraldia prestatu nuenean adostu genuen Gasteizkoa lasterketa egokia zela denboraldiko lehenengo sasoi puntua hartzeko, eta urrira begira test modura hartu genuen lasterketa. Hala, hitzordura fresko iristeko bestetan baino lasterketa gutxiago egin ditut aurtien —Alusigma Peña Dental taldearekin Espainiako txapeldun izan da— eta domekan oso-oso gustura ibili nintzen".

Profesional asko baino hobeto

Bergarakoa lasterketako oilarrekin ibili zen borrokan, eta ez bakarrik profesional ez diren multzokoekin: "Igeriketako tartetik konturatu nintzen gorputza ondo erantzuten ari zitzaidala, tarte guztietan egin nituen aurreikusitakoak baino denbora hobeak [53 minutu igeri, 4 ordu eta 29 minutu bizikletan eta maratokia 2 ordu eta 58 minututan, guztira 8 ordu eta 27 minutu], eta nire lasterketan kontzentratu nintzen; bereziki, ondo jaten eta ondo edaten". Izan ere, domekan bero itogarria egin zuen Gasteizen. "Bereziki, korrikako tartean sufritu genuen gehien; 14:00 aldera hasi nintzen korrika eta sekulako beroa egin zuen. Oso garrantzitsua izan

URRIAN HAWAIIN EGINGO DUEN IRONMANERAKO TEST EGOKIA IZAN DA GASTEIZKOA

zen ondo hidratatzea, baina ibilbidean zehar jaso nituen animo guztiek izugarri lagundu zidaten, ez dago etxe ondoan lehiatzea modukorik".

Hala, helmugara sartzera zihonean esatari lanetan zebilen Aitor Elduaiek nabarmendu zuen Mujika zela lehen euskalduna, eta Bergarakoari oilo-ipurdia jarri zitzaion bere burua pantaila erraldoian ikusi zenean. "Peru Alfaro moduko triatleta profesionalen aurretik helmugaratu izana sorpresa izan da niretako, maila honetan jarraitzea animatzen nau eta datozen hilabeteetarako motibazio iturri handia da Gasteizen lortutako emaitza. Izan ere, irakasle lanetan azken hilabetea ez da erraza izan, ebaluazioetan ibili garelako buru-belarri, eta, nahiz eta jakin etxerako lanak eginda nituela, estresak jota

ibili naiz. Orain, berriz, bi hilabete ditut aurretik, lehenengo ondo errekuaratu eta gero Hawaiiko hitzordua ondo prestatzeko".

"Zaletasuna da, ez lanbidea"

Gasteizko emaitzarekin bat baino gehiago harritu egin da Mujikak irakasle lan egiten duela jakinda. "Aurrekoan brometan esan zidan batek ze ondo bizi garen triatletak, eta erantzun nion irakasle egiten nuela lan. Eta nahiago dut horrela. Profesional dabilzanak badaude, baina gutxi batzuk bizi dira ondo, eta nik, berriz, gustuko dut nire lanbidea. Triatloia zaletasuna da. Egia da zaletasun honi denbora eta baliabide asko eskaintzen dizkiodala, seriotasunez hartzen dudala, baina, oraingo, gustura nabil eta halaxe jarraitzeko asmoa dut". Beste kontu bat da emaitza onak lortzeko presio barik triatleta lizentzia profesionala ateratzea. "Oraingo, ezin dut halakorik egin, urrian ezingo nukeelako Hawaiin parte hartu. Handik bueltan erabakiko dugu zer egin". Oraingo, udan gogor entrenatzea tokatzen da.



Mikel Mujika, domekan, bizikletako tartean. ©EDUBORROWSPORT



GOTZON ARANGUREN

'Mussara 24H' proban irabazle

Kataluniako Zirkuituan jokatu zuten asteburuan *Mussara 24H* txirrindularitza lasterketa. Eta Mikel Aristegik, Ibon Mujikak, Aritz Aranguren eta Gotzon Aranguren osatu zuten laukoteak irabazi du T4 modalitatean. Horrekin batera, 95 talde parte-hartzaileen arteko itzuli azkarrenarekin egin dute etxerako bidaia (6.28).



©MOMENTODEPORTE

Calbanok brontzea Espainiakoan

Granollersen jokatu dituzte Espainiako 23 urtez azpiko txapelketak, eta 200 metroko lasterketan Andoni Calbano bergararrak brontzea irabazi du. Real Sociedad taldeko atletak 21.09ko denbora egin zuen. Hilabetean irabazten duen bigarren domina da hau, ekainaren 27an egindako Espainiako txapelketa absolutuan ere brontzea irabazi zuen-eta, taldeka.

Maria Sanchez hirugarrena izan da Marimurumendin

Asteburuan jokatu zituzten, Beasainen hasita, Ehun Miliak, Goierriko Bi Haundiak eta Marimurumendi mendi lasterketak, eta azken horretako podiumera igo zen Hankaluze Trail taldeko Maria Sanchez. Bergarakoak mendi maratokia bost ordu eta hiru minutuko denbora egin zuen; bi minutura izan zuen bigarren sailkatu Cristina Fargas.



Sanchez, taldekideekin. HANKALUZE TRAIL



Alfredo Gonzalez Chirlaque eta Jose Mari Arrondo, Boluko zelaia zenaren lekuan. I.A.A.

Arrondoren nahia pentagramaman islatu du Gonzalez Chirlaquek

Boluari eskainitako martxa sortzeko proposamena egin zion Jose Mari Arrondok Alfredo Gonzalez Chirlaqueri, eta hark 'Boluko zelaia' konposatu du; Santa Marina jaietan estreinatuko du Bergarako Musika Bandak, zuzendari ohiaren gidaritzapean

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Bergarako Musika Bandan arrastoa utzi duten bi gizon dira Alfredo Gonzalez Chirlaque eta Jose Mari Arrondo. Batak berrogeita hamalau urte egin ditu bandan, horietako hogeita hamahiru zuzendari; besteak, berriaz, guztira, hirurogei urte eman ditu tronpa jotzen, eta hogeita hamabost urtez talde bateko bateria-jotzailea ere izan da. Gonzalez Chirlaquek honela dio: "9 urterekin bandan sartu nintzenean, Arrondo bazegoen, eta nirekin batera erretiratu da. Nire bidelaguna izan da".

Dena den, musika zaletasunak lotzen baditu ere, ez da amankomunean duten gauza bakarra, Bolua auzoak bientzat esanahi berezia baitu. Arrondoren proposamenetik sortu du zuzendari ohiak domekan Santa Marinako festetako kontzertuan es-

treinatuko den *Boluko zelaia* martxa (ikus 25. orria).

Proposamenetik errealtatera "Betidanik izan gara lagunak, eta zerbait falta zitzaidan. Behar nuen hori Boluari eskainitako pieza bat zen", dio Arrondok. Hogeita hamabost urte daramatza bertan bizitzen. Gainera, auzoko Santa Ana festen sortzaileetako bat dela aitortu du.

Gonzalez Chirlaqueri egin zion martxa sortzeko proposamena, eta hark "maitasun handiz" hartu zuen eskaera, beraren haurtzaroko jolasleku izan baitzen

"HAURTZAROAN ASKO JOLASTEN GINEN BOLUAN; OROITZAPEN POLITAK DITUT"

ALFREDO GONZALEZ CHIRLAQUE

Bolua: "Asko jolasten ginen Boluko errekan, gaur egun Aranerreka den horretan. Urte haietako oroitzapen politikak ditut". Bolua auzoari eta bere bidelagunari eskaini dio pieza. Horregatik, Arrondok aurreratu du txupinazoarekin eta martxarekin hasiko direla aurtengo Santa Ana festak.

Aurkezpena, domekan

Santa Marinako jaien barruan kontzertua eskainiko du Bergarako Musika Bandak Udal Pilotalekuan, domekan, 12:30ean. Ordubete lehenago, ordea, kalejira egingo du. *Boluko zelaia* martxarekin emango zaio hasiera frontoiko ekitaldiari, eta Gonzalez Chirlaquek zuzenduko du banda aurreneko abesti horretan. Horren ostean etorriko dira *Euskeria*, *How to train your dragon*, *Algona Overture*, *Soca*

Boluaren iragana eta oraina jasota

Hainbat zatitan dago banatuta *Boluko zelaia* martxa. Sarrerak Boluko erreka Santa Ana parkea gurutzatzen deskribatzen du, ermita eta Errotalde jauregiaren ondotik. Ondoren, bi zati datozela aurreratu du Gonzalez Chirlaquek: "Lehen zatian biribilketa bat entzuten da, eta Santa Anako festetako giro hori antzematen da. Bigarren zatian, Boluko zelaian zentratu naiz. Pare lasaia da eta garai hartako Boluko zelaia islatzen du". "Indartsu" amaitzen da pieza, gaur egungo auzoko egoerari erreparatzen dio. Haurtzaroan Bolun igarotako oroitzapen politikak ditu zuzendari ohiak: "Uste dut nire belaualdiko herritarrok asko baloratzen dugula paraje hartaz gozatu izana. Garrantzia ematen diot ibaiak eta halako inguruak zaintzeari, gaur egungo haur nahiz gazteek horietaz gozatu dezaten, guk egin genuen bezala".



Azken notak eta eskaintza. I.A.A.

nahiz *Daft punk medley* abestiak eta Enrike Txurrukak hartuko du batuta. Eskerrak eman nahi izan dizkio zuzendari ohiak Txurrukari eman dion laguntza guztiagatik.

Domekara begira, hunkituta agertu da Gonzalez Chirlaque: "Ilusioa egiten dit banda berriz zuzentzeak. Entseuetara itzuli naiz. Oso pozik nago Bergarako Musika Bandarekin estreinatuko dudalako nire lana. Hala ere, nire ilusioa izango litzateke Jose Mari nire ondoan jotzen egotea, baina ez da posible". Dena den, frontoian izango dela baieztatu du Arrondok.

Bertaratzen direnekin batera entzungo du aurreneko Arrondok berak eskatutako pieza: "Alde batetik, sorpresa izango da, baina, bestetik, ez. Oso ondo eza gutzen dit Alfredo, eta badakit nondik joango den. Bestetik, nire semeak ere bandan jotzen du, eta entseuetan izan da, noski. Hala ere, ez dit ezer kontatu. Ez dut jakin nahi izan".

Etorkizunera begira

Banda utzita badago ere, Arrondok odolean darama musika, eta hitz bakarrak deskribatzen du haren zaletasuna: "Bizitza".

"BOLUA AUZOARI ESKAINITAKO PIEZA FALTA ZITZ Aidan; ORAIN, BADU"

JOSE MARI ARRONDO

Nahia errealtate bihurtuta, orain, beste helburu bat du etorkizunera begira. "Orain posible da eta bandako bazkide egin behar dugu", adierazi dio Arrondok lagunari.

Banda, Antzuolako jaietan

Asteburu biribila izango da Bergarako Musika Bandarentzat. Domekan herriko Santa Marina jaietan parte hartzeaz gain, Antzuolako festetan eskainiko du emanaldia zapatuan. Urtero egiten duten kontzertua berreskuratuko dutela azaldu du Enrike Txurruka zuzendariak. 11:30ean izango da kalejira, eta, ordubete geroago, 12:30ean, izango da kontzertua Zurrategiko kioskoan.

Antzuolako Arrola mendi taldeak berrogeita hamar urte bete ditu aurtten, eta ekanean aurkeztu zuten Alborada txistulari taldeak eta herriko abesbatzak Jose Ramon Vitoria arrasatearrak konposatutako *Arrola* ereserkia. Oraingoan, Bergarako Musika Banda gehituko zaie. Hori izango da kontzertuan joko duten aurreneko pieza. Txurrukak gaineratu du martxa Jose Inazio Jauregi *Barberito*-ri eskainia dela, bereziki, hura izan baitzen Arrola mendi taldeko txistulari taldearen sortzaile eta bultzatzaile.

Domekako kontzertuko erreperitorio bera izango da, emanaldi hasierako kantua kenduta; *Arrola* musikatuko dute *Boluko zelaia*-ren ordeaz.



DEBAGOIENeko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, beheak / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, beheak / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Oñalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, beheak / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, beheak / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iratibarra 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, beheak
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, beheak / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, beheak esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11



Iker Gartzia Goizperreko presidentea eta Aitor Azkarate kontseilu errektoreko kidea alkatearen albo banatan. H.L.

Hiru proiektu babesteko hitzarmena sinatu dute

Eguazten goizean sinatu zuten Goizperrek eta Udalak hiru proiektu diruz laguntzeko hitzarmena. Hala, 165.000 euro bideratuko dira eskola berriko eraikineko megafonia sistema instalatzeko, Eztalako argiteria aldatzeko eta frontoi txikia estaltzeko

Maidar Arregi ANTZUOLA

Goizperrek Antzuolako Udalaren hiru proiektu babesteko ditu diruz eta horretarako 165.000 euro jarriko ditu kooperatibak. Herri Eskolako eraikin berriko megafonia sistema instalatzeko, Eztalako argiteria aldatzeko eta frontoi txikia estaltzeko erabiliko da dirua, hurrenez hurren. Udal ordezkariak herriko eragileekin duten harremanaren isla dela adierazi du Beñardo Kortabarria alkateak. "Udal moduan, herri-tarrek eta eragileekin lan egitea tokatzen da; baita enpresekin ere", azaldu du.

Hitzarmen horri esker, gainera, Udalak frontoi txikian bakarrik inbertitu beharko du, eta

soilik %5 inguru. Hartara, pozik azaldu du Kortabarria, kooperatibek hobari fiskalak izatearren etekin zati bat ekintza sozialerara bideratu behar dutela jakin arren, dirua herrian uztea erabaki dutelako Goizperreko arduradunek. "Eskertzekoa da irabazien parte bat herrian bertan inbertitzea".

Urtea amaitzerako dena "prest"

Iraileko amaitu nahi dituzte eskolako eta Eztalako lanak, eta abendurako frontoi txikikoak. "Obra zibilaren parte eginda dago, eta alde elektrikoa lizitatu dago; dena ondo bidean, irailean eginda egongo dira lanak".

Udal pilotalekuari itsatsita dagoen frontoi txikia estaltzeko ideia aspalditik izan dute mahai gainean, gazteek asko erabiltzen baitute. Hala, urte amaierarako, euripean beharrean, estalpean jokatu ahalko dute gazteek pilota partiduak.

Proiektu gehiago

Aurten Goizperrek herriko beste proiektu batzuk ere babestu ditu; hala nola, *pump-track* eta tirolina parkea, egurrezko arrapala, rokodromoa eta Sagasti auzoko haur parkea. Olanen Etxeko obretan ere inbertitu zuen, herriko Matz-Erreka, Elay eta Oerlikon enpresek egin zuten bezala.



GOIENA

Beste lur-jausi bat trenbidean

Trenbide zaharreko Bide Berdean, Galartza inguruan, lur-jausia gertatu zen aurreko astean. "Nahiko lur-jausi potoloa da, eta Udalak jakinarazi dio jada Diputazioari zein den egoera", azaldu du bertan izan den Ainhoa Calonge aguazilak. Ildo beretik, Kortabarria alkateak dio "argazkien eta arazoaren berri" eman dutela, baina "ez dutela berririk jaso".



ARANTZAZU EZKIBEL

Erretiratuen bazkaria, indartuta

Bi urteko etenaldiaren ostean, 100 lagun inguru batu ziren erretiratuen bazkariak gozatzeko. "Giro polita izan dugu bazkarian, eta bazkalondoren dantzaldia egin dugu", azaldu du Landatxope elkartearen presidentea Joxe Angel Arbuluk. Aurten, gainera, bazkari zaharren omenaldia Maritxu Mondragoni eta Asentzio Azkarateri egin diete.



ANTZUOLAKO JAIK

'JAIK' SAIO BEREZIA

UZTAILAREN 19AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

goiena
Zu hemen zaude.



ANTZUOLAKO JAIK 2022



Udalekuetako neska-mutikok eman diete jaiei hasiera. IÑIGO BARRENA

Hasi dira "elkar zaintzeko, gozatzeko eta gozarazteko" jaiak

Gogotsu eta giro ezin hobean hasi dituzte antzuolarrek herriko jai nagusiak. Herriko gaztetxoek atzo eguerdian eman zieten hasiera jaiei. Arratsaldean, udalbatzaren aurrekuak eta ikurrinaren igotze ekitaldiak eman zioten jarraipena festari

Maidar Arregi ANTZUOLA

Egin dute eztanda Antzuolako jaiak, eta denon gustuko ekin-tzak jasotzen dituen egitarauaz gozatzeko aukera dute datozen lau egunetan antzuolarrek.

Atzo eguerdian, ohi moduan, udalekuetako neska-mutikok eman zieten hasiera "oso beroak" aurreikusten diren jaiei. Seigarren mailako bi neskak eta bi mutilek egin zuten pregoia eta "jaietan ondo pasatzeko eta neska zein mutilen arteko berdintasunari garrantzia emateko" eskatu zuten.

Ondoren, Pausokak antolatuta, 180 umek bazkaria egin zuten eskolako patioan, jaiei behar den moduko hasiera emateko eta indarrak batzeko.

"Espero dugu urtero izaten diren modukoak izatea eta ondo joatea; aurrekontua zertxobait handiagoa izan arren, Jai Ba-

tzordean parte hartu dutenek beste urte batzuetan kaleratutako jai egitarauaren antzekoa prestatu dute; baina egia da beti oso ondo funtzionatu duela egitarau horrek, eta aurtun ere halaxe izatea espero dugu", aitortu du Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak.

Jai parte-hartzaileen alde egin du alkateak, eta elkar zaintzeko, gozatzeko eta gozarazteko gomendioa ere egin die herritarrei.

Nabarmendu behar da Kortabarriak azkenengoz egingo duela udalbatzaren aurrekuak aurtun, datorren urteko ekai-

nean ez baita udal hauteskundeetara aurkeztuko.

Aparkatzeko oharrak

Ibilgailuek ezingo dute aparkatu uztailaren 19ra arte Herriko Plazan, eskola aurrealdean eta Sagasti 1 ataritik frontoi osterainoko tartean. Gainera, kalea zirkulazioari itxita egongo da jaiek dirauten egun guztietan: Kalebarren 17tik -zubia barne- Buztinzuri 15eraino eta Sagasti 1etik frontoi osteraino.

Barrakak

Barraken bidaiaren prezioa bi eurokoa da; sei bidaiak, aldiz, 10 euro. Domekan, Umeen Eguna, bidaiako 1,30 euro izango da. Ordutegiari dagokionez, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 01:00etara. Egunero ordu batez ez da musika egongo: 17:00-18:00.

UDALEKUETAKO 160 NESKA-MUTIKOK "ILUSIOZ" EMAN DIETE HASIERA HERRIKO JAIK

Antzuolako jaien egitaraua

Gaurtik domekara bitartean izango dute antzuolarrek zerekin gozatu. Jarraian, Antzuolako Udalak eta Txosna Batzordeak antolatutako jai egitaraua:

Uztailak 15, egubakoitza

- **10:00** Alboradak txistularien goiz-eresia.
- **11:00** Gastronomía lehiaketa Kalebarrenen.
- **13:00** Gastronomía lehiaketako sari banaketa.
- **13:15** Dastaketa Kalebarrenen.
- **14:30** Herri bazkaria Kalebarrenen.
- **16:30-18:30** Umeen jolas parkea patioan eta plazan.
- **18:00** Kuadrilla jokoak.
- **22:00** Amak taldea plazan.
- **22:30** Inguma, Rebel Noise eta Maixa Ta Malakias txosnan.
- **00:00** Bada Giro erromeria.

Uztailak 16, zapatua

- **09:55** Kanoiak sutzea; ondoren, txistularien goiz-eresia.
- **11:00** Mahai-jolasak Jolasenearekin.
- **11:30** Bergarako bandaren kalejira.
- **12:00** *Kantu kolore* ikuskizuna umeendako.
- **12:30** Bergarako bandaren kontzertua.
- **13:30** Ur zezena.
- **19:00** Antzuolako Alardea.
- **20:30** Elektrotxufila elektrotxaranga.
- **22:45** Joselu Anaiak plazan.
- **23:00** Kontzertuak txosnagunean: Berandu Baina Lehen, La Rekba, Txakurak eta Altxa Porru.

Uztailak 17, domeka

- **07:00** Gotz elektrotxaranga txosnagunean.
- **12:00** Salda eta txorizoa Landatxoperen eskutik.
- **12:30** Voces de Navarra taldearen saioa plazan.
- **14:30** Herri bazkaria eta Inguma Dantza Plaza taldea. *Ez dot moztuko bizarrak* antolatuta, plazan.
- **17:00** Kale antzerkia: Txus&Txu.
- **18:30** Orekatu oreka eskolaren *slackline* ikuskizuna.
- **20:00** Larrain dantza.
- **21:00-22:00** eta **23:00-00:00** Erromeria Alaiki taldearekin.
- **00:00** Hontzaren igoera.
- **00:15-01:00** Erromeria Alaiki taldearekin.

Uztailak 23, zapatua

- Erreka garbitzea auzo lanean; ondoren, hamaiketakoa.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Morauren eta Beñardoren kantaldia gaur Ozkarbin

Bi hilabete eskas dira 'Ardo' disko-liburuak argia ikusi zuela. Ardozaleak dira hiru egileak eta 'ardofakto' bat egin dutela diote. Gaur azalduko dute zertaz ari diren, Ozkarbin. Bueltan dira, beraz, Ozkarbiren eta Goibekoren formatu hurbileko kontzertuak

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Andoni Tolosa *Morau-k*, Beñardo Goietxe eta Iñaki Martiarena *Mattin*-ek ondutako disko-liburua da *Ardo*. Poesia, musika eta ilustrazioa batzen ditu eta *ardofakto* moduan izendatu dute. "Izena *Ardo* bada ere, gaia ez da ardoa. Gu ardozaleak gara, baina *Ardo* ez da ardoaren apologia bat. *Ardo*-rekin ari gara ardoa egiten dutenez, bizi dutenez, ardoaz bizi direnez... Pertsonen buruz ari gara", dio Morauk.

Ikus-entzuleek Morauren eta Beñardoren umorea, samurtasuna eta folk-pop musika aurkituko dituzte gaur Ozkarbi elkartearen, eta baita ardoarekin lotutako hainbat kontu eta komeria ere.

Gai unibertsala

"Gai unibertsala eta emankorra da ardoa. Ardoari kantatu diote artista, poeta, musikari, margolari eta zinemagile askok kultura eta garai guztietan. Idazten hasi nintzenean konturatu nintzen zergatik", azaldu du Morauk. "Hamaika mila alde ditu eta jendaurreko emanaldiak egiteko ere askotariko aukerak ematen ditu. Egin ditugu kantaldiak, ardo dastaketa musikatuak, emanaldiak bodegetan, kantu-poteoren bat ere bai... Paleta asko



Andoni Tolosa 'Morau' eta Beñardo Goietxe, Hernaniko Rufino tabernan. 'MORAU.EUS'

19:00ETAN HASIKO DA 'ARDO' DISKO-LIBURUAREN AURKEZPENA; BOST EURO DA SARRERA

zabaltzen da eta guztietan harrrera oso ona jaso dugu", azpimarratzen du.

Kantu erritmikoak eta alaiak

Morau eta Beñardo ezagutzen dituztenek badakite estilo propioa

dutela, eta umoretik asko. Folk eta pop doinuekin izango dira Elgetan, eta gertuko formatuan: bi gitara eta bi ahots. "Elgetako kontzertua berezia izango da. Jendea hain hurbil edukitzeak aukera handiak ematen ditu, eta, elkarte batean izanda, egongo dira sorpresak. Elgetan sarri egondakoa naiz; jo izan dut gaztetxean eta Espaloian ere bai. Ozkarbi elkartearen ez dut ezagutzen, baina argazkiak ikusi ditut eta txoko oso polita dute. Desiratzen nago. Elgetan jo izan dudanean beti izan da giro aparta".

Bederatzi inbertsio berri, 2021eko gerakinak ahalbidetuta

Udalak 350.588 euroko gerakinarekin itxi zuen 2021a; 265.650 euro zertara bideratu erabaki du udalbatzak

L.Z.L. ELGETA

Ekainean egindako osoko bilkuran, 2021eko diruzaintza gerakineko 265.650 euro zertara bideratu onartu zuen udalbatzak. Alde batetik, aurrekontuak jasotako hiru proiektu indartuko dira: *pump track* gunea egokitzeko aurreikusita zeuden 3.493,35 euroei 45.000 gehitu zaizkie, baserritarren batzordeko inbertsioetarako zeuden 15.000 euroei 40.000 gehitu zaizkie eta skate parke berria egiteko zeuden 15.000 euroei 20.000 gehitu zaizkie.

Horrez gainera, bederatzi diru-lerro berri sortuko dira: Domingo Iturbeko argiteriarako 45.000 euro, Maalako urak bideratzera 40.000 euro, Espaloiko argiteria berritzeko 10.000 euro, komunitate energetikoaren sorrera lanetarako 10.000 euro, jolasparkeetako lurra aldatzeko 10.000, eskolako lanak egiteko 10.000 euro, Asentzion hobekuntzak egiteko 8.000 euro, kultura etxeko galdara aldatzeko 8.000 euro eta *DG aukera energetiko-ikastetxe klik* programarako 4.150 euro.



JOSE ANTONIO OJANGUREN

Erretiratuen txangoa kostaldera

Xalbadorpe elkarteak antolatuta, Jaizkibel inguruan ibili ziren hilaren 6an Elgetako hainbat erretiratu. Argazkian ikusten denez, Hondarribiko Higer itsasargian egin zuten eguneko geldialdietako bat. Eguraldia ez zutela lagun izan esan dute, baina egun osoko txangoa egin zuten. Aterpean egindakoak ondo joan ziren.

Udalekuetako umeek agurreko jaialdia egingo dute barikuan

Astelehenean hasiko da udako aisialdiko laugarren eta azken astea. Askotariko ekintzak egin dituzte egun horietan guztietan, eta gehienak aire zabalean. Herriko jaiak prestatzea izan zen lehen egunetako zeregina, eta amaieran ere udalekuetako agurreko jaiak prestatuko dute. Barrikurako iragarri dute eta etxeak ere gonbidatuta daude.

OHARRAK

Irteera domekan

Mendi taldeak antolatuta, Pagoetara izango da irteera.

Podologoa

Astelehenean izango da kontsulta. Txanda hartzeko, deitu 669 99 81 65 telefonora.

Jaien balorazioa

Jaien balorazioa egiteko batzar irekia hilaren 19an, 18:30ean, udaletxean.

Bueltan dira gertuko formatuko emanaldiak

Kultura ekintzak antolatzeko ekin zioten elkarlanari Ozkarbi elkarteak eta Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak 2019an. Urte hartan lau emanaldi izan ziren: Andoni Ollokiegi, Tonky de la Peña eta Paul San Martin, Jon Basaguren eta Mikel Urdangarin. Pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, *Morau* eta Beñardo izango dira hurrengoak.



Herritarrak, Ozkarbin, 2019ko kontzertuetako bat entzuten. GOIENA



Ugari dendako Bea Bouzas eguazten goizean, bertan daukan ogi eskaintza apaletan jarri berri. A.T.

Ogi mota ugari ditu salgai

Duela hamabost urte hartu zuen Ugari dendaren ardura Bea Bouzas elgetarrak, eta ordutik asko aldatu da bertako ogi eskaintza. Gaur egun, egunero 25 ogi klase izaten ditu aukeran eta bezeroek eskertzen dute eskaintza hori herrian bertan izatea

Amaia Txintxurreta Guridi ELGETA
Ogi-barra normalak kontuan hartu gabe, hogeita bost ogi desberdinen eskaintza izaten du egunero Bea Bouzas elgetarrak Ugari dendan. Bertan frutak, berdurak, jogurtak, bestelako askotariko jakiak, etxerako produktuak eta egunerokoan behar izaten diren hainbat gauza saltzen ditu, baina azken urteetan gorakada itzela izan du hainbat ogi klaseren eskaintzak.

25 ogi klase egunero

Duela hamabost urte hartu zuen negozioa Bouzasek eta hasieran bi obradorekin egiten zuen lan. "Ogiei dagokienez, hau hartu nuenean Arrasateko batzuen eta hemengo Altube baserrikoen ogiak saltzen nituen. Altubekoak gero erretiratu egin ziren", dio. Eta poliki-poliki beste batzuk gehitzen joan di-

rela gaineratu du: "Gero, Atxondokoak etorri zitzaizkidan galdetza ea eurenak ere salduko nituen. Pandemia pasatzen zegoela, Panarra obradorekoa ere etorri zitzaidan galdetzen ea ekarri ahal zituen ogiak, eta baietz esan nion; aukera eman nien eta horrela hasi ginen. Aste Santuan Bergarako Mizpildikoek erretiroa hartu zuten eta Eibarko Zubizarretakoak etorri zitzaizkidan esaten ea Mizpildiko lekua utziko nien, eta haiei ere probatzeko esan nien, eta pozik daude". Nahiz eta aitortu duen oraindik ez

**ELGETAN OGI ASKO
JATEN DELA DIO
BOUZASEK ETA POZIK
DAGO DAUKAN
ESKANTZAREKIN**

duela lortu ekartzea Bergarakoek egiten zuten moduko zopakorik.

Arrasateko Berogiko ogiak ere izaten ditu dendan; guztira, egunero ogiz betetako bost banasta inguru jasotzen ditu.

Eta askotariko eskaintza dauka: moldekoak, zuriak, integralak, espeltadunak, zerealeak, baserriko hainbat eratako ogiak –askotariko zerealdunak, zuriak, integralak, ogi biribilak, baserriko txikiak, bolloak..., txapatak, barra normalak, artisauenak, kandeala edo sobaoa, gailegoa, bastoia... Bouzasek dio bezero gehienek normalean ogi klase bera hartzen dutela egunero, nahiz eta badauden tarteka beste batzuk probatzen dituztenak ere. Eta eguaztenean, esaterako, 35 zeuzkan enkargatuta.

Domeketan hartzen du atseden, eta, horregatik, zapatueta be-

reziki baserriko opilak saltzen dituela dio, hala bezeroek hobeto kontserbatzen den ogia izan dezaten domeketan. Eta hauxe gaineratu du: "Elgetan ogi asko jaten da. Herri txikia da eta horrelako ogi eskaintza izatea ez da normalena izaten, baina ni pozik nago". Eta hari galdetuta zein nahiago duen, dio askotariko zerealduna gustatzen zaiola gehien eta artoarena ere "oso ona" egoten dela, nahiz eta garai honetan azken hori ez duten egiten.

Askotariko prezioak

Aukera ugari izanda, prezioak ere halakoak dira. "Merkeenak bolloak dira, 90 zentimo balio dute; barra merkeenak, berriz, 1,35 euro; eta garestiena da 4 euroko espeltaduna. 3,60 euro balio duen askotariko zerealdunak ere izaten ditugu... Normalean, jendeak ogi ona nahi izaten du, ama oreka duena", azaldu du Bouzasek.

Opil gozoak ere bai


Croissantak, palmerak, napolitanak... ere izaten ditu. Baita txorizoa barruan daramaten ogitxoak eta atunez edo haragiz betetako enpanadak ere.

**ZAPATUETAN
BASERRIKO OPILAK
SALTZEN DITU, BATEZ
ERE, HURRENGO
EGUNEAN ERE JATEKO**



**FERNANDO ERRASTI
BEZEROA**

"Egunero erosten ditut bi ogi, beti berdinak. Lehendik hona sekulako aldaketa egon da herrian; lehen, okindegi bakararra geneukan, baina badira urteak hura itxi zutela, eta klase bakararra edo bi egoten ziren. Integrala jaten dut orain; lehen, egon ere ez zegoen".



**EIDER ETXANIZ
BEZEROA**

"Aukera handia dago. Denetarik ekartzen dute hainbat lekutatik eta erraza da bateren bat gustatzea. Probatzen joaten naiz, saiatzen naiz baserriko opilak erosten, baina denetarik probatzen dut; Atxondoko baserriko barra, Panarrakoa ere bai... Eskertzen da eskaintza".



**PELLO ALBERDI
BEZEROA**

"Horrelako ogi eskaintza egonda, batzuetan ogi desberdinen bat hartzen dut, baina, bestela, orokorrean, beti berdina erosten dut, Panarrakoa Arrazolako barra. Ona da herrian ogi eskaintza zabala eskura izatea, etxetik irten eta berehala, gertuko tratuarekin".

"Ostatuan gertuko tratua eskainiko dugu"

ITZIAR MODRAGON AZKARRAGA OSTALARIA

Araozko ostatua hartu du eta hark izango du hango ardura datozen bost urteetan. Azken lanak egiten dihardute senarrak eta biak, ahalik eta azkarren zabalatzeko

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Eskoriatzan bizi den Itziar Mondragon Azkarraga arrasatearrak irekiko du Araozko ostatua. Azken lanekin ari dira buru-belarri, ahal bezain pronto zabalatzeko.

Zerk erakarri zaitu Araozko ostatua hartzeko?

Beti izan dudana ametsa da. GOIENAN irakurri zuen proiektuaren berri senarrak, eta bukatu ahalaz bat esan zidan niretako modukoa zela. Irakurri nuen albisteak neuk ere, eta ate irekietara etorri ginen. Hau ikusi genuenean, berehala hartu nuen erabakia; izugarri gustatu zitzaidan.

Baduzu esperientziarik ostalaritzan?

Arraindegietan egin dut lan bizitza osoan. Ez dut tabernarik edo antzekorik izan, baina bai jendearekin harremaneko lana. **Jatetxea, denda, taberna eta lau apartamentu ditu. Zein da zuen asmoa?**

Apartamentu bat geuk hartuko dugu eta hortxe biziko gara senarra eta biok, eta beste hirurak alokatzeko izango dira. Bertan egonda, edozein momentutan zerbitzua emateko moduan izango gara. Hori da gura duguna, gerturatzen denari zerbitzua ematea. Ditugun hauez gain, baita inguruari buruzko informazioa eskaintzea ere.

Senarra eta biok egongo zarete lanean?

Bai. Ni sukaldean egongo naiz, hasiera batean, behintzat, eta Xabier tabernan. Denborak esango digu ondo ari garen horrela, zerbait aldatu behar dugun edo pertsona gehiago behar ditugun lanerako. Opor garaian alaba ere egongo da laguntzeko. Oraingoz, baina, biok hasiko gara, poliki-poliki.

Zer eskainiko duzue jateko?

Gure asmoa ez da plater dotoreak edo bereziak egitea. Hori eskaintzen duen jatetxe bat baino gehiago dago Oñatitik Arantzazurako bidean. Araozko ostatu



Itziar Mondragon Azkarraga. O.E.

"BERTAN BIZIKO GARA SENARRA ETA BOK, ETA BEHAR DUENARI ZERBITZUA EMATEA DA GURE NAHIA"

honek betiko merenderoen antza izango du, zentzu horretan: ogitartekoak, plater konbinatuak, momentuan egindako mokadutxoak... Beganoendako eta zeliakoendako jakiak ere izango ditugu, hori bai. Eta litekeena da asteburuetan menua ere eskaintzea. Horrez gain, baina, gertuko tratua da eskainiko duguna.

Eta zein ordutegi izango du?

Ordutegi zehatza ez dakit zein izango den, baina goizetik gaue-ra arte egongo da zabalik sukaldea, hori ziur. Ez zaizu inoiz inon gertatu jateko zerbait eskatu eta sukaldea itxita dagoela esatea? Bada, ez dugu nahi horrelakorik gertatzea hemen.

Nola egingo duzue eskaintza honen zabalkundea?

Oñatiko eta Mankomunitateko turismo zerbitzuekin harremanetan jarri gara dagoeneko, eta,

oraingoz, horrelaxe hasiko gara. Sare sozialetan honen berri iragartzea izango da hurrengo pausoa, eta plataforma ezberdinetan sartzea, akaso, hirugarrena. Dena dela, maskotak onartzen dituzten eta egokituta dauden ostatuen sareetan bai sartuko gara.

Kontratua sinatu berri duzue. Zertan ari zarete orain?

Apartamentuak nola apaindu pentsatzen, inbentarioa egiten, bertako produktuak salduko diren dendatxoak nolakoak eta non jarri, egiteko dauden lanak identifikatzen eta horiek azkar bukatzeko moduak topatzen...

Eta noiz zabalduko duzue?

Ez gaude egun zehatza esateko moduan oraindik. Ez dakigu lan horiek egiteak zenbat iraungo duen. Zabalatzeko desiratzen gaude gu, baina ez dakit noiz izango den.

Etorri al da herritarrik zertan ari zareten edo nortzuk zareten ikus-terat?

Egun gutxi pasa dira giltzak hartu genituenetik, baina astelehenean, adibidez, mendira zihoan emakume bat gerturatu zitzaigun zorte ona opatzera. Askok eskertu genuen hori, asko.



OÑATIKO EAJ

Trantsizio energetikoa hizpide

Oñatiko EAJk antolatuta, trantsizio energetikoari buruzko hitzaldia egon zen eguaztenean, "energia ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko eredu iraunkorrak lortzeko asmoz". Iñigo Eguiazabal enpresa sortzaileak bere esperientziak jardun zuen eta interes handiarekin jarraitu zuten entzuleek. Energiaren Euskal Erakundeko presidentea ezin izan zen etorri.

GORA ETA BEHERA



Gaztetzeko pintaketak herriko hormetan

"Oñatiar asko konformatuko ginateke gaztetzeko gazteek herriko pareta pribatu eta publikoak pintaketa eta karteekin zikintzeari utziko baliote", dio collagea bidali duen herritarrek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Irailerako prestatu dute kintada 1980an jaio zirenek

1980. urtean jaioetakoe kintada ospatuko dute irailaren 10ean; elkarrekin bazkalduko dute: "Oñatin bizi zareten kanpotarrak eta kanpoan bizi zareten oñatiarrak ere gonbidatuta zaudete". Ospakizunera joan gura duenak 50 euro sartu behar ditu, uztailaren 31 baino lehen, kontu korronte zenbaki honetan: ES47 3035 0005 36 0051126744.

Bizum bidez ere nola saldu azalduko diete herriko merkatariei

Saldu zure produktuak Whatsapp Business eta negozioetarako Bizum-ekin izeneko tailer praktikoa egingo dute kultur etxean hilaren 19an eta 20an, dendariendako, 14:00etatik 16:00etara. Whatsapp Business-ek enpresei egiten dizkien desberdintasunak eta abantailak azalduko dituzte eta Bizum bidez ordaintzeko aukera gehitzen ere irakatsiko dute.

Arantzazuko bigarren sutea, azken seiluan

Uztailaren 14an, atzo, bete dira 400 urte Arantzazuko santutegia bigarren aldiz erre zela, eta gertaera historiko haren seilua da Zeka elkarteak atera duen azkena. Postala ere egin du, eta Turismo Bulegoan erosi ahal izango dira biak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Herriko historian nabarmendu diren gertaeren edo pertsonen urteurren edo ospakizun berezien seiluak eta postalak ateratzeko ohitura du herriko Zeka Oñati filatelia eta numismatika elkarteak, eta Arantzazuko santutegian duela 400 urte piztu zen bigarren suteari buruzkoak dira, hain zuzen ere, atera dituzten azkenak.

Hiru aldiz erre da basilika

Uztailaren 14an, eguna, bete ziren 400 urte sute hura gertatu zela. Aita Villasantek gertaera hari buruz jasota zuen informazioa bildu du Zeka Oñati elkarteak eta hor dator sute handia izan zela, ordu gutxiren buruan ia dena suntsitu zuena. Kapera berria, gela batzuk eta liburutegiko liburu gutxi batzuk bakarrik salbatu ahal izan zituzten; eraikina ia osorik suntsitu zuen. Ama Birjinaren irudia ere salbatu zuten, eta sarrerako ermitara eraman. Albistea zabaldu ondoren, elizkoiak eta limosnak iristen hasi ziren, eta hiru hilabeteko epean 500 dukat bildu zituzten dirutan, eta 2.000 dukateko balioa zuen zura ere bai.

Hiru sute izan ditu Arantzazuko santutegiak: 1553. urtean, 1622an eta 1834ko abuztuaren 18ko gauean. Karlitaldi garai



Zeka Oñati filatelia eta numismatika taldeak ateratako azken seilua. Zeka

hartan, mikeleteek eragindako sutea izan zen hura, Arantzazuko argitalpenetan datorrenez. Suak guztiz suntsitu zituen eliza eta ondoko eraikinak, eta frantziskotarrek Arantzazu utzi behar izan zuten. Aurrekoetan baino gehiago luzatu zen orduan basilika berreraikitzea.

Erakusketa udazkenean

Arantzazuko santutegiaren sutea gogoratzeko egin duen bezala, beste makina bat pasarte historikori buruzko seilu eta postalak atera ditu aurretik Zeka

Oñati taldeak; esaterako, Agustín Zarketa eta Higinio Iriarte txistulariena, Lope Agirrerenena, Francisco Esnal parrokiako organo-jotzailearena, Bidaurreta monasterioarena eta Eusko Ikaskuntzako lehen kongresuarena.

Orain arte egindako lan batzuk hartu eta erakusketa egiteko asmoa ere badu herriko filatelia eta numismatika taldeak. Udazkenean izango dela aurreratu du taldeko kide Luis Maiztegik, urriko bigarren hamabostaldian, hain zuzen ere.

Trianan izandako erasoak salatu ditu auzoko jai batzordeak

LGTBIQ+ mugimenduko bandera erre eta bi herritarrek eraso sexista jasan zutela adierazi du

O.E.G. OÑATI

Trianako jaiak "ederrak" izan ziren arren, "izandako gertaera eta eraso sexista" salatu du auzoko jai batzordeak: "bi herritarrek jasotako eraso sexista eta eszenatokian jarrita zegoen LGTBIQ+ kolektiboaren bandera erretzea". Trianako jaietan horrelako erasorik ez dutela onartuko gaineratu dute.

Sare sozialen bitartez egindako salaketan dioten moduan eta jai batzordeko kideek Goienari baieztatu diotenez, egubakoitzetik zapatara bitarteko gauean

izan ziren erasoak. *Trianako jaixetan ere ez dugu inolako erasorik onartuko* zioen pankarta zuten jarrita eszenatokian, mugimendu feministaren eta LGTBIQ+ mugimenduko bandera banaren ondoan. Bada, bigarren hori erreta zegoela ikusi zuten batzordekoek zapatuko ordu txikietan. Bi herritarrek jasan dako eraso sexistaren lekuko ere izan ziren batzordeko kide batzuk eta esku hartu zuten: "horrelako portaerak ez ditugula onartzen esan eta joateko eskatu genion".



NIRE USTEZ

JONMIKEL INTSAUSTI

Amaiur

Betidanik gustatu zait Historia; iraganari begiratzeko largabista da, gure arbasoen bizitza hobeto ulertzen dugu hura ikertzean.

Baina zer da Historia? Historia iraganeko gertaerak eta egitura sozialak ahalik eta modu objektiboenean jaso eta aztertzen dituen gizarte-zientzia da. Halaber, iraganeko gertaerak azaldu, kontatu edo erakusten dituen lan edo bilduma historia dela esaten da. Historiak, beraz, nork, noiz, nola, zergatik... gertatu zen kontatzen digu, eta katebegiz osatutako katea bezala, iraganeko gertaerek bideratu dute gu egun garena.

Baina gertaerak kontatzeko erak ez dira bakarrik, hainbat aldetatik idatz baitaitezke: badira Historia ofizialak, ez-ofizialak, sukaldekoak, isilaraziak, epiko bihurtuak, egiazkoak eta baita gezurrezkoak ere... Hori bai, gatazka bat kontatzen badu, garaileek idatzitakoa da ikasiko duzuna. Egunotan 500 urte bete dira Gaztelak bortxaz Amaiurko gaztelua eraso zuenetik. Mendeetan isilarazitako gertaera izan da. Zure esku ere bada gehiago isil ez dadin.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei
erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Ulma Aloña Mendi taldeko txirrindulariak eta entrenatzaileak, otsailean egindako aurkezpenean. O.E.

Bailarako selekzio gorria Arantzazuko Igoeran

Oñatikoak ez ezik, Bergarako, Antzuolako, Eskoriatzako eta Aramaioko txirrindulariak ere badira Ulma Aloña Mendiko gazte mailako taldean, eta denek hartuko dute parte, elastiko gorria jantzita, zapatu arratsaldean egingo den Arantzazuko Igoeran

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Arantzazuko Igoera dute gazte mailako txirrindulariek zapatu arratsaldean, eta hantxe izango dira Ulma Aloña Mendi taldekoak. Kolore gorriko Oñatiko elastikoarekin, baina, txirrindulari oñatiarrak ez ezik Debagoeneko beste herri batzuetakoak ere izango dira. Izan ere, bailarako selekzioaren itxura du talde horrek.

Bederatzi txirrindulari

Bergarako, Antzuolako, Eskoriatzako eta Aramaioko txirrindulariak ere badira Aloña Mendiko gazte mailako taldean Oñatikoekin batera. "Ondoko herrietan, Arrasaten eta Bergaran, kasu, ez dago kategoria honetako talderik eta hona etorri dira txirrindulariak. Elkarrekin egin dituzte neguko entrenamenduak eta orain, behin lehiaketak hasita, bakoitzak bere prestaketa egiten du", dio Aloña Mendi txirrindulari sailako presidente Kepa Umerezek.

Horrela, bada, taldea osatzen duten bederatzi txirrindulariek hartuko dute parte zapatuko Arantzazuko Igoeran: Aratz Arenaza eta Liher Eguren bergarrek, Antzuolako Unax Errastik, Eskoriatzako Ibon Larrañagak, Carlos Ugarte aramaiorrek eta beste lau oñatiarrak: Haritz Arregik, Xabat Castañosek, Aimar Madinak eta Markel Zubiak. Ondoan izango dituzte entrenatzaileak: Julen Arkauz, Mikel Fernandez eta Julen Otero.

69 kilometroko proba

Arantzazun egongo da helmuga, eta Oñatin, Triana auzoan, irteera. Baina bederatzi kilometro baino gehiago egin beharko di-

**TRIANAN HASI ETA
ARANTZAZUN
BUKATUKO DA PROBA,
69 KILOMETRO EGIN
ETA GERO**

tuzte lasterketa amaitzeko. Izan ere, Oñatin abiatu eta Arrasate aldera joango dira; hango Eroskiko biribilgunean buelta hartu eta Torreazotik hilerria aldera hartuta, Osintxuraino; handik Oñatira heltzean hartuko dute Arantzazuko errepidea. "Urtiagain aurreko aldapa gogorra da, baita baita Arantzazuko aparkalekutik Sindikarainokoa ere. Zapaturako, gainera, bero handia dago iragarrita, eta horrek ez du askorik lagunduko", dio presidenteak. 15:30ean hasiko da lasterketa, eta, zenbatek parte hartuko duten momentuan jakingo badute ere, 80ren bueltan izango direla uste du Umerezek.

Iruñeko itzulia

Txirrindularitza lasterketen sasoiak da hau eta udazkenera bitartean hainbat probatan hartuko dute parte Aloña Mendiko txirrindulariek. Hilabete honen bukaeran bertan, Iruñeko Itzulia izango dira; hiru eguneko itzulia da.



Ganbara abesbatzako kideak Provenzan. GANBARA ABESBATZA

Sariekin eta "oso pozik" itzuli da Ganbara Provenzatik

Lau kategoriatan hartu dute parte hango nazioarteko abesbatzen lehiaketan eta bitan izan dira sarituak

O.E. OÑATI

Hiru kontinentetako 36 abesbatza aritu dira joan den asteburuan izandako Provenztako nazioarteko abesbatzen lehiaketan; europarrak ziren gehienak, baina bazeuden baita Indonesiako, Ameriketako Estatu Batuetako eta Arabiar Emirerri Batuetako koruak ere. "Maila altuko lehiaketa izan da", Aitor Biain zuzendariaren hitzetan, "puntuazio altuak" egon baitira, baita "interpretazioen musika kalitate ezin hobea" ere. Epaimahaiaren balorazioa ere azpimarratu nahi izan du oñatiarrak.

Koru misto kategorian, ahots taldean eta sakro zein folklore modalitateetan hartu dute parte Ganbarako kideek. Bigarren izan ziren lehenean, hirugarren bigarren eta laugarren postuekin konformatu behar izan zuten azken bietan. Bi sari, beraz, parte hartu duten lau kategorietan. Puntuetatik harago, baina, esperientzia aberasgarri batekin bueltatu dira. "Bost egun trinko izan dira, baina merezi izan du", adierazi du Biainek, eta han egindako lanarekin oso pozik daudela gaineratu du.

Alarma Morea taldea dator eguaztenean San Lorentzora

Urretxuko eta Zumarragako hiru kidek osatzen duten Alarma Morea taldea da Klean egitarauaren barruan hurrengo kontzertua eskainiko duena. Pop eta runba musika estiloak jotzen ditu eta ezaguna egin zen 2019an atera zuen lehen kantua: *Ez beti da ez*. Taldea osatzen duten hiru neskak abesten dute, Ainhoa Plagarok, Uxue Plagarok eta Nere Dualek.

Kalean 2022 udako kultura egitarauaren barruan antolatutako kontzertua da, eta, aurrekoak bezala, kaleko espazio batean izango da: hain zuzen ere, San Lorentzo ermitaren aurrealdean, asteazkenean, uztailek 20, 19:00etan.

Kulturako 31 taldek eta produktuk jasoko dute dirulaguntza

Urteko programazioa osatzeko eta sormen lanak gauzatzeko dirulaguntza ematen du urteko Udaleko Kultura Departamentuak; ia 86.000 euro banatuko ditu aurtan.

Guztira, 31 talderen eta produkturen artean banatuko da dirulaguntza hori. Ganbara, bertso eskola, Ilunpetan, Oñatz, ikuskizun taldea, film laburren rallya eta zizelkatze taldea dira, esaterako, euren kultur programaziorako dirulaguntza jasoko duten eragile batzuk. Sormen lanetarako, berriz, hainbat norbanakoren artean banatuko da, izan diskia grabatzeko, argitalpenak egiteko edo ikus-entzunezkoak ekoizteko.



Realaren eta Bartzelonaren arteko partidarako sarrerak **futbol zelaiko tokirik onenean**



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Bartzelona partida (abuztuaren 21a, 22:00etan) beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik.



Eserlekuak
Premium gunean



Catering
zerbitzua



Aldageletako tunelean
jokalariak ikusteko aukera



Ikus-entzunezko
erabilerak



Atentzio eta zerbitzu
pertsonalizatua



353 metro karratuko
gunea

**Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!**



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!

**goiena[”]
kide**

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak



Porsche autoa, Eskoriatzako plazan, 2018ko Gatzagako Igoeran. Zapatuan hortik hasiko dituzte 3. eta 4. txandak. GOIENA

Lehenengorako 50 daude gertu

AUTOMOBILISMOA Zapatuan egingo dute lehenengoz Eskoriatzako rallysprinta (12:10). Guztira, lau txanda izango ditu, horietako bi Aretxabaletan hasiko dituzte –Mendiolako bidean– eta beste biak, berriz, Eskoriatzan, plazatik bertatik

Xabier Urtzelai ESKORIATZA

Eskoriatzako lehenengo rallysprintak 50 auto batuko ditu irteera puntuan. Lasterketa 12:10ean hasiko dute, eta lehenengo bi txandak Aretxabaletan hasiko dituzte, Bainuetxe industrialdean, Mendiolarako igoera hasieran. "Pilotuak Mendiolaraino igoko dira, eta tarte horretan badaude leku aproposak lasterketa ondo ikusi ahal izateko", dio antolaketaren lanetan dabilen Gorka Idigorasek. "Gero, elizateetara autoz doazenendako ere aurrerago badira txoko egokiak lasterketa ikusi ahal izateko".

Aurreratu moduan, lehenengo kilometroetan behin Mendiola-ra igota, ibilbide sigi-sagatsua izango dute pilotuek: Erañara, Bolibarrera, eta Atxorrotzeko bidetik Eskoriatzara jaitsiko dira autoak. Han amaituko dute lehenengo zatia, eta kronome-

troak eratuta, lasai, Eskoriatzatik Aretxabaletako Portasol auzora joango dira saihesbidetik. Bigarren txanda ere berdina izango da, Aretxabaletan hasi eta Eskoriatzan amaituko dute, eta 13:20an hasiko dute txanda hori. Amaitutakoan, ordubete inguruko atsedenaldea izango da eta autoak Portasolen egongo dira aparkatuta.

Hurrengo biak, Eskoriatzatik

Eta, hirugarren txanda hasteko, autoak Eskoriatzara abiatuko dira, hirugarren eta laugarren txandak bertatik hasiko dituzte

LEHENENGO BI TXANDEN ONDOREN, ORDUBETE INGURUKO ATSEDENALDIA HARTUKO DUTE

eta: herriko plazatik, hain zuzen ere. Eta ibilbidea lehenengo bietako bera izango da, baina kontrako noranzkoan.

Hala, arratsaldeko saioak 15:40an hasiko dituzte, eta autoak Eskoriatzako plazatik bertatik abiatuko dira Bolibar alderantz: "Rallysprint gutxi egongo dira herriko plazan bertan hasten direnak, eta hirugarren eta laugarren txandak ikusteko Eskoriatzako herrigunea bera bada leku egokia. Ezberdina izango da, behintzat". Hala, antolatzaileek aurreikusten dute 16:50ean hasiko dela laugarren eta azken txanda. "Lehenengo edizioa da eta lan handia dago lasterketaren atzean, eta egunean bertan boluntario asko izango dira, besteak beste, segurtasun neurriak zaintzen", dio lasterketa auto barrutik biziko duen Idigorasek.

"Auto txiki eta indartsuek abantaila izango dute rallysprintean"


GORKA IDIGORAS LASTERKETARN ANTOLATZAILEA ETA PILOTUA

Antolatzaile lanetan ibiltzearekin batera, Gorka Idigoras Renault Clio Sport autoa irteera puntuan izango da zapatuan. Alain Peña izango du kopilotu lanetan, eta garaipenerako faboritoetako bat da eskoriatzarra.

Dena prest zaturako?

Dena dugu prest, bai. Buruhaute batzuk sortu dizkigu rallysprinta lehenengoz antolatzeak, baina dena dago gertu.

Eskomotor eskudarian amestu izan duzuen lasterketa da hau, herrigunea eta elizateak zeharkatuko dituen.



IMANOL BELOKI

Bai, eta gustura geratu gara pilotuen partetik izan duen harrerarekin. 50 automobil izango dira irteera puntuan, aurreikusten genuena baino jende gehiagok eman du izena, eta horietako hamaika auto inguru izango dira debagoiendarrenak. Pozik gaude.

Elizateetan errepidea estua

da, eta sigi-sagatsua. Non egongo da gakoa?

Nik uste dut automobil txikiek abantaila izango dutela, baina,aldi berean, indarra izan beharko dute. Izan ere, aldapa gogorrak daude ibilbidean zehar eta hor motor ona izatea ezinbestekoa da. Horrekin batera, automobil handiak txikiak baino hobeto ibiliko dira bihurgune itxietan eta bestelakoetan.

Esan duzu buruhaute batzuk eman dituela lasterketa antolatzeak. Zailtasunak izan dituzue?

Euskadiko Automobilismo Federazioaren partetik laguntza handia izan dugu, eta Udalaren partetik ere babes. Bestelako trabak gehiago izan dira ezjakintasunetik etorri direnak; hau da, normala da bizilagunen eta auzotarren partetik kezka egotea. Baina gauzak ondo azalduta eta dena txukun eginda elkar ulertu dugu, eta pozik gaude.

Zirkuituak non du zailtasun handiena?

Nire ustez, zailtasun handiena dago Mendiola eta Eraña arteko zatian. Zementuzko errepidea da, nahiko apurtuta dago, eta pilotuek hor izango dituzte zailtasun handienak. Gero, ibilbide osoa nahiko teknikoa da, baina, bereziki, hori nabarmenduko nuke.

Chicaneak ere jarriko dituzue?

Bai; guztira, bi chicane jarriko ditugu, eta horietako bat Eskoriatzako herrigunean egongo da. Ibilbidean zehar abiadura moteltzen laguntzen dute chicane horiek, zati horrek izan dezakeen arriskua txikitzeke.

Debagoiendar mordo lasterketan

Irteera puntuan hamasei debagoiendar izango dira: Gorka Idigoras (Clio Sport), Jose Ferreira (Ford Fiesta N5), Joseba Frutos (Clio Sport), Iñigo Errasti (Clio Sport), Aitor Anaiz (R5 GT Turbo), Monika Muñoz (Citroen ZX 16v), Gorka Urrutia (BMW 318i), Asier Samaniego (BMW 325i), Mikel Oiartzabal (BMW 325i), Jokin Mellado (Seat Ibiza), Markel Saez de Gordo (Seat Leon MK1), Andoni Blanco (Citron Saxo VTS), Alex Calzon (Citroen ZX 16v) Unai Jurado (Citroen SX GTI), Aimar Arriolabengoa (Citroen AX) eta Maider Usandizaga (Ford Focus).

Gidari lanetan ibiliko diren pilotu horiez gain, kopilotu lanetan izango dira Onintze Lombide (Ford Focus), Dorleta Urkiaga (Ford Focus) eta Maialen larza (Peugeot 106 S16).

Nahi beste ziklismo, San Martzialen hasita gaur

TXIRRINDULARITZA Asteburu betea izango da ziklismo-zaleendako: emakumezkoak izango dira gaur San Martzialerako kronoigoeran protagonista; zapatuan, gazteek Arantzazuko Igoera izango dute; eta domekan, Dorletako Ama saria egongo da jokoan

Xabier Urtelai ARRASATE

Txirrindularitzaz betetako asteburua dator, Oñatin egingo duten Kantoikrit lasterketarekin batera federatu mailako lasterketak egingo dituzte-eta, Bergaran gaur, Oñatin zapatuan eta Leintz Gatzagan domekan.

Hala, gaur, egubakoitza, 18:30ean hasita jokatu dute, San Martzialgo maldetan, V. Bergara Hiria lasterketa. Guztira, ia 80 txirrindulari batuko dira irteera puntuan, eta, besteak beste, zazpi debagoiendar egongo dira. Kadete mailan lehiatuko dira Bolintxo Okindegia-Lana taldeko Itsaso Askasibar eta Edurne Ormaetxea eta gazte



Ziklista bat San Martzialen gora. GOIENA

mailan izango da talde bereko Itsaso Plaza. Lokatzako nesken ordezkari ez da hor amaituko, senior mailan talde bergarra ordezkatu du-eta Eneritz Urrutia arrasatearrak.

Hala, Urrutiarekin batera lehiatuko dira kategorian nagusian Laboral Kutxako ordezkari debagoiendarrak: Garazi Estebez, Xubane Garai eta Olatz Gabi-londo.

Zapatuan, Arantzazuko Igoera

Zapatuan, 15:30ean hasita, Arantzazuko Igoeraren 52. edizioa jokatu dute. Hor, Ulma taldeak Debagoieneko selekzio modukoa aurkeztu du, talde oñatiarrak

batzen ditu-eta bailarako hainbat herritako ziklista asko. Hala, Oñatiko Triana auzoan hasita, gazte mailako ziklistek 70 kilometroko lasterketa egingo dute, eta Sindikako maldetan amaituko dute lasterketa (17:15).

Domekan, Dorletako Ama saria

Lehendakari Txapelketa barruan, berriz, Dorletako Ama sariak hartuko dio joan den astean jokatu zuten Antzuola sariari erreleboa. Amateur mailako lasterketa 10:00etan hasiko dute, Leintz Gatzagan, eta txirrindulariek Arrasaterako bidea hartuko dute –saihesbidetik–; handik Aramaiora joango dira –Aramaioko erdigunean egongo da esprint berezia–. Aramaion, txirrindulariek Azkoaga eta Zabola auzoetarako bidea hartuko dute, eta tarte malkartsua gaindituta Untzillara iritsiko dira; Suñatik eta Gesalibartik ostera ere Arrasatera bueltatu dute. Eta hor hasiko dute txirrindulariek Gatzagara egin behar dituzten hiru igoaldiako lehenengoa. Aurreikuspenen arabera, txirrindulariak 13:00etan iritsiko dira helmugara.



2020ko edizioaren une bat. GOIENA

ZIKLISMOA Kantoikrit probako zazpigarren edizioa, zapatuan

Piñoi finkodun bizikletei hautsa kenduta –iaz ezin izan zuten lasterketa antolatu– egingo dute Kantoikrit lasterketa, zapatuan Oñatin (22:00). Jatorrizko zirkuitura itzuliko dira, azken edizioetan obrak tarteko egokitzapenak egin behar izan dituztelako. Antolatzaileek aurreikusten dute 30 lagun inguru batuko direla irteera puntuan, tartean bospasei oñatiar.

DEBAGOIENeko

PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86 / Faxe: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxe: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA
Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiostudioa@gmail.com

ETXE ADMINISTRATIOAK

URIBESALGO ADMINISTRATIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Getxoko Itxaso Gutierrezek eta bere taldeak zabaldu zuen atzo, eguena, Arrasate Blues jaialdia. JORGE GRACIA

Txikitasunetik, jaialdi handia

Atzo hasi eta domeka bitartean egingo dute Ibai-arte merkatari elkarteak Arrasateko Udalarekin antolatu duen laugarren Arrasate Blues jaialdia; herriko erdiguneko sei txokotan banatuta, hamar kontzertu izango dira, doan eta edukiera muga barik

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Aurreko asteburuan herriko soinu banda izan ziren punk-rock eta oi! musika doinuei lekukoa hartuta abiatu zuten atzo, eguena, laugarren Arrasate Blues jaialdia. "Egitarau oparoa osatu dugu eta pozik gaude, jaialdiaren ikur den blues doinuez gainera askotariko estiloetako musikariak gurean izango direlako", azaldu du Ibai-arte Jon Apraizek.

Aurreko asteetan antolatutako emanaldiekin motorrak berotuta, atzo hasita, hamabi emanal-direkin osatu dute aurtengo eskaintza. Musika ibilbidea jazz estiloen abiatu zuen eta egun askotariko estiloekin osatutako doinuekin zabaldu zuen kontzertuen zerrenda eskarmentuko Getxoko abeslari Itxaso Gutierrezek Herriko Plazan, eta Otalora Lizentziadunan koka-

tutako agertokian hartu zuen lekukoa gero Star Blues taldeak. "Ditugun bi diskoen kantuek eskaini genituen laukote formatuan. Izugarri gustatu zitzaidan jaialdirako proposamena jasotzea, gauza on asko nituen eta entzunda Arrasate Bluesi buruz", dio Itxaso Gutierrez abeslariak.

Etxeokak ere, "ondo mimatuta" Aurreko aldietan izan diren Iker Piris eta Itziar Yague gonbidatu dituzte, besteak beste, biharko. "Errepikatzen duten artistak formazio eta doinu berrieke datoz. Arrasaten jaiotako Yague, esaterako, boskote formatuan etorriko da: taldekideak eta urrian grabatuko duen diskoko produktore Greg Izor amerikarra lagun izango ditu. Formazio ezberdinak eta berriak bultzatzen saiatzen gara jaialditik jaialdira;

hau da, karanbola ezberdinei etekina aterata. Hori horrela, Izor Paul San Martinekin izango da zapatuan egingo duen kontzertuan. Entzuteko gozagarria izateaz gainera, ikusgarria ere izango dela uste dugu, Jokin Zaitegi plazan isats-piano bat ikusteko aukera gutxi izaten dugulako. Emilio Arsuagak puntako musikariak lagun eskainiko duen emanaldia ere azpimarratuko nuke; Madrilgoa da, baina Legazpiko familia du, eta ilusioz hartu du gure gonbidapena, Euskal Herrian ez du eta sekula jo. Blues munduan izen

ERDIGUNEKO SEI GUNETAN BANATUTA, DOAKO HAMAR KONTZERTU AUKERAN, DOMEKA BITARTEAN

Jaialdian izango diren musikariak




IKER PIRIS & DUAL ELECTRIC & MARCO PANDOLFI

Euskal Herria plaza
Egubakoitza / 19:00



EMILIO ARSUAGA & THE MAD REEDS & CHRIS BELL

Portaloia
Egubakoitza / 20:30



ITZIAR YAGUE LAUKOTEA FT GREG IZOR

Herriko Plaza
Egubakoitza / 23:00



PAUL SAN MARTIN & GREG IZOR

Jokin Zaitegi plaza
Zapatua / 13:00



ELEN'S RIVER DIXIELAND BAND

Herrian zehar
Zapatua / 18:00



LOS ZARRIOS

Portaloia
Zapatua / 19:00



DIABLUES TA BLUEZIFER

Portaloia
Zapatua / 20:00



LOS BRAZOS

Ferrerias kalea
Zapatua / 23:00



SWINGTRONIC

Arbolapeta
Domeka / 13:00



JAC

Arbolapeta
Domeka / 19:00

handikoa da Arsuaga; haren anaia Karlos bateria-jolea eta Chris Bell amerikarra izango ditu, besteak beste, alboan".

Zero kilometro aldarrian, eskualdeko musikariei ere tokia egin diete. "Jaialdian euskarazko abestiak entzutea ezinbesteko baldintza da guretako, eta baita bertako musikariak agertokietan izatea ere. Hori horrela, Elen's River Dixieland Band izango dugu kalez kale; otsailen egin genuen Merkemerka azokarako laguntzeko eskatu genien, eta pozgarria da banda bihurtu dela ikustea, ari dira-eta beste kontzertu batzuk lotzen. Era berean, sekulako ohorea da guretako herriko Los Zarrios eta Bergarako Diablues Ta Bluezifer *bluesman*-ak gurera ekartzea", dio Apraizek, eta zera gaineratu du Bergarako musi-

kari Asier Elortzak: "Euskal Herriko eta kanpoko blues jaialdian jo izan dugu, eta gogotsu goaz Arrasate Bluesera. *Gure urdina* gure bigarren diskoan oinarrituko dugu emanaldia. Hasierako 25 minutuetan Mikel eta biok izango gara, tronpetarekin, harmonikarekin eta gitarrarekin, eta ondoren, Nagore Sanz kontrabaxuarekin eta Aitor Aranburu askotariko perkusio tresna bereziekin batuko zaizkigu eta gure marka den aitzinako blues kutsua duten abestiak eskainiko ditugu".

**UDALARA JOATEKO
DOAKO AUTOBUSA
IZANGO DA BARIKUAN
-13:00-14:30- ETA
17:00ETAN ITZULERA**

Blues bazkariak, berrikuntza
Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren laguntzarekin antolatu dituzte, aurten estreinakoz, otordu musikatuak, Udalako Uxarte jatetxean gaurko eta Hotel Mondragonen zapaturako. "Kontzertuetara bakarrik joan nahi duenak badu horretarako aukera, eta, bazkaltzera geratu gura izanez gero, aldeaz aurretik egin behar da erreserba jate-txeetan bertan, eta tokia dago oraindik. *Arrasateblues.com* atarian dituzue menuak eta bestelako informazio zabala. Ez genuen Udala auzoa autoz betetzerik gura; beraz, doako autobus zerbitzua izango da, Kontzezinoko autobus geltokitik abiatuta, 13:00etatik 14:30era, eta Udalatik erdigunera itzultzeko ere izango da. 17:00etatik 19:30era".

Egindako lanagatik, herriaren aitortza

Miren Gastañares, Maria Pilar Etxebeeste eta Mertxe Madinabeitia Arrasateko eta inguruko herrietako musikari askoren irakasleak izandakoak dira urte luzez, eta egindako lanaren aitortza jaso zuten atzo, Arrasate Blues jaialdian.

Herriko Plazan bildu zirenen txalo zaparradez gainera, oholtzaren gainean lagun izan zituzten Arrasate Musikaleko zuzendari Marta Izagirrerren, Ibai-arte merkataria elkarteko kide Jon Apraizen eta Arrasateko alkate Maria Ubarretxenaren eskutik lore sorta eta plaka-oroigarri bana jaso zuten opari.

Irakasle bila, etxez etxe

Banda Munizipala bertan behera geratu zenean, musika eskola bat zabaltzea pentsatu zuten kideek, eta etxez etxe joan ziren musika irakasleen bila. Bederatzi emakumerekin abiatu zuten, 1972an, Arrasate Musikalen lehen ikasturtea; horien artean zen atzo omendutako hirukotea. "Piano ikasketak egin nituen Donostian eta ezkondu aurretik Banco Gipuzcoanon egin nuen lan. Ilusio handiz hartu nuen irakasle izateko eskaintza gero", dio Maria Pilar Etxebestek. Mertxe Madinabeitiak, berriz,



Madinabeitia, Gastañares eta Etxebeste. ANABEL DOMINGUEZ-'NOTICIAS DE GIPUZKOA'

Arrasateko Centro Accion Catolica elkartean ikasi zuen pianoa jotzen. "Kuota bat ordaintzen zen hilero eta jendea artatzen genuen han. Jangelan zegoen pianoan ikasi nuen". Damas de la Asuncion eskolan –San Viator Txiki– piano pieza batzuk jotzen ikasi ondoren bost urteko piano ikasketak egin zituela dio Miren Gastañaresek: "Ezkondutxo egin nintzen gero, eta titulua hor egon zen, Arrasate Musikalekoak etorri ziren arte".

Lan baldintza "gogorrak"
Mankomunitatea dagoen tokian
hasi ziren eta Juan Arzamendi
Musika Etxea izango den
eraikinerako pasatu ziren gero.
"Hutsetik hasi ginen; denetarik
egiten genuen, baina hormak bota
ere. Gogorra izan zen hastapena",
dio Etxebestek.

100 pezetako soldata zutela gogoan dute. "Bi irakasle ezkongabeak zirenez, ez zuter gizarte segurantzarik, eta borrokatu egin ginen, Udalarekin akordioa lortu eta denontzako aseguruia lortu arte. Irakasle gazteagoak sartu zirenean euren lan baldintzak hobetuaz joan zirela dio Gastañaresek. "Gizarte segurantzagatik borrokatu ginen. ELAra afiliatu ginen eta abokatu batek paperak egin zizkigun. Aurretik tituluak genituen, baina kontraturik ez".

Musikak, "poz handia"
"Harro" daude euren ikasle asko
noraino heldu ziren ikusita.
"Orduan ere asko eskertzen
ziguten, opari asko jasotzen
genituen-eta ikasleen
famiengandik".

Goienakideen txokoa

UZTAILEKO SARIAK



Bi lagunendako bi gaueko egonaldia Altsasuko San Pedroko Bidea turismo etxean
Parte hartzeko sariaren izena: Egonaldia

Sarrerak

Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

ARRIKRUTZ
 德意志地产集团 德意志地产

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.haramendenda.org
 Robert Wurtz@haramendenda.org

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikaz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

*"borionen lanka" (borikideenen zimbabue) 688 69 00 07 zimbabue

[illegible]

Irabazi bi lagunendako otordua

SANTA ANA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntuo aldizkariako Otoroia eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: uztailak 19

☎ 943 25 05 05 ✉ golenakiade@golena.eu 📱 'Golena app' - a zozketa atsean

 **GOIENAKIDE** Jatezera
[baskidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntuo aldizkarria jasotzeko,
zozketetan parte hartzeko
eta txartel digitalaren
abantailak gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 30€
 Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APP BERRIA! ▶

**goiena[™]
kide**

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate Etxea ematen da errentan San Andresen. 65 metro koadrokoa, bi logela, sukalde-jangela, egongela eta komunak. Dena kanpoaldera begira. Eguzkitsua. Bi balkoi eta bietako bat itxia. 688 85 18 41 (Paulo)

Donostia. Antigua auzoan etxebizitza ematen da errentan, uztailaren bigarren hamabostaldirako. Ondartzatik 300 metrora. Hiru pertsonarendako modukoa. 1.000 euro. 687 78 50 45

Salobreña (Granada). Granadako kostaldean etxea ematen da errentan abuzturako. Bi etxebizitza independenteko etxea da eta banaka edo elkarrekin har daitezke. Solairu bakoitza 75 metro koadrokoa da, bi logela, sukalde-egongela eta komunarekin. Dena kanpoaldera begira. Patio eta terrazarekin, 750 euro asteko. Etxe osoa hartuz gero, 1.400 euro asteko. 669 22 69 62 (Josu) edo 658 72 62 71 (Eli)

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote baten-tzako etxe bila gabiltza Arrasaten errentan hartzeko. 658 90 79 77

Oñati. Ahalik eta azkarren etxebizitza bat, hiru logelakoa, hartuko genuke errentan. 632 92 80 96

105. ETXEA OSATU

Bergara. Bergarako erdiguinean gela bat hartuko nuke errentan. Telefonoa: 666 07 42 98

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Belorrieta kalean garaje itxia salgai, prezio onean. Telefonoa: 687 31 12 05

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate eta Aretxabaleta. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Soziosanitario titulua daukat eta baita autoa ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 680 87 38 66

Arrasate eta inguruak. Neska euskaldun, gazte eta arduratsua naiz umeak zaintzeko prest dagoena. Deitu telefono honetara: 679 73 80 69

Arrasate. Egunean zehar, baita orduka ere, zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. Deitu telefono zenbaki honetara: 643 47 40 94 (Alba)

Bergara eta inguruak. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Erreferentzia onak aurkez ditzaket. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 12 51 27

Bergara eta inguruak. Umeak zaintzeko eta ebeko lanak egiteko prest nago. 4 urteko esperientzia dut haurak zaintzen, eta Haur Hezkuntzako irakaslea naiz. 634 42 85 11 (Andrea)

Bergara. Emakumea gertu egunez, gauzez edo bertan bizitzen pertsona nagusiak zaintzeko edo laguntzeko. Legezko agiriak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 54 60 99

Bergara. Goizez eta gauzez pertsonak zaintzeko gertu. Legezko agiriak eta titulazioa dauzkat. Deitu telefono zenbaki honetara: 666 07 42 98

Bergara. Umeak zaintzen, taberna zein kafetegiren baten edota garbiketarak egiten lan egingo nuke. 634 47 13 84

Debagoiena. 15:00etatik aurrera, baita gauzez ere, nagusiak eta umeak zaintzeko gertu nago. Asteburuetan ere bai. Soziosanitario titulazioa daukat. 631 19 02 54

Debagoiena. Debagoienan lan egingo nuke orduka edo asteburutan. Sukaldeko laguntzaile moduan, nagusiak zaintzen eta abar. Telefonoa: 609 31 34 36

Debagoiena. Emakumea gertu egun osoz edo orduka pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 75 03 97

Debagoiena. Emakumea gertu orduka zein gauetan zaintza lanak egiteko. Deitu telefono zenbaki honetara: 659 90 85 13

Debagoiena. Emakumea prest pertsona nagusia zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Deitu telefono zenbaki honetara: 611 24 18 98

Debagoiena. Erizain laguntzaile titulazioa daukan neska nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientzia duen neska lanerako gertu: umeak eta nagusiak zaintzen edota garbiketarak. 631 94 62 82

Debagoiena. Esperientzia duen neska nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten bada, hobeto. Telefonoa: 688 74 02 01

Debagoiena. Esperientzia handia duen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Legezko agiri guztiak eta erreferentzia onak. Autoa daukat. 662 43 08 54

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, baita baserrietan ere. 602 39 07 92

Debagoiena. Gauetan edo egunean zehar orduka, zaintza lanak egingo nituzke. Baita asteburuetan ere. 632 69 40 90

Debagoiena. Gauetan edo goizetan zaintza lanak egiteko gertu nago. Ospi-

talean zein etxean. Autoa daukat. 631 98 15 50

Debagoiena. Haize giro-tu teknikaria naiz eta esperientzia dut, baita ere, soldatzen, margotzen, elektrizitatean edota igeltsero moduan laguntzen. 603 11 97 25 (Ricardo)

Debagoiena. Mutila gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Baita baserrietan ere. Legezko agiri eta titulazioekin. Telefonoa: 659 90 85 13

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: garbiketarak, zaintza eta abar. 643 47 39 37 (Yessid)

Debagoiena. Mutila zaintza eta garbiketa lanetarako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Erreferentziak aurkez ditzaket. Deitu telefono honetara: 602 87 65 07

Debagoiena. Neska arduratsua eta langilea naiz eta umeak edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia handia dut eta gustuko dut lana. Telefonoa: 611 24 26 64

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak zaintzeko edota atari eta abarrak garbitzeko. Etxean beran bizi izanda, egunez edo asteburuetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 64 66 36

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan jardun nahi dut. 632 76 59 52

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan bost urteko esperientzia daukat eta baita soziosanitario titulua ere. Lan egiteko prest nago. 666 21 36 37

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa daukan neska arduratsua asteburuetan orduka zaintza lanak egiteko gertu. Esperientziarekin. Telefonoa: 653 36 85 80

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiriak dauzkan neska zaintza eta garbiketa lanetarako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 93 11 90

Debagoiena. Tabernetan garbiketarak egiten edo etxeko langile moduan aritzeko gertu nago. Baita pertsonaren bat zaintzeko ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 655 79 34 97

Debagoiena. Zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu nago, orduka, egunean zehar eta baita gauetan ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 627 03 16 40

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke egunez, etxean bertan bizi izaten, orduka zein asteburuetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 692 23 16 15

Debagoiena. Zaintza lanetan hiru urteko esperientzia duen neska lanerako gertu. Umeak eta nagusiak zaintzeko edota garbiketarak. Deitu telefono zenbaki honetara: 604 37 79 34

Debagoiena. Zaintza lanetan jardun nahi dut; orduka, etxean bertan bizi izaten edo gauetan. Soziosanitario titulua daukat. 631 25 26 67

Garraiolarari lanak. Esperientzia duen mutila, autonomoa, garraio lanetan jarduteko prest. Telefonoa: 616 82 83 20

Oñati eta inguruak. Eri-zaintza, medikuntza eta psikiatria ikasketak dituen emakumea nagusiak edo eta gaixoak zaintzeko prest. 943 78 06 76

8. DENETARIK

801. SALDU

Ganaduarentzako pabiloia. Ganaduarentzako pabiloia salgai Arrasaten. Deitu telefono zenbaki honetara: 635 20 09 53

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



'MONDRA & ROLL' ERREPORTAJE BEREZIA

'Bereziak' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30



ANTZUOLAKO JAIEN LABURPENA

'Jaiak' Martitzena, 21:00 eta 23:00

EGUBAKOITZA, 15	ZAPATUA, 16	DOMEKA, 17
08:00 Zirikatzan 17	08:00 Asteko errepasoa	08:00 Hemen da Miru
08:30 Erreportajea: Angiolillo vs Cánovas	09:00 Akordeak 2	08:30 Hemen da Miru
09:00 Zirikatzan 17	09:30 Hemen Debagoiena	09:00 Hemen da Miru
09:30 Harmailatik	10:30 Elkarriketap: Behotsik Orkestra	09:30 Galdegazte: Mikel Laskurain
10:00 Hemen Debagoiena	11:00 Galdegazte: Mikel Laskurain	10:00 Asteko errepasoa
11:00 Bizi Gipuzkoa 1	11:30 Erreportajea: Angiolillo vs Cánovas	11:00 Elkarriketap: Behotsik Orkestra
11:30 Akordeak 2	12:00 Zirikatzan 17	11:30 Akordeak 2
12:00 Hemen Debagoiena	12:30 Hemen Debagoiena	12:00 Erreportajea: Angiolillo vs Cánovas
13:00 Zirikatzan 17	13:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak	12:30 Kooltur: Pasadena
13:30 Elkarriketap: Behotsik Orkestra	15:30 Galdegazte: Mikel Laskurain	13:30 Hemen Debagoiena
14:00 Albisteak	16:00 Hemen Debagoiena	14:30 Zirikatzan 19
14:30 Bizi Gipuzkoa 1	17:00 Asteko errepasoa	15:00 Akordeak 2
15:00 Albisteak	18:00 Elkarriketap: Behotsik Orkestra	15:30 Hemen Debagoiena
15:30 Galdegazte: Mikel Laskurain	18:30 Hemen Debagoiena	16:30 Kooltur: Pasadena
16:00 Albisteak	19:30 Kooltur: Pasadena	17:30 Hemen Debagoiena
16:30 Elkarriketap: Behotsik Orkestra	20:30 Zirikatzan 19	18:30 Asteko errepasoa
17:00 Albisteak	21:00 Galdegazte: Mikel Laskurain	19:30 Kooltur: Dupla
17:30 Harmailatik	21:30 Hemen Debagoiena	20:30 Hemen Debagoiena
18:00 Hemen Debagoiena	22:30 Elkarriketap: Behotsik Orkestra	21:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak
19:00 Zirikatzan 17	23:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak	23:30 Kooltur: Dupla
19:30 Akordeak 2		
20:00 Hemen Debagoiena		
21:00 Bizi Gipuzkoa 1		
21:30 Bizi Gipuzkoa 2		
22:00 Hemen Debagoiena		
23:00 Kooltur: Pasadena		

ASTELEHENA, 18

ESKORIATZAKO RALLYSPRINTA

'Harmailatik'

21:30/23:30

MARTITZENA, 18

DANELEN MUSIKA EZAGUTZEN

'Akordeak'

18:00/20:00/22:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 20



BEGIEDER SASI-ABIZENARI BURUZKOAK

'Izenen izana'

18:00/20:00/22:00

EGUENA, 20

NORA SALBOTXI ELKARRIZKETA

'Elkarriketap'

21:00/23:00

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz zor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ESKER ONA

Jose Joakin Arrazola Guridi



2022ko uztailaren 6an hil zen, 72 urte zituela.

Utzi gintuzun arren,
gure alboan jarraitzen duzu
bidea egiten.

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2022ko uztailaren 15ean.

ESKER ONA

Maria Jose Aramburu Arregui

2022ko uztailaren 7an hil zen.

Zelako suertia izan dan
zu onduan eukittia.
Zure irrifar eta umoria
beti gogoan dia gure bihotzetan.

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Etxekoan partetik.
Oñatin, 2022ko uztailaren 15ean.

ESKER ONA

Ines Pozo Sanchez

2022ko uztailaren 11n hil zen, 54 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi
eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Eskoriatzan, 2022ko uztailaren 15ean.

OROIGARRIA

Felix Erostarbe Elorza



2022ko uztailaren 9an hil zen, 75 urte zituela.

Oinarriko lagunak



Oñatin, 2022ko uztailaren 15ean.

OROIGARRIA

Ines Pozo Sanchez



2022ko uztailaren 11n hil zen, 54 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bat baizik.

Iglesias familia.
Eskoriatzan, 2022ko uztailaren 15ean.

OROIGARRIA

Ines Pozo Sanchez

2022ko uztailaren 11n hil zen, 54 urte zituela.

Zein erreza izan den zure laguna izatea,
baina zeinen zaila agurtzea.

Gero arte.

Fagor Automatioko zure lankideak.
Eskoriatzan, 2022ko uztailaren 15ean.

OROIGARRIA



Ion Mirena Errasti Alzelai
2014ko maiatzaren 15ean hil zen.

Juan Mari Errasti Lesarri
2017ko uztailaren 12an hil zen.



Ion Mirena eta Juan Mari
zeruan bi argi
zuen oroimen hutsa
guretako gidari.

Beti goguan.

Konsuelo.
Bergaran, 2022ko uztailaren 15ean.

OROIGARRIA

Esther Gual Lasanta



2020ko uztailaren 19an hil zen, Elorrión, 40 urte zituela.

Orain dela bi urte joan zinen,
baina gure alboan jarraitzen duzu bidea egiten.
Ez zaitugu ahaztuko.

—

Alaba: Elene. Gurasoak: Gloria eta Miguel.
Ahizpak: Monica, Elena eta Ibai.
Illobak: Oihane eta Itxaso.

Arrasaten, 2022ko uztailaren 15ean.

HILETA

Jesus Mendarozketa Heriz

2022ko uztailaren 13an hil zen, 84 urte zituela.

Haren aldeko hileta elizkizuna, bihar, zapatua, izango da,
19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.
Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrak familiaren izenean.

—

Zure eskuzabaltasuna, sinpatia eta bihotz ona
guretzako exenplu izango da.
Ez zaitugu ahaztuko, beti egongo zara gure bihotzetan.

Familiak San Felipe beilatokian hartuko zaituzte, bihar,
zapatua, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 18:30etara.

OROIGARRIA

Anton Iturbe Goikolea



Mari Carmen Pagalday Izurategiren alarguna
2022ko uztailaren 13an hil zen, 79 urte zituela.

Beti gure bihotzean eramango zaittugu, tio.

Pagalday familia.
Aretxabaletan, 2022ko uztailaren 15ean.

OROIGARRIA

Jose Luis Amozarrain Bengoa



'Paiko'
2022ko uztailaren 11n hil zen, 70 urte zituela.

Gugan utzitako aztarnak betirako dirau, Jose Luis.



Herri-Gain elkarte.
Arrasaten, 2022ko uztailaren 15ean.

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako
guztiei euren bidea aurkitzen
lagundu diegu, orain arte
bezala, eta guztiek izango
dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gugan
izan duzun konfiantzagaririk
eta maitasunagaririk.

Ion, Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

BERRI-ZAKUA



Iparraldean

Begarako Pol-Pol taldeko beteranoak Iparraldean egon ziren aurrekoan. Kanbo-Usuaia-Urcaray ibilaldia egin zuten, 18 kilometrokoa, eta 30 gradurekin. 39 mendizalek hartu zuten parte eta ederto ibili ziren. Hurrengo ibilaldia, udako oporren ostean, irailean egingo dute, Jacara.

Begara Oinez

Atzo, eguena, egin zuten Bergara Oinez ekimenaren zazpigarren ibilaldia, Jardunek antolatuta. Beroagatik, ibilbide laburragoa egin zuten: Agorrosindik Usono parkerainoko joan-etorria. Ostean, hamarretakoa egin zuten Agorrosinen. Hurrengoa irailaren 22an egingo dute.



Urrezko ezteiak

Begarako Antonio eta Antonia 1972ko uztailaren 14an ezkondu ziren. Hori horrela, ospakizunetan dihardute egun hauetan. "Zorionak, bikote! Disfrutatu egun hauek, eta segi zoriontsu izaten, eta gu zoriontsu egiten. Musu eta besarkada bana".



Otoitz egiten

Begarako Al Badr komunitate musulmanak deituta, otoitz berezia egin zuten aurreko zapatuan San Martin eskolako patioan. Eid al-Adha deritzon oraziorako elkartu ziren, oraingoan meskita kanpoan, 08:00etan elkartuta. Fededun bakoitzak bere alfonbra eroanda, "Ala ahalguztiduna" goresteko zita izan zuten. 60 bat lagun elkartu ziren elkarrekin otoitz egiteko.



Zapatuan ezkonduko dira

Irati Agirre eta Jon Olabe arrasatearrak uztailaren 16an, iluntzean, ezkonduko dira. Ospakizuna Arteaga jatetxean egingo dute. "Zorionak, bikote! Ederto ospatu eguna, eta segi zoriontsu izaten. Besarkada bana, lagun eta familiakoen partetik".



Erretiratuen ibilaldia

Begarako San Joxepeko kideek, Legazpiko eta Oreretako erretiratuekin batera, mendi buelta egin zuten martitzenean Goiauzoan zehar. 30 bat lagun elkartu ziren, mendian ibiltzeko eta osteko bazkarian parte hartzeko. Bazkalondan, dantzaldia izan zuten. "Esperientzia polita izan da ekimenean parte hartu dugun hiru erretiratu taldeendako".



Aloñakoak, Donostian

Futbol txapelketak aspaldi bukatuta, denboraldia ixteko egun-pasa joan ziren Aloña Mendiko futbol saileko kideak Donostiara. Turismo apur bat egin ostean, Aquarium Bokado Mikel Santamaria jatetxean bazkaldu zuten, denboraldi berrirako indarrak berritzen joateko.



Txoferrak, elkartuta

Aurreko domekan, San Kristobal eguna ospatu zuten hainbat lekutan. Gidarien zaindari izanik, Oñatiko txoferrak elkartu egin ziren, Olabarrietako santutxoan. Autoak eta kamioak apaindu ostean, ermita aurrean ipinitakoak bedeinkatu egin zituzten, eta ondoren, ermandadeak bazkaria egin zuen Soraluze ostatuan. Talde argazkia ere egin zuten.

Auzoko jaiak

Arrasateko Santa Teresa eta Doneztebe Portuko auzoetako bizilagunek jaiak ospatu zituzten aurreko asteburuan. Askotariko ekintzak egin zituzten: parrillada herrikoia, jolasak, bingo-jokoa, umeendako jokoak... Mikroak ere zabaldu zituzten auzotarrendako: abesteko, txistea kontatzeko... Kolore urdinez jantzi zituzten bi auzoak.



Esklerosi anizkoitza ikustarazteko

Busti Zaitetz kanpainarekin bat egin zuten aurreko domekan hainbat lekutan. Besteak beste, Oñatin. Bi urteko etenaren ostean, Foruen plazan ipini zuten informazio-mahaia, eta Donostiatic bidalitako material ia guztia saldu zuten. Balorazio "positiboa" egin zuten antolatzaileek.

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Arene Gorriti
Uztailaren 19an, 2 urte. Zorionak, Arene! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Muxu pila bat etxeko guztien partetik!



ARETXABALETA
Elene San Miguel Erostarbe
Uztailaren 19an, 7 urte. Zorionak, Elene! Ederto pasatu eguna, pitxin!



OÑATI
Aihoa Dorado Hernandez
Uztailaren 19an, 10 urte. Zorionak, bitxito! Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu. Iruñatik muxu erraldoia. Mila kilo zorion familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Mikel Segovia
Uztailaren 18an, 5 urte. Zorionak, txiki! Patxo handi bat amatxoren partetik eta gozatu egunaz!



ARAMAIO
Nahikari Rivera
Uztailaren 18an, 3 urte bete dituzu eta beti bezain alai. Jarraitu horrela! Patxo potolo bat etxeko danon partetik!



ESKORIATZA
Iradi Aramendi Altuna
Uztailaren 18an, 9 urte. Zorionak, maitxi! Topera ospatu zure eguna lagunekin eta familiakoekin! Patxo potolo bat. Asko maite zaitugu!



BERGARA
Maialen Arregi Gantxegi
Uztailaren 18an, 12 urte. Zorionak, neska handi! Ondo-ondo pasatu zure eguna lagun eta familia artean. Patxo handi bat etxekuen partetik.



ESKORIATZA
Danel Garcia Isasmendi
Uztailaren 18an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Azkenien ailegatu da eguna! Ondo-ondo ospatukou! Patxo handi bat danon partetik.



ARRASATE
Naia Nilsson
Uztailaren 17an, 4 urte. Zorionak, Naia! Patxo bat, amama Anttoniren, gurasoen, anaia Finnen eta Donostiako familiaren partetik. Bereziki, Maialen eta Mikel.



BERGARA
Nahia Alberdi Quintana
Uztailaren 16an, 11 urte. Zorionak, Nahia! Musutxu mila!



ESKORIATZA
Urtzi Kortazar Garaizurrebaso
Uztailaren 16an, 39 urte. Zorionak, aitatxo! Egun berezia pasa dezazula eta mila kilo zorion, etxeko guztion partetik, bereziki Intza. Asko maite zaitugu.



ESKORIATZA
Malen Navas Clemente
Uztailaren 16an, 6 urte. Zorionak, maitia! Segi horrela. Zoragarria zara! Mila musu etxeko guztion partetik. Aita, ama, Nahia eta Lai.



BERGARA
Enara eta Telmo Larrañaga Liberal
Uztailaren 14an, 7 urte. Zorionak, bikote. Ondo ospatu zuen urtebetetzea Ourense aldién. Etxekoen partetik.



OÑATI
Maren Luis Gomez
Uztailaren 13an, 8 urte. Zorionak, Maren! Ederki ospatu zure urtebetetze eguna! Muxu asko etxekuen partetik.



ARETXABALETA
Ander Eraña Urieta
Uztailaren 13an, 11 urte. Zorionak, Ander! Urte askotarako! Belarritik 11 tirakada eta besarkada handi bat!



OÑATI
Xuban eta Oxel Pildain
Zorionak, bikote! Xubanez uztailaren 12an, 6 urte eta Oxelek 17an, 3 urte. Ondo-ondo pasatu eguna. Mila patxo familixako danon partetik!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 15

ANTZUOLA Antzuolako jaiak
Askotariko ekintzak. Egitaraua osorik, 31. orrialdean.
Antzuolan.

BERGARA Emakumeendako San Martzial igoera
1,3 kilometroko ibilbidea. Kadete mailakoa Gipuzkoako erlojupeko txapelketa izango da.
Antzuolan.

ARETXABALETA Portasolgo jaiak
16:30ean, buruhandiak gaiteroekin; 17:00etan, patata-tortilla lehiaketa, Zاراia taberna inguruan; 22:00etan, Jotaberen kontzertua, txosna mugikorrean; 23:00etan, Lekittoko Deabruak taldearekin piroteknia ikuskizuna; eta, 00:00etan, Akulu, Eguzki-Alde elkarteko oholtzan.
Portasolen.

ARRASATE Santa Marinako jaiak
18:00etan, banderen igotzea; 18:30ean, txokolate-jana eta bolao; 18:30ean, buruhandiak.
Santa Marina auzoan.

ARRASATE Iker Piris & Dual Electric & Marco Pandolfi
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Euskal Herria plazan, 19:00etan.

ELGETA 'Ardo' disko-liburuaren aurkezpena
Andoni Tolosa *Morau* eta Beñardo Goietxe egongo dira ekitaldian. Sarrerak, bost euro.
Ozkarbi elkartearen, 19:00etan.

ESKORIATZA Marisol Andraderen ipuin kontaketa
Zedemontre Topaketaren baitan. Lehenengo ipuina, euskaraz; eta bigarrena, euskaraz, gazteleraz eta ingelesez. Debalde.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ESKORIATZA Andoni Bengoaren emanaldi akustikoa
Zedemontre Topaketaren baitan, pop-rock kutsuko euskarazko kantak gitarra akustikoarekin entzuteko aukera. Debalde.
Fernando Eskoriatza plazan, 20:00etan.

ARRASATE Emilio Arsuaga & Ther Mad Reeds & Chris Bell taldeak
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Portaloian, 20:30ean.

BERGARA The Reverends Shawn Amos taldea
Rhythm and blues doinuak, Berumuga jaialdiaren baitan.
Espoloian, 22:00etan.

ARRASATE Itziar Yague Cuarteto ft Greg Izor
Arrasate Blues 0 Km jaialdiaren baitan.
Herriko Plazan, 23:00etan.

ZAPATUA 16

ARRASATE 'Ignaziotar Lurralde, Vasco-Navarro bide berdearen ibilbidetik, bizikletan' ibilaldia
Vasco-Navarro trenaren trazatua erabiliz. Izenak emateko: *turismo@arrasate.eus* eta 943 25 20 00.
Tren geltoki zaharrean, 09:00etan.

ARRASATE Txakolin Eguna eta baserritarren azoka
Arrasateko Kataideren eta Oñatiko Belaskuaren eta Murgialdairen txakolinak probatzeko aukera. Erosketa-tiketarekin, gilda bat doan.
Seber Altube plazan, 09:00etan.

ANTZUOLA Antzuolako jaiak
Askotariko ekintzak. Egitarau osoa, 31. orrialdean.
Antzuolan.

BERGARA Santa Marinako jaiak
10:00etan, ezkonduen eta ezkongabeen futbol txapelketa; 13:00etan, parrillada; 16:00etan, mus txapelketa; 17:00etan, umeendako jolasak; 18:30ean, billar, toka, bolo eta igel txapelketak erretiratuendako; eta, 23:00etan, DJ Tilla.
Santa Marinan.

ARRASATE Santa Marinako jaiak
10:00etan, diana; 10:00-13:30, artisau garagardoren eta pintxoent dastatzea; 11:00-14:00, puzgarriak; 13:00etan, herri poteoa; 14:00etan, barbakoa erretiratuaren elkarteko

terrazan; 16:00-17:00, mahai-futbol txapelketa; 18:00etan, apar festa; 19:30ean, buruhandiak; 20:30ean, musika emanaldia umeendako; 21:00etan, Iluminatizz eta Subversion X taldeen kontzertua; eta, 23:30ean, Krosskoren eskutik musika emanaldia.
Santa Marina auzoan.

OÑATI 'XVI. mendeko erretaulak' bisita gidatua
Oñatiko monumentu garrantzitsuenetan ezkutuan dauden kaperak ezagutzeko bisita. Izenak emateko: *turismo@arrasate.eus* eta 943 25 20 00.
Turismo Bulegoan, 11:00etan.

ARETXABALETA Portasolgo jaiak
11:30ean, umeen 100 metroko lasterketa; 12:00etan, puzgarriak; 14:30ean, auzo bazkaria; 16:30ean, mus txapelketa; 18:00-20:00, Portasol Jaialdia; 17:00, DJ BRGren eta Gorkaren emanaldia; 18:00, Salsa Tropikal jardunaldia; eta 22:30ean, Mikel Lopezekin dantzaldia.
Portasolen.

ARAMAIO Santa Marina jaiak
12:00etan, meza; 13:00etan, bizikleta lasterketa Ibarrik Arexolara; 17:00etan kanpai-jotzea; 17:30ean, mus eta briska txapelketak; 18:00etan, Arexolatik Arriolara kalejira; 23:00etan, dantzaldia Astiazaran II eta Andonegirekin.
Arexolan eta Arriolan.

OÑATI Arantzazuko Igoera ziklismo proba
Gazte mailako txirrindulariendako. Oñatikoak ez ezik, Bergarako, Antzuolako, Eskoriatzako eta Aramaioko txirrindulariak lehiatuko dira Ulmaren maillotarekin.
Trianan, 15:30ean.

ARRASATE Paul San Martin & Greg Izor taldea
Arrasate Blues jaialdiaren baitan. Debalde.
Jokin Zaitegi plazan, 18:00etan.

ARRASATE Elen's River Dixieland Band taldea
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Herrian zehar, 18:00etan.



THE REVERENDS SHAWN AMOS

BERGARA The Reverends Shawn Amos taldea
Shawn Ellis Amosek sortu zuen taldea, Los Angelesen, 1970eko hamarkada bukaeran, Marvin Gaye eta Quincy Jones handien eraginpean. Berumuga zikloko kontzertua izango da.
Gaur, egubakoitza, Espoloian, 22:00etan.

ARRASATE Diablues Eta Bluezifer taldea
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Portaloian, 20:00etan.

OÑATI Kantoikrit
Pinoi finkoa duten bizikleten lasterketa.
Foruen plazan, 22:00etan.

ARRASATE Los Brazos taldea
Arrasate Blues 0 Km jaialdiaren baitan.
Ferrerias kalean, 23:00etan.

DOMEKA 17

ANTZUOLA Antzuolako jaiak
Askotariko ekintzak. Egitarau osoa, 31. orrialdean.
Antzuolan.

ELGETA Pagoeta parke naturalera irteera
Kantsatzeke mendi taldekoekin.
Mendizaleen plazan, 08:00etan.

ARRASATE 'PR Gi 206: Murugain, dragoiaren bidetik' ibilaldia
Kondairak dio dragoiak buztanaz egin zuela bidaia. Izenak emateko: *turismo@arrasate.eus* edo 943 25 20 00.
Herriko Plazan, 09:00etan.

ARRASATE Santa Marinako jaiak
10:00etan, diana; 11:00-14:00, puzgarriak eta apar festa; 13:15ean, meza, hildako auzotar

guztien omenez; 14:00etan, bazkaria, 65 urtetik gorakoentzat; 18:00etan, bigantxak eta poniak; 19:30ean, barbakoa erretiratuaren terrazan; 20:00etan, mariatxiak; 21:00etan, *El Bille*-ren emanaldia; eta, 23:00etan, amaiera.
Santa Marina auzoan.

ARETXABALETA Portasolgo jaiak
10:30ean, artisauen azoka; 11:00-13:00, gastronomia azoka: paella eta talo zapatista; 14:00etan, paella txapelketa; 14:30ean, paella bazkaria; 18:00etan, auzoko zaharrenari eta gazteenari omenaldia; 18:00etan, nagusiendako dantzaldia; eta, 21:00etan, jaien bukaera.
Portasolen.

LEINTZ GATZAGA Dorletako Ama 44. Sari Nagusia
Lehendakari Txapelketarako puntuagarria.
San Migel plazan, 11:00etan.

OÑATI 'Altxorren bila'
Ibilbide irisgarrian. Izenak emateko: *arantzazu@gipuzkoanatura.eus* edo 943-78 28 94.
Parketxean, 11:00etan.

BERGARA Santa Marinako jaiak
11:00etan, txistularien kalejira; 11:30ean, musika bandaren kalejira; 12:30ean, musika bandaren kontzertua; 13:30ean, Diablues Eta Bluecifer banda; 14:30ean, paella jaia; eta, 18:00etan, apar festa
Santa Marinan.

ARAMAIO Santa Marina jaiak
12:00etan, Santa Marina eguneko meza nagusia; eta, 18:00etan, umeendako jolasak.
Arexolan eta Arriolan.

ARRASATE Swingtronic taldea
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Arbolapetan, 13:00etan.

OÑATI Espeleotxiki abentura
6 urtetik gorakoendako ekimena. Aurrez eman behar da izena: 943-08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus*.
Arrikutzen, 16:00etan.

ARRASATE JAC bakarlaria
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Arbolapetan, 19:00etan.

ARETXABALETA Amak taldea
Trikiti doinuak nagusiak Alaitz Telletxearekin, Maixa Lizarribarrekin, Amaia Orejarekin eta Kristina Solanorekin. Debalde.
Herriko Plazan, 19:30ean.

ESKORIATZA Pajaro Azul taldea
Bi gitarra eta ahotsarekin osatutako hirukotea da. Musika akustikoa folk, rock eta pop eraginarekin. Ostein, sari banaketa.
Zaldibar antzokian, 20:00etan.

ASTELEHENA 18

ELGETA Podologoa erretiratuendako
Aurrez hartu behar da txanda, 669 99 81 65ra deituta (Maite Elkoro).
Kultura etxean, 15:00etan.

BERGARA Santa Marina eguna
Meza nagusia Santa Marina parrokian, Aritzeta abesbatzarekin. Ostein, salda eta txorizo-pintxoak.
Santa Marinar, 19:00etan.

MARTITZENA 19

OÑATI Bingo-jokoa
Erretiratuendako.
Lagun Lekun, 17:30ean.

BERGARA Doako ardo-dastatzea
Mikel Garaizabalekin. Aurrez eman behar da izena.
Santa Marinar, 19:00etan.

OÑATI 'The usual suspects' filma
Antixenaren *Martizinema* zikloa.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUAZTENA 20

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Santa Marinar, 19:00etan.

OÑATI Alarma Morea taldea
Kalean 2022 udako kultura egitarauaren baitan.
San Lorentzoko ermitaren kanpoaldean, 19:00etan.

ARRASATE Ugandan Sticks Eta Haien Danborrak
Sarrerak, hamar euro. Udazabal egitarauaren baitan.
Monterron parkean, 19:30ean.

ARETXABALETA 'Gelajauziak' ikuskizuna
Kukai dantza taldearen ikuskizuna.
Herriko Plazan, 19:30ean.

EGUENA 21

OÑATI 'Giza eskubideak eta enpresak: gizarte berrikuntzarantz' hitzaldia
Maidar Zilbetik egingo du berba.
Online, 17:00etan.

BERGARA 'Trapu zikinak' antzezlan
Lore-More konpainiarekin Geuretik Sortuak ekimenaren baitan.
Errekalde jauregian, 19:00etan.

EGUBAKOITZA 22

OÑATI Madalenako jaiak
16:30ean, jaiak hasteko etxafuegoak, eta bizikleta martxa; 17:00etan, pilota partiduak; 22:00etan, kontzertuak; eta, 03:00etan, Jo Ta Txo DJa.
Madalenan.

ARETXABALETA Nhil taldea
Aretxabatearrak, eskoriatzarrak eta arrasatearrak kide dituen taldeak azken diskoa aurkeztuko du.
Santa Ritako lorategian.

ZINEMA

EIBAR

COLISEO

Mamá no enRedes
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.
Mis queridísimos hijos
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.
Padre no hay más que uno 3
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

GORBEIA

Top gun
Egubakoitzetik eguenera, domeka izan ezik: 19:20.

Domeka: 11:30, 19:20.
Jurassic world
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:15, 20:45, 22:00.
Domeka: 11:30, 17:00, 18:45, 19:15.
Astelehenetik eguenera: 17:00.
19:15, 20:00.
Ligtheyar
Egubakoitza eta zapatua: 16:30.
Domeka: 12:00, 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.
Elvis
Egubakoitza eta zapatua: 18:40, 21:45.
Domeka: 11:30, 18:40.
Astelehenetik eguenera: 20:00.
The black phone
Egubakoitza eta zapatua: 17:10, 22:00.

Domeka: 12:00, 17:10.
Astelehenetik eguenera: 17:10.
Llenos de gracia
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:50, 22:10.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:50.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:50.
FLORIDA
Cinco lobitos
Egubakoitza: 19:30, 21:40.
Zapatua: 11:30, 19:30, 21:40.
Domeka: 11:30, 19:30.
Astelehenetik eguenera: 20:10.
Benediction
Egubakoitza eta zapatua: 19:10, 21:55.
Domeka: 19:10.
Astelehenetik eguenera: 19:45.
Mali twist
Egubakoitza eta

zapatua: 22:20.
Domeka: 20:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 19:20.
Martitzena: 20:00.
Entre la vida y la muerte
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:35, 21:40.
Domeka: 17:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.
Pig
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 21:45.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehenetik eguenera: 17:20, 20:15.
Padre no hay más que uno 3
Egubakoitza: 16:35, 17:30, 18:20, 20:25, 22:30.
Zapatua: 12:00, 16:35, 17:30, 18:20, 20:25.
Domeka: 12:00, 16:35, 17:30,

18:20, 20:25.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00.
Martitzena: 17:15, 20:00.
Llenos de gracia
Egubakoitza: 17:15.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30.
BOULEVARD
Padre no hay más que uno 3
Egunero: 15:50, 16:15, 16:50, 18:00, 18:25, 19:00, 20:10, 20:35, 21:10, 22:20, 22:45.
Hasta siempre, Don Gleses!
Egunero, martitzena izan ezik: 18:10.
Thor: love and thunder
Egubakoitzetik domekara: 15:45, 18:15, 20:45,

23:15.
Astelehenetik, eguaztena eta eguena: 15:45, 18:15, 20:45.
Egunero: 16:35, 17:25, 19:05, 19:55, 21:35, 22:25.
Martitzena: 15:45, 18:15.
Minions
Egunero: 15:50, 16:50, 17:50, 18:50, 19:50, 20:50, 21:50.
Egunero, eguena izan ezik: 17:20.
Jurassic World
Egunero: 15:55, 18:55, 21:55.
Black phone
Egunero: 20:15, 22:30.
Ligtheyar
Egunero: 15:55.
Llenos de gracia
Egunero: 16:40.
Elvis
Egunero: 19:10.
Top gun
Egunero: 22:15.

KRITIKA

Benediction ★★★★★
Zuz.: Terence Davis. **Herr.:** Erresuma Batua (2021). **Aktoreak:** Jack Lowden, Simon Russell.

Oroimenen pisua

ANTONIO ZABALA

Terence Davisen zinema oso pertsonala da. Haren istorioetan oroimenek eta iraganaren pisuak garrantzi nabarmena izaten dute. Kamerarekin egiten dituen panoramikak, garai batetik beste batera pasatzeko trantsizioak, musika eta abestien erabilera, irudien edertasuna, aktore guztien lan zoragarriak... Dena sentiberatasun handiz egina dago. *Benediction*-en, Siegfried Sasoon poetaren bizitza kontatzen digu. Lehenengo Mundu Gerran borrokatzen ari zenean, politikarien portaerak milaka hildako, zauritu eta sufrimendu ikaragarria sortarazten zituela salatzeke, armadatik alde egitea erabaki zuen. Armadako agintariek denboraldi baterako egoitza psikiatriko baten sartu zuten. Han, haren bizitzan



garrantzi handia izango duen pertsonaia ezagutuko du. Gudaren eskarmentuak eta han ikusitako guztia haren oroimenean mantenduko dira, eta beraren olerkietan gordintasunez eta edertasunez islatuko dira. Davisek bikain jokatzan du artxiboko irudiekin eta Sasoonen

olerkiekin gudaren kalteak azaltzeko. Egoitzatik irten ondorengo amodio harremanak ikusiko ditugu. Festazalea zen, eta jende asko ezagutu zuen. Amodio mingarriak eta garrantzi txikiko harremanak izan zituen. Azaltzen zaigu gure oroimenekin bizi beharko dugula.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Oztopoak

2010eko uztailaren 10ean sekulako manifestazioa egin zen Bartzelonan *Som una nació, nosaltres decidim* lelopean. *Procés* subiranistaren abiapuntutzat hartzen da agerraldi hori. Gogoratzen dut egun hartan Bartzelonan batutako jendetzak ikaragarritzko animoa zuela. Dibortzio prozesuak aurrera eta aurrera egin zuen 2017ra arte. Azkenaldian Katalunian izan naizenean ia ez dut gogo independentistaren zantzurik nabaritu. Hainbat arrazoik azaltzen dute hori, batzuk prozesuaren barnekoak dira eta beste batzuk kanpokoak.

Azken horien artean daude Kataluniako medio batzuek aipatu ohi dituzten *deep state* eta *lawfare*. Lehenari "estatuaren botere faktikoak" deitu izan diogu hemen eta, aspaldion, *fake* informazioa (faltsua) batu behar zaio. Bigarrenarentzat, ez daukagu izenik. *Lawfare* edo "gera juridikoa" da tribunalak eta legeak erabiltzea aurkaria neutralizatzeko. Elementu horien erabilpenaren adibideak identifikatu litezke penintsulako alde hartan. Eta baita alde honetan ere.

Ingeleseko hitzak badira ere, eskoziarrek ez dituzte hainbeste oztopo izango 2023an erreferenduma antolatzeke.

GOIENA OKM GIDA

"Talde-lana dena da, aurrena eta azkena"

RAFA IRIGOYEN ETXE-LAN ENPRESAKO GERENTEA

Ostalaritzako, elkarteetako eta eskoletako sukaldeko makinak saltzen ditu Etxe-lanek. Basque Cullinary Center eta Karlos Arguiñano ditu bezero, besteak beste

Idoia Aranbarri Arzuaga ESKORIATZA
Duela hogeita hamabost urte inguru sortu zen Etxe-lan enpresa, Fagor etxetresnen zerbitzu tekniko ofizial bezala. Duela bost hilabete hasi zen Rafa Etxegoyen enpresan lanean gerente gisa, eta hainbat erronka ditu aurretik.
Duela bost hilabete inguru hasi zinen Etxe-lanen.

Azken urteetan, Hernanin kokatuta dagoen multinazional amerikar batean aritu naiz lanean. Bi enpresetako kultura ezberdina da. Harreman asko nituen kanpoko jendearekin beste enpresan.

Nolakoa izan da lur-hartzea?

Aurretik lan egiten nuen enpresarekin alderatuta, planteamen-dua eta kudeaketa ezberdinak dira; hau, azken finean, kooperatiba da. Taldean jende jatorria eta langilea daukat, eta lanean ari naiz euren onena atera dezaten. Hori da nire helburua.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

Fagorren eta beste hainbat etxetresna markaren zerbitzu teknikoaz arduratzeaz gain, ostalaritzako, eskolotako, elkartetako eta egoitzetako etxetresna handiak egiten ditugu: kozinatzeke labeak nahiz suak, adibi-



Rafa Etxegoyen Etxe-laneko gerentea da duela bost hilabetetik. I.A.A.

Aurreneko pausoak digitalizazioan

"Digitalizazioaren aldeko apustua egiten ari gara. Gure sektorea oraindik ez dago oso murgilduta arlo horretan, baina etorkizunean, makina guztiak elkarren artean konektatuta egongo dira. Hala ere, geroz eta gehiago daude interkonektatuta. Digitalizazioaren hasieran gaude, gure erronka da. Gure markekin lanean ari gara bezeroei lana errazteko. Gure estrategia da zerbitzu eta produktu onak eskaintzea".

dez, hotz industrialak deritzenak eta garbategietako makinak.

Taldea aipatu duzu. Talde-lana garrantzitsua da, ezta?

Talde-lana dena da, aurrena eta azkena. Beste gauzak hobeto edo okerrago egitea badago, baina talde-lana ez bada egiten, ez dago ezer egiterik. Hori da garrantzitsuena. Egon naizen enpresetan hori bultzatzen saiatu naiz. Klima eta komunikazio aparta dauzkagu.

Talde-lanaren ondorio al da zuen zerbitzua?

Komertzialekin, proiektuetako ekipoekin, aparejadorearekin, delineaatzailearekin eta muntatzaileekin ematen diegu erantzun integrala gure bezeroei. Gure lana ez da bakarrik makinak saltzea. Debagoienean eta inguruan indartsuak gara, baina gure erronka da handitzea eta merkatua zabaltzea.

Bezeroekin duzuen harremana nolakoa da?

Bilerak egiten ditugu, eta hark nahi duen horri soluziorik onena ematen diogu. Gure makinak bezeroekin probatzeko lekua daukagu. Gure proiektua egin, muntatu eta zerbitzu tekniko osoa ematen diegu. Digitalizazioarekin, bezeroari lanak erraztea da gure helburua.

Non jarri dituzue zuen makinak?

Basque Cullinary Centerreko labea guk muntatu genuen, eta guk ematen diogu zerbitzu teknikoa. Halaber, Arguiñanoren Zarauzko jatetxekoa eta Alaiakoa ere, haren ostalaritza eskolakoa, geureak dira.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

RALLYSPRINTA ETA TXIRRINDULARITZA

GOIENA TELEBISTA, 'HARMAILATIK' KIROL SAIOA
UZTAILAREN 18AN, ASTELEHENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
XABIER URZELAIK AURKEZTUTAKO SAIOA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

